

5/2020 Foru Dekretua, apirilaren 21ekoa, zeinaren bidez onesten baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketak eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretua eta beronek onartzen duen erregelamendu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

AURKIBIDEA

I. TITULUA.....	11
XEDAPEN OROKORRAK	11
1. artikulua. Aplikazio eremua.	11
II. TITULUA.....	11
TRIBUTUAK APLIKATZEKO PRINTZPIO OROKORRAK	11
I. KAPITULUA. TRIBUTUAK KUDEATZEKO EGINKIZUNAK ESLEITU ETA AHALMENAK BALIATZEA	11
2. artikulua. Zerga Kudeaketako organoak.	12
3. artikulua. Tributuak kudeatzeko ahalmenak baliatzea.	12
II. KAPITULUA. ZERGAPEKOEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEA	13
1. SEKZIOA. <i>Printzipio orokorrak</i>	13
4. artikulua. Zerga arloko informazioa eta laguntza.	13
2. SEKZIOA. <i>Informazio jarduketak</i>	13
5. artikulua. Informazio jarduketak eta eskaerak.	13
6. artikulua. Informazio eskaerak izapidetu eta erantzutea.	13
3. SEKZIOA. <i>Administrazioa aurrez lotesteko prozedurak</i>	14
7. artikulua. Administrazioa aurrez lotesteko prozedurak.	14
1. azpisekzioa. Zerga kontsulta idatziak	14
8. artikulua. Kontsultak egiteko legitimatuta dauden pertsonak edo entitateak.	14
9. artikulua. Kontsulta idazkia aurkeztea.	14
10. artikulua. Kontsulta izapidetzea.	15
11. artikulua. Kontsultari erantzutea.	16
12. artikulua. Erantzunaren ondorioak.	16
13. artikulua. Kontsultak artxibatzea.	17
2. azpisekzioa. Ondasun higiezinak eskuratu edo eskualdatu aurreko informazioa.	17
14. artikulua. Ondasun higiezinak eskuratu edo eskualdatu aurreko informazioa.	17
3. azpisekzioa. Aurretiazko tributazio proposamenak	18
15. artikulua. Proposamenak aurkezteko legitimatuta dauden pertsonak edo entitateak.	18
16. artikulua. Proposamena aurkeztea.	18
17. artikulua. Proposamena izapidetzea.	19
18. artikulua. Proposamena ebaztea.	20
19. artikulua. Proposamenak artxibatzea.	20
4. azpisekzioa. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikak	20
20. artikulua. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikak.	20
5. azpisekzioa. Zergen Aholku Batzordea	22
21. artikulua. Zergen Aholku Batzordea.	22
22. artikulua. Osaketa.	22
23. artikulua. Batzordearen eginkizunak.	23
24. artikulua. Batzordearen funtzionamendua.	23
4. SEKZIOA. <i>Zerga ziurtagiriak ematea</i>	23
25. artikulua. Zerga ziurtagiriak.	23

26. artikulua. Zerga ziurtagiriak eskatzea	24
27. artikulua. Zerga ziurtagiriaren edukia	24
28. artikulua. Zerga ziurtagiriak ematea	25
29. artikulua. Zerga betebeharrak egunean izateari buruzko ziurtagiriaren betekizunak	25
30. artikulua. Zerga ziurtagiriaren ondorioak	26
5. SEKZIOA. Zerga arloko laguntza jarduketak	26
31. artikulua. Zerga arloko laguntza jarduketak	26
32. artikulua. Programa informatikoak eta zergapekoei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea	27
III. KAPITULUA. GIZARTE LANKIDETZA TRIBUTUEN APLIKAZIOAN	27
33. artikulua. Gizarte lankidetzaren subjektuak tributuen aplikazioan	27
34. artikulua. Gizarte lankidetzaren edukia zerga aplikazioan	28
IV. KAPITULUA. TRIBUTUAK APLIKATZEKO JARDUKETA ETA PROZEDURETAN BALIABIDE ELEKTRONIKO, INFORMATIKO ETA TELEMATIKOAK ERABILTZEA	28
35. artikulua. Zerga Administrazio jardulearen identifikazioa	29
36. artikulua. Administrazio jarduketa automatizatua	29
III. TITULUA.....	29
ZERGA JARDUKETA ETA PROZEDURETAN APLIKATU BEHARREKO ARAU KOMUNAK	29
I. KAPITULUA. ZERGA ARLOKO ADMINISTRAZIO PROZEDUREN BEREZITASUNAK	29
1. SEKZIOA. Zerga arloko jarduketak eta prozedurak hastea	29
37. artikulua. Ofizioz hastea	29
38. artikulua. Prozedura hastea zergapekoak eskatuta	30
39. artikulua. Zuzenketa	31
2. SEKZIOA. Zerga arloko jarduketak eta prozedurak izapidetzea	32
40. artikulua. Jarduketen tokia eta ordutegia	32
41. artikulua. Izapidetze epeak luzatu eta geroratzea	32
42. artikulua. Dokumentazioa aurkeztea eta hirugarrenen edo entitateen datuak berrestea	33
43. artikulua. Zergapekoek prozeduren izapidetze egoeraren berri izatea	33
44. artikulua. Administrazio artxibo eta erregistroetako sarbidea	33
45. artikulua. Kopiak lortzea	33
46. artikulua. Entzunaldi eta alegazio izapidea	34
3. SEKZIOA. Zerga jarduketa eta prozeduretako dokumentazioa	34
47. artikulua. Komunikazioak	34
48. artikulua. Eginbideak	35
49. artikulua. Eginbideak izapidetzea	36
50. artikulua. Txostenak	36
4. SEKZIOA. Zerga jarduketak eta prozedurak amaitzea	37
51. artikulua. Ebazpena	37
52. artikulua. Gehieneko ebazpen epeen zenbaketa	38
53. artikulua. Etenaldi justifikatuak	38
54. artikulua. Administrazioari egotzi ezineko arrazoiarengatik eragindako luzamenduak	40
5. SEKZIOA. Zergapekoek zerga jarduketa eta prozeduretan esku hartzea	41
1. azpisekzioa. Administrazio jarduketetan egiteko baliatu beharreko pertsonak	41
55. artikulua. Errenta esleipeneko araubide bati lotutako entitateei eta Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan jasotako zergapekoei buruzko jarduketak	41
56. artikulua. Erantzukizun solidarioari buruzko jarduketak obligazio berean hainbat zergapeko agertzen direnean	42
57. artikulua. Oinordekoekin egiten diren jarduketak	42
58. artikulua. Jarduketak likidazio edo konkurtso kasuetan	43
59. artikulua. Zergapeko ez-egoiliarrei buruzko jarduketak	43
2. azpisekzioa. Ordezkaritza zerga prozeduretan	43
60. artikulua. Legezko ordezkariak	43
61. artikulua. Borondatezko ordezkariak	44
62. artikulua. Legezko eta borondatezko ordezkarietarako xedapen komunak	45
II. KAPITULUA. ZERGA ARLOKO JAKINARAZPENAK	46
63. artikulua. Jakinarazpen elektronikoak	46
64. artikulua. Paperezko jakinarazpena	47
65. artikulua. Bertaratuta jakinaraztea	48
IV. TITULUA.....	48
ZERGA KUDEAKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK	48

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK	48
66. artikulua. Aitorpenak, autolikidazioak eta itzulketa eskaerak aurkeztea.	48
67. artikulua. Aitorpen osagarri eta ordezkioak.	49
68. artikulua. Autolikidazio osagarriak.	49
69. artikulua. Itzulketa eskaera osagarriak eta ordezkioak.	50
II. KAPITULUA. ZERGA KUDEAKETAKO PROZEDURAK	50
1. SEKZIOA. Autolikidazio edo eskaera bidez hasitako itzulketa prozedura	50
70. artikulua. Prozedura hastea.	50
71. artikulua. Prozedura izapidetzea eta amaitzea.....	50
2. SEKZIOA. Autolikidazioak, aitorpenak edo itzulketa eskaerak zuzentzeko prozedura.....	51
1. azpisekzioa. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura.....	51
72. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura hastea.	51
73. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura izapidetzea.....	51
74. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura amaitzea.	52
75. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozeduretako berezitasunak, atxikipenei, konturako sarrerei edo jasandako kuotei buruzkoak.	52
2. azpisekzioa. Aitorpenak eta itzulketa eskaerak zuzentzeko prozedura.....	54
76. artikulua. Aitorpenak eta itzulketa eskaerak zuzentzeko prozeduraren berezitasunak.	54
3. SEKZIOA. Zerga itzulketak exekutatze prozedura	54
77. artikulua. Zerga itzulketen exekuzioa.	54
78. artikulua. Zerga itzulketen ordainketa edo konpentsazioa.	55
4. SEKZIOA. Aitorpenaren bidez hasitako prozedura	55
79. artikulua. Aitorpen bidez hasitako prozedura.	55
5. SEKZIOA. Eskaera izaerako zerga onurak aitortzeko prozedura.....	56
80. artikulua. Zerga Administrazioak eskaera izaerako zerga onurak aitortzeko prozedura.	56
81. artikulua. Eskaera izaerako zerga onurak aitortzearen eraginak.	56
6. SEKZIOA. Aitorpen eta autolikidazioen aurkezpena kontrolatzeko jarduketak	57
82. artikulua. Aitorpen eta autolikidazioen aurkezpena kontrolatzeko jarduketak.	57
7. SEKZIOA. Autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura.....	58
83. artikulua. Autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura hastea eta izapidetzea.	58
84. artikulua. Autolikidazio eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura amaitzea.	58
8. SEKZIOA. Balioak egiaztatze prozedura	59
1. azpisekzioa. Printzipio orokorrak.....	59
85. artikulua. Balioen egiaztapena.	59
86. artikulua. Balioak egiaztatze bitartekoak.....	59
87. artikulua. Balioak egiaztatze jarduketak.	59
2. azpisekzioa. Balioak egiaztatze prozedura.....	60
88. artikulua. Balioak egiaztatze prozedura.....	60
3. azpisekzioa. Perituen tasazio kontrajarria	61
89. artikulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura hastea eta izapidetzea.	61
90. artikulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura amaitzea.....	62
9. SEKZIOA. Egiaztapen mugatuko prozedura	63
91. artikulua. Egiaztapen mugatuko prozedura hastea.	63
92. artikulua. Egiaztapen mugatuko prozedura izapidetzea.....	63
93. artikulua. Egiaztapen mugatuko prozedura amaitzea.	64
Lehen xedapen gehigarria. Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik sinatutako lankidetzak hitzarmenak.	64
Bigarren xedapen gehigarria. Zuzenbide publikoko bidegabeko sarreraren itzulketa.....	64
Azken xedapen bakarra. Arauak emateko ahalmena.	64

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, foru zerga sistemaren printzipio eta arau juridiko orokorrak ezartzen ditu, eta azken xedapenetako hemezortzigarrenean dio Gipuzkoako Foru Aldundiak behar diren xedapen guztiak eman ditzakeela arau hori garatu eta aplikatzeko.

Aipatutako araua onartu zenetik hainbat erregelamenduk garatu dituzte haren edukiak, eta une hauetan Kudeaketako jarduketa eta prozeduren garapena egitea falta da.

Erregelamenduzko garapen horrekin amaitzeko, beharrezkoa da zerga araubide juridikoa osatzea gai hauek jorratuko dituen erregelamendu bat onartuz: zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunak, Kudeaketako jarduketa eta prozeduren erregulazioa, tributua kudeatzeko eginkizunak esleitu eta betetzeari buruzko alderdiak, zergapekoei informazioa eta laguntza ematekoak, edo zerga Kudeaketan beharrezkoa den gizarte lankidetzari dagozkionak.

Aurrekoaz gain, ikuspegi sistematiko batetik begiratuta, beharrezko iritzi da hainbat erregelamenduzko garapenetan sakabanaturik dauden alderdi eta gai jakin batzuk erregelamendu berean integratzea. Horrela, arau multzo berean integratzen dira hurrengo garapen hauek:

— 73/1991 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, zerga izaerako okerreko diru sarreraren itzulketa egiteko prozedura arautzen duena.

— 49/2006 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa, zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duena.

— 79/2008 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Zergen Foru Arau Orokorrean balioen egiaztapenerako aurreikusita dagoen prozedura garatzen duena.

Hori horrela izanik, foru dekretu honen xedea da erregelamendu bat onestea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketa arautu eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunak garatzeko.

Erregelamenduak lau titulu ditu, 93. artikulua, bi xedapen gehigarri eta azken xedapen bat.

I. tituluak artikulua bat baino ez dauka, erregelamenduaren aplikazio eremua arautzen duena.

II. tituluak jasotzen ditu tributua aplikatzeko jarraitu beharreko printzipio orokorrak, lau kapitulutan banatuak. Lehenengoan ezartzen da nori esleitzen zaizkion tributua kudeatzeko eginkizunak eta zer ahalmen baliatu daitezkeen. Bigarrenean hizpide hartzen da zergapekoei eman beharreko informazio eta laguntza, eta bost sekziotan banatzen da. Lehen sekzioak zerga arloko informazio eta laguntzaren printzipio orokorrak arautzen ditu, eta horretarako, sustatu eta errazten du zergapekoen zerga betebeharrak betetzea eta haien eskubideak baliatzea.

Bigarren sekzioak informazio jarduketak eta eskaerak arautzen ditu, zerga betebeharrak behar bezala betetzeko beharrezkoa den informazioa zergapekoen esku jarritz.

Hirugarren sekzioak bost azpisekzio hartzen ditu, eta haien barruan biltzen dira Administrazioa aurrez lotesteko prozedura desberdinak, hala nola lotesleak diren zerga kontsulta idatziak, ondasun higiezinak eskuratu edo eskualdatu aurreko informazioa, aurretiazko tributazio proposamenak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren araudietan aurreikusten diren aurretiazko tributazio proposamen espezifikak, eta, azkenik, Zergen Aholku Batzordearen erregulazioa.

II. kapituluko laugarren sekzioak zerga ziurtagiriak arautzen ditu, eta, besteak beste, ezartzen du zer eduki izan behar duten edo izan dezaketen helburuaren arabera, nola eskatu eta eman behar diren, eta zer ondorio izango dituzten.

II. kapituluko bosgarren eta azken sekzioak laguntza jarduketak arautzen ditu, eta, hartara, ezartzen du jarduketa horiek Zerga Administrazioak zergapekoen esku jartzen dituen jarduketan multzoa dela, haien eskubideak baliatzea eta haien betebeharrak betetzea errazteko. Apartatu honetan jasotzen diren jarduketan artean, aurreikusten da zergapekoei laguntza ematea bai autolikidazioak betetzeko bai autolikidazio proposamenak prestatzeko, zeinak gaur egun gero eta

ezarpen handiagoa baitute zerga Kudeaketan, eta nabarmen errazten baitie zergapekoei beren betebeharrak betetzea.

II. tituluko III. kapituluan arautzen da zerga Kudeaketak beharrezkoa duen gizarte lankidetzaz, Zergen Foru Arau Orokorraren 89. artikuluan jasotakoa garatuz. Lankidetzaz hori gauzatzeko, aurreikusten da bertan zehazten diren erakunde eta antolakundeeekin akordioak edo hitzarmenak izenpetzea, eta lankidetzaz hori erregelamenduan jasotzen diren beste alderdi batzuetara ere zabaltzea.

IV. kapituluak arautzen du bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera tributuak aplikatzeko jarduketak eta prozeduretan, eta bi artikulua biltzen ditu horretarako, Zerga Administrazio jardulea bitarteko horien bidez identifikatzeari buruzkoa bata, eta administrazio jarduketak automatizatuari buruzkoa bestea.

III. tituluak ezartzen ditu zerga arloko jarduketak eta prozeduretan aplikatuko diren arau komunak, eta bi kapitulu eskaintzen dizkio gaiari, 29 artikulutan banatuak. Lehen kapituluak zerga arloko administrazio prozeduren berezitasunak jasotzen ditu, bost sekziotan garatuak.

Lehen sekzioan arautzen da zerga arloko jarduketan eta prozeduren hasiera, eta bereizten ditu ofizioz hasitakoa eta zergapekoak eskatuta hasitakoa. Horrekin lotuta, esan beharra dago ezen, autolikidazioen eta gainerako aitorpenen aurkezpenera zergapekoak eskatuta hasitako aurkezpentzat jotzen dela, Zergen Foru Arau Orokorraren 94. artikuluan aurreikusten den bezala.

Bigarren sekzioak zerga arloko jarduketak eta prozedurak izapidetzeko era arautzen du, besteak beste, gai hauek ukituz: jarduketan tokia eta ordutegia, izapidetze epeak luzatu eta geroratzea, dokumentazioaren aurkezpenera, zergapekoek prozeduren izapidetzea nola dagoen jakiteko duten eskubidea, artxibo eta erregistroetara iristeko eskubideak, kopiak eskuratzeko eskubidea, eta entzunaldi eta alegazio izapidea.

Hirugarren sekzioak hizpide hartzen ditu zerga arloko jarduketak eta prozeduretan prestatzen diren dokumentuak, eta hiru dokumentu mota bereizten ditu: komunikazioak, eginbideak eta txostenak.

Laugarren sekzioak jarduketak eta prozedurak amaitzearekin zer ikusia duten alderdiak arautzen ditu, hala nola, ebazpena, ebazteko gehieneko epeen konputua, etenaldi justifikatuak, eta Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen diren luzamenduak.

I. kapituluko bosgarren eta azken sekzioak bi azpisekzio biltzen ditu. Lehenengoan hizpide hartzen da jarduketak zer pertsonarekin hartu behar diren egindakotzat, eta bigarrenean ordezkaritzari buruzko alderdiak jasotzen dira, izan ordezkaritzaz hori legezkota izan borondatezkota.

III. titulu honen II. kapitulua tributu gaitan egiten den jakinarazpenari eskainita dago, eta hiru jakinarazpen mota bereizten ditu: elektronikoa, paperean egindakoa, eta interesduna bertaratuta egindakoa. Horrekin, amaitzen da zerga arloko jarduketak eta prozeduretan aplikatu beharreko arau komunei eskainitako titulua.

Arau komun horiek erregelamendu honetan sartzeak behartzen gaitu aldatzera Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua, azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsia. Izan ere, beharrezko gertatzen da arau komunekin lotuta dauden gaiak erregelamendu horretatik ezabatzea edo, behar den kasuetan, horiei buruzko aipamenak erregelamendu honetara igortzea, erregulazioan bikoiztasunak egon ez daitezen. Aldaketa hori erregelamendu hau onartzen duen foru dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan egiten da.

Erregelamenduaren IV. tituluak zerga Kudeaketako jarduketak eta prozedurak arautzen ditu hertsia-hertsian, eta bi kapitulutan egitaratuta dago.

I. kapituluak 4 artikulutan banatzen da, eta haietan gai desberdinei buruzko xedapen orokorrak jasotzen dira, hala nola aitopen, autolikidazio eta eskaeren aurkezpena, ordezkot aitopenak eta aitopen osagarriak, autolikidazio osagarriak, eta itzulketa eskaerak, osagarriak zein ordezkoak.

II. kapituluak Kudeaketa prozedurak biltzen ditu, eta 9. sekziotan banatzen da, hartzen dituen prozedurak adina.

Lehen sekzioak arautzen du autolikidazio edo eskaera bidez hasitako itzulketa prozedura, eta hiru artikulua eskaintzen dizkio, gai bana hartuta: prozeduraren hasiera, tramitazioa eta amaiera.

Bigarren sekzioak arautzen du autolikidazioak, aitopenak edo itzulketa eskaerak zuzentzeko prozedura. Sekzio hau bitan banatzen da. Lehenengoan autolikidazioak zuzentzeko prozedura hartzen da hizpide, eta bigarrenetan aitopenak eta itzulketa eskaerak zuzentzekoa.

3., 4., 5. eta 6. sekzioetan prozedura hauek arautzen dira, hurrenez hurren: zerga arloko itzulketak exekutatzeko prozedura, aitopen bidez hasitako prozedura, eskutatako onura fiskalak onartzeko prozedura, eta aitopen eta autolikidazioen aurkezpena kontrolatzea helburu duten jarduketak.

Zazpigarren sekzioak autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura garatzen du, eta zortzigarren sekzioak hizpide hartzen du balioak egiaztatzeko prozedura, zeinaren aurrekaria abenduaren 16ko 79/2008 Foru Dekretua baita, Zergen Foru Arau Orokorrean balioak egiaztatzeko aurreikusten den prozedura garatzen duena eta erregelamendu hau onartzen duen foru dekretuaren bidez indargabeturik geratzen dena.

Bukatzeko, bederatzigarren sekzioan egiaztapen mugatuko prozedura garatzen da.

Gorago aipatu diren xedapen horiez gain, zeinak txertaturik geratzen baitira orain onesten den erregelamendu berrian, txertatze horren ondorioz hiru foru dekretu hauek ere indargabetzen dira: urriaren 15eko 73/1991 Foru Dekretua, zerga izaerako okerreko diru sarreraren itzulketa egiteko prozedura arautzen duena, abenduaren 5eko 49/2006 Foru Dekretua, zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duena, eta abenduaren 16ko 79/2008 Foru Dekretua, Zergen Foru Arau Orokorrean balioen egiaztapenerako aurreikusita dagoen prozedura garatzen duena.

Azkenik, azken xedapenetako laugarrenak ezartzen du foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hilabetera jarriko dela indarrean.

Erregelamendua onesten duen foru dekretuaren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, erregelamendua indarrean jartzen denetik aurrera, aplikagarria izango zaie izapidetzen ari diren Kudeaketa eta zerga-bilketa jarduketa eta prozedurei, amaitu gabe dauden izapidetegi dagokienez. Erregelamendua indarrean jartzen denean hasita dauden ikuskapen jarduketa eta prozedurei dagokienez, xedapen iragankorrak dio horiei aplikatuko zaiela jarduketa eta prozedurak hastean indarrean zegoen araudia, horiek amaitu arte.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordeari entzunda, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Onestea Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua.

Onetsita geratzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Xedapen indargabetzaileak indargabetzen dituen foru dekretuei foru araudian egiten zaizkien aipamenak foru dekretu honen bidez onesten den erregelamenduko xedapenei buruzkoak direla joko da.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Foru dekretu honen bidez onesten den erregelamendua aplikagarria izango zaie, indarrean jartzen denetik aurrera, izapidetzen ari diren Kudeaketa eta zerga-bilketa jarduketa eta prozedurei, egiteke dauden izapidetza dagokienez.

Foru dekretu honen bidez onesten den erregelamendua indarrean jartzen denean izapidetzen ari diren ikuskapen jarduketa eta prozedurei jarduketa eta prozedura horiek hastean indarrean zegoen araudia aplikatuko zaie, horiek amaitu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira foru dekretu honetan eta haren bidez onetsitako erregelamenduan ezarritakoarekin bat ez datozen xedapen guztiak, eta bereziki, honako hauek:

— 73/1991 Foru Dekretua, urriaren 15ekoa, zerga izaerako okerreko diru-sarreraren itzulketa egiteko prozedura arautzen duena.

— 49/2006 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa, zerga kontsulta idatzien eta aurretiazko tributazio proposamenen prozedurak garatu eta Zergen Aholku Batzordea sortzen duena.

— 79/2008 Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Zergen Foru Arau Orokorrean balioen egiaztapenerako aurreikusita dagoen prozedura garatzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduan, azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutakoan:

Bat. 12.2. artikuluko a) letra honela geratzen da idatzita:

«a) Beste pertsona edo entitate batzuetatik, publikoak zein pribatuak izan, zuzenean edo zeharka lortutako agiriak, posta, datuak, txostenak, aurrekariak eta zerga alorrean garrantzia duen beste edozein dokumentu, zergapekoari eragiten diotenean.»

Bi. 17. artikulua honela geratzen da idatzita:

«17. artikulua. Zerga Ikuskaritzaren aurrean behartuak.

1. Zergapekoek arreta erakutsi behar diote Zerga Ikuskaritzari, eta behar den lankidetzaz eskaini bere eginkizunak bete ditzan.

Sozietateen gaineko zergan zerga baterakuntzaren araubidean tributatzaren duten taldeen kasuan, edo balio erantsiaren gaineko zergan entitate taldeak osatzen dituztenen kasuan, talde fiskalaren entitate ordezkariak edo entitate taldeko

sozietate nagusiak eta menpeko entitateek erakutsiko diote arreta Zerga Ikuskaritzari.

2. Zerga Ikuskaritza aurrez abisatu gabe agertzen bada jarduketak egin behar diren tokian, zergapekoak arreta erakutsi beharko dio bertan baldin badago. Bertan ez badago, leku horietako arduradunak edo erantzuleak egongo dira behartuta laguntza ematera eta Zerga Ikuskaritzak egiten dituen galderei erantzutera, hargatik eragotzi gabe une eta leku berean jarduketekin jarraitzeko eskatu ahal izatea, ezartzen den epean, egoki jotzen diren kautelazko neurriak hartzeaz gainera.

3. Zergapekoak edo haren ordezkariak ikuskapen jarduketetan egon behar du, Zerga Ikuskaritzaren iritziz jarduketak behar bezala egiteko beharrezkoa dela uste duenean.»

Hiru. 18. artikuluko lehen paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Zergen Foru Arau Orokorrak 136. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, Zerga Ikuskaritzak, salbuespen gisa eta arrazoituta betiere, eskatu ahal izango du zergapekoa agertu dadila Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 40. artikuluan eta erregelamendu honek 34. artikuluan aipatzen dituzten lekuetatik edozeinetan, egin beharreko jarduketetarako beharrezkoa denean. Besteak beste, honako kasuetan beteko da zirkunstantzia hori:»

Lau. Edukirik gabe uzten dira lehen tituluaren II. kapituluko 2. eta 3. sekzioak.

Bost. Edukirik gabe uzten dira lehen tituluaren III. kapituluko 2. eta 3. sekzioak.

Sei. 37. artikuluko 2. apartatua honela geratzen da idatzita:

«2. Egiaztapen eta ikerketa prozedura zergapekoari jakinarazitako komunikazioaren bidez hasi ahal izango da, bertan azalduz adierazten zaion tokian, egunean eta orduan agertu behar duela. Orobat, adierazitako Zerga Ikuskaritzaren esku beharrezko irizten diren agiri eta gainerako elementuak eduki beharko dituela edo hari aurkeztu, hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 37. artikuluan ezarritako terminoetan.»

Zazpi. 41. artikuluko 5. apartatua honela geratzen da idatzita:

«5. Zergapekoak frogatzen badu badirela zirkunstantzia batzuk adierazi zaion tokian, egunean eta orduan agertzea eragozten diotenak, aplikatzekoa izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 41.5 artikuluan ezarritakoa.»

Zortzi. 42. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Aurreko apartatuetan jasotako zirkunstantziak gertatzen direnean, prozedura esleitu duten ikuskaritzako langile berriek egoera ezagutu eta egunean jartzeko behar den denbora etenaldi justifikatutzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 53. artikuluan ezarritako eran. Alabaina, etenaldi hori ezingo da izan bi hilabetetik gorakoa.»

Bederatzi. Edukirik gabe uzten dira 45., 46., eta 47. artikulua.

Hamar. 48. artikulua honela geratzen da idatzita:

«48. artikulua. Epea konputatzeko arauak.

Zergen Foru Arau Orokorraren 147. artikuluko 2. apartatuan adierazten diren zirkunstantziak gertatzen diren kasuetan, prozeduraren xede diren zerga betebeharren eta epealdien elementu guztiei edo batzuei buruz edozein jarduketa komunikatzeak berekin ekarriko du prezeptu horretan aipatzen diren epeen konputua berriro hastea.

Justifikaziorik gabe etendako jarduketak berriro hasten badira zergapekoak horren berri formala edukita, edo jarduketak egiten badira prozeduraren gehieneko iraupen epea behin amaituta, zerga betebeharrak guztien preskripzioa etengo da prozeduraren xede diren zerga betebeharrak eta zergaldi guztiei dagokienez.»

Hamaika. 58. artikulua 5. apartatuko azken paragrafoa honela berridazten da:

«Berandutze interesak kalkulatzearen ondorioetarako, Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen diren luzamenduak, hain zuzen ere Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 54. artikuluan aipatuak, ez dira konputatuko, prozedura horien barruan gertatzen badira.»

Hamabi. 60. artikuluko 3. apartatua honela geratzen da idatzita:

«3. Alegazioak jaso ondoren eta, kasua bada, bidezko frogak egindakoan, aktuarioek irizten badute bidezkoa dela elusioaren aurkako klausularen aplikazioa mantentzea, txosten bat egingo dute aipatutako 14. artikuluan jasotako zirkunstantzien konkurrentziari buruz. Txostenari likidazio proposamena erantsiko zaio.

Txosten hori Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiari bidaliko zaio, espedientearen erantsita, eta behin oniritzia emandakoan, zuzendariordeak espediente osoa helaraziko dio Zergen Aholku Batzordeari, elusioaren aurkako klausularen egokitasunaz irizpena eman dezan. Batzorde hori II. titulua II. kapitulu 3. sekzioaren 5. azpisekzioan arautzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak. Bidalketa hori zergapekoari jakinaraziko zaio, Zergen Foru Arau Orokorraren 163. artikuluko 3. apartatuan jasotako etenaldi justifikatua adierazita, zeina txostena jakinarazten denetik konputatuko baita.

Ikuskaritzako zuzendariorde nagusiak uste badu, arrazoituta, zirkunstantzia horiek ez direla gertatzen, dokumentazioa itzuliko die prozedura tramitatzen ari diren aktuarioei, harekin jarraitu dezaten hura amaitu arte, eta zergapekoari hala jakinaraziko zaio.»

Hamahiru. 61. artikuluko 4. eta 5. apartatuak honela berridazten dira:

«4. Talde fiskaleko edozein entitatearen aurka –ordezkari ez den edozein entitatearen aurka– jarraitutako prozeduran gertatzen diren etenaldi justifikatuak eta Zerga Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen diren luzamenduak sozietateen gaineko zergaren egiaztapen prozedura batean suertatzen badira, entitate ordezkaritari eta talde fiskalari jarraitu zaion prozeduraren iraupenean eragingo dute, betiere entitate ordezkaririak horren berri formala badu. Gainera, horren berri jasotzen duen unetik aurrera izango du eragina. Zirkunstantzia horiek gertatzea ez da oztopo izango aipatutako entitateari eta taldeko beste entitateei buruzko ikuskapen jarduketekin jarraitu dadin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 52. artikuluko 6. apartatuan aurreikusitakoarekin bat.

Orobat, zerga baterakuntzaren araubidean dagoen taldeko edozein entitateari buruz erabakitzen bada ikuskapen prozeduraren iraupen epea luzatzea, eta

luzapen hori talde fiskalaren entitate ordezkariarekin formalizatzen bada, luzapenak talde osoarentzat sortuko ditu ondorioak.

5. Talde fiskaleko entitate batekin –ordezkari ez den batekin– sozietateen gaineko zergarekin lotuta egindako jarduketak behin bukatuta, eginbide laburtzailea formalizatu beharko da, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 48.3 artikuluko g) letran aipatua. Eginbide hori entitate ordezkaria eta talde fiskala egiaztatu eta ikertzeko prozeduran txertatuko da formalki.»

Hamalau. 66. artikuluen 3. apartatuko bigarren paragrafoa honela geratzen da idatzita:

«Behin Ogasuneko zuzendari nagusiak zergapekoa Ikuskapen Planean sartzea onartutakoan, amaitutzat emango da egiaztapen mugatuko prozedura, eta bai prozedura hori hastea eskatu duen organoari bai zergapekoari hala jakinaraziko zaie, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 37.3 artikuluko f) letran aipatzen den komunikazioa dela medio.»

Bigarren. Urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

70. artikuluko 2. apartatua aldatzen da urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduan, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Administrazioa aurrez lotesteko prozedura, zergaren foru arauaren 89 ter artikuluko 2. apartatuan aipatua, izapidetuko da kontuan hartuta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 20. artikuluan xedatutakoa.

20. artikuluko horren 4. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, administrazioa aurrez lotesteko prozedura hasteko eskaerak honako hauek jaso beharko ditu:

a) Negozio plan xehatua, haren barruan gutxienez honako hauek zehaztuta: bilatu nahi diren merkatu geografiko edo produktu berriak, proiektua garatzeko egutegia, fase bakoitzerako aurreikusitako gastuak eta inbertsioak, eta inbertsiogileen identitatea.

b) Entitateak egingo duen inbertsioak zergatik izan dezakeen arrisku bat justifikatzen duen memoria.

c) Zergaren foru arauaren 89 ter artikuluko 4. apartatuan ezarritako baldintzak eta 5. apartatuan jasotakoak d) eta g) letretakoak izan ezik- betetzeari buruzko frogagiria.

d) Hazkunde prozesuan dagoen entitateak azken bost urteetan izan duen urteko eragiketa bolumenaren frogagiria.»

Hirugarrena. Ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea.

Lehen xedapen gehigarriaren 1. apartatua eta 2. apartatuko lehen paragrafoa aldatzen dira ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduan, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Zergaren foru arauaren 53. artikuluko 5. apartatuan eta 61. artikuluko 2. apartatuan aurreikusten diren kasuetan, administrazioa aurrez lotesteko

prozedura, artikulua horietan aipatua, izapidetuko da kontuan hartuta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga Kudeaketari eta zerga arloko jarduketak eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 20. artikuluan xedatutakoa.

2. Aipatutako 20. artikuluan 4. apartatuko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, administrazioa aurrez lotesteko prozedura hasteko eskaerak honako hauek jaso beharko ditu zergaren foru arauko 53.5 artikuluan aurreikusten diren kasuetan:»

Laugarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean.

ERANSKINA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketak eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamendua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Tributu bakoitzaren araudian ezarritakoa eragotzi gabe, erregelamendu honek zerga Kudeaketako jarduketak eta prozedurak arautzen ditu, baita tributuen aplikatzeko arau komunei ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua (aurrerantzean Zergen Foru Arau Orokorra) garatuz.

2. Erregelamendu hau Zergen Foru Administrazioari aplikatuko zaio.

Era berean, Gipuzkoako toki entitateei ere aplikatuko zaie, Zergen Foru Arau Orokorrean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Ogasunei buruzko araudian ezarritako eran.

3. Erregelamendu hau aplikatzekoa izango da:

a) Zerga-bilketako Kudeaketari, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan aurreikusten ez den guztian.

b) Ikuskapen jarduketak eta prozedurei, azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduan aurreikusten ez den guztian.

c) Zerga arloko zehapen prozedurari, irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsitako zerga arloko arau hauste eta zehapenen Erregelamenduan, zerga arloko zehapen prozedura garatzen duten gainerako arau espezifikoetan, eta administrazio arloko zehapen prozedurari buruzko arauetan aurreikusten ez den guztian.

II. TITULUA

TRIBUTUAK APLIKATZEKO PRINTZPIO OROKORRAK

I. KAPITULUA. TRIBUTUAK KUDEATZEKO EGINKIZUNAK ESLEITU ETA AHALMENAK BALIATZEA

2. artikulua. Zerga Kudeaketako organoak.

1. Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, zerga Kudeaketako organotzat hartzen dira Zergen Foru Arau Orokorraren 113. artikuluan aurreikusitako eginkizunak betetzen dituzten administrazio organoak, eta berariazko antolamendu arauetan zerga Kudeaketako eskumenak esleituak dituzten bestelakoak.

2. Zehazki, eta aipatutako antolamendu arauetan ezartzen denarekin bat, honako hauek izango dira zerga Kudeaketako prozeduretatik ondorioztatutako administrazio egintzak emateko organo eskudunak:

- a) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
- b) Ogasuneko zuzendari nagusia.
- c) Zerga Kudeaketako zuzendariorde nagusia.
- d) Zerga Kudeaketako zerbitzuburuak.

3. artikulua. Tributuak kudeatzeko ahalmenak baliatzea.

1. Tributuen Kudeaketako jarduketa eta prozedura desberdinetan baliatu daitezkeen ahalmenak jarduketa eta prozedura horietan Zerga Administrazioaren zerbitzura arituz esku hartzen duten langileei dagozkie, berariazko antolamendu arauetan jasotakoarekin bat.

2. Arau horiek erregulatu ahal izango dute nolako esku-hartzea izan dezaketen, zerga Kudeaketako jarduketa eta prozedura horietan, Zerga Administrazioaren zerbitzuko langileek, beste funtzio batzuk dituzten organoetako lanpostuak betetzen dituztenean.

3. Zerga Administrazioaren zerbitzura jarduten duten langile guztiak behartuta daude isiltasunik zorrotzena eta erabatekoena gordetzera beren kargu edo lanpostuagatik ezagutzen dituzten datu, txosten edo aurrekariei dagokienez.

Zergen Foru Arau Orokorrak 92. artikuluan xedatutakoarekin bat, informazio hori isilpekoa izango da, eta beren eskumenengatik kasuan kasuko prozeduran esku hartzen dutenek baino ezingo dute erabili.

Jarduketan emaitzak jarduketak egin dituen organoak erabili ahal izango ditu beti, baita Zerga Administrazioa beste organo batzuek ere, zergapeko berberari buruz zein beste batzuei buruz dagozkien eginkizunak egoki betetzeko.

4. Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langileak ez daude behartuta lekuko gisa deklaratzera alderdietako batek bakarrik jazargarriak diren delituen prozedura zibil edo penaletan, baldin eta hori ezin badute egin gorde behar duten isilpekotasun betebeharra urratu gabe.

5. Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langileek beste zerga administrazioetarako garrantzitsuak diren egitate edo zirkunstantziak ezagutzen badituzte, horiek dokumentatu ondoren, administrazio horiei jakinaraziko dizkiete, bidezko diren froga elementuak ere erantsita, aipatutako 92. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Era berean, jarduketetan zehar langile horiek sumatzen badute laguntzak edo dirulaguntzak funts publikoetatik edo Europar Batasunetik jaso direnean litekeena dela iruzurra egin izana, zirkunstantzia hori eginbide batean jasoko dute, eta Ogasuneko zuzendari nagusiari horren berri emango diote, behar diren ondorioetarako.

Orobat, Zerga Administrazioaren zerbitzura dauden langileek agintari judizialari edo Ministerio Fiskalari jakinaraziko dizkiete, organo eskudunaren bitartez, jarduketetan zehar ezagutzen dituzten egitateak, baldin eta horiek kaltetutako pertsonaren eskariz bakarrik pertsegitu ezin daitezkeen delituak badakartzate.

6. Beharrezkoa den kasuetan, jarduketetan zehar lortzen diren datu, txosten edo aurrekariak erabili ahal izango dira beste organo, administrazio, pertsona edo entitate batzuei eskatutako txostenak, peritu lanak edo laguntza emateko, betiere Zergen Foru Arau Orokorraren 92.1 artikuluan aurreikusitakoa eragotzi gabe.

II. KAPITULUA. ZERGAPEKOEI INFORMAZIOA ETA LAGUNTZA EMATEA

1. SEKZIOA. Printzipio orokorrak

4. artikulua. Zerga arloko informazioa eta laguntza.

1. Zerga Administrazioak sustatu eta erraztuko du zergadunek beren zerga betebeharrak betetzea eta beren eskubideak baliatzea, eta, horretarako, zerga arloko informazio eta laguntza zerbitzuak jarriko ditu haien esku.

2. Zergapekoei informazio eta arreta zerbitzua emateko, aplikagarria izango da apirilaren 26ko 26/2005 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren herritarrentzako laguntza eta arreta zerbitzuak arautzen dituenak, xedatutakoa, erregelamendu honetan jasotakoa eragotzi gabe.

2. SEKZIOA. Informazio jarduketak

5. artikulua. Informazio jarduketak eta eskaerak.

1. Informazio jarduketak ofizioz egingo dira, zerga arauen testu eguneratuak eta garrantzi handieneko doktrina administratiboak argitaratuz edo komunikazioak bidaliz, besteak beste. Ondorio horietarako, arau juridikoak aplikatzean Zerga Administrazioaren jokabide uniformeak islatzen duten irizpide administratiboen multzoa hartzen da doktrina administratibotzat.

Era berean, informazio jarduketak egin ahal izango dira, ofizioz, zergapekoei komunikazioak bidalita, bai zuzenean, bai haiek kide diren elkargo, elkarte edo bestelako erakundeei zuzenduta, aplikatzekoak zaizkien arau edo administrazio irizpideen berri emateko.

2. Aurreko apartatuko lehen paragrafoan aipatzen diren informazio jarduketak zergapekoaren ekimenez ere egingo dira, zerga informazioari buruzko eskaerei erantzunez, eskaerak egiteko erabiltzen den bitartekoa edozein dela ere.

Informazio eskaerak idatziz egiten diren kasuetan, datu hauek jaso beharko ditu: zergapekoaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, haren identifikazio fiskaleko zenbakia, eta informazio eskaerarekin lotuta dagoen eskubidea edo zerga betebeharra.

6. artikulua. Informazio eskaerak izapidetu eta erantzutea.

1. Tributuen inguruko informazio eskaerei erantzutean, atxikipenei, konturako sarrerei edo jasanarazpenei buruzkoak ere barne, Zerga Administrazioak adieraziko du zer irizpide erabiltzen diren zerga araudia aplikatzeko, eta erantzun horren aurka ezingo da errekursorik aurkeztu.

2. Tributuen inguruan idatziz aurkezten diren informazio eskaerak erantzun baldin badaitezke organo eskudunak dituen agirietatik edo aurrekarietatik abiatuta, hiru hilabeteko epean erantzungo dira gehienez, eta erantzunean beti aipatuko da eskaeraren xedeari aplikagarri zaion araudia.

3. Informazio eskaerei aurreko apartatuan ezarritako epean ez erantzuteak ez du esan nahi eskaeran agertutako irizpideak onartzen direnik.

4. Informazio jarduketak eta informazio eskaeren erantzunek Zergen Foru Arau Orokorraren 184.2 artikuluko d) letran aurreikusitako ondorioak izango dituzte.

5. Zerga arloko informazio eskaera idatziak jasotzen baditu gaia dela eta eskudun ez den Zerga Administrazio batek, eskumena duen Administrazioari igorriko zaizkio, eta interesdunari zirkunstantzia horren berri emango zaio.

3. SEKZIOA. Administrazioa aurrez lotesteko prozedurak

7. artikulua. Administrazioa aurrez lotesteko prozedurak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Administrazioari zerga egitateei eta zerga betebeharrei buruzko zerga kontsulta idatziak eta aurretiazko tributazio proposamenak aurkeztu ahal izango zaizkio, baldin eta, Ekonomia Itunean xedatutakoarekin bat, kasu hauetako edozeinetan sartzen badira:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia aplikatu behar zaienean.
- b) Horiek ikuskatzeko eskumena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Administrazioaren organoei dagokienean.
- c) Zerga Administrazioak zergapekoarekiko harremanetan dituen eskumenak baliatzearekin zer ikusia duten beste kasuetan.

1. azpisekzioa. Zerga kontsulta idatziak

8. artikulua. Kontsultak egiteko legitimatuta dauden pertsonak edo entitateak.

1. Zergapekoek zerga kontsulta idatziak aurkeztu ditzakete beren zerga egoeran zuzeneko eragina duten kasuei edo beraiek partaide diren negozio edo egintza juridikoei buruz, aurkezpen horrek haientzat inolako zerga betebeharririk sortu gabe.

2. Orobat, organismoak edo entitateak ere legitimatuta daude, beharkizun hauek betetzen dituztenean:

- a) Talde baten, bertako kideen edo pertsona elkartuen interesak babestea edo ordezkatzea xede duen erakunde, korporazio edo elkarteak izatea, baldin eta kide edo pertsona elkartu guztiak zuzenean ukitzen dituzten gaiei buruzko kontsultak badira.
- b) Forma juridikoari dagokionez, merkataritza sozietateak ez izatea.

Zehazki, honako hauek daude zerga kontsulta idatziak egiteko legitimatuta: Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbera, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa, Ekonomialarien Euskal Elkargoa, Euskal Herriko Kudeatzaile Administrazioen Elkargo Ofiziala, zerga aholkularien elkarteak, profesionalen elkargoak, sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, eta, orobat, Ogasun eta Finantza Departamentuko Ogasun Zuzendaritza Nagusiari eskaera aurkeztu ondoren, legitimatutzat jotzen diren erakunde zein entitate guztiak. Azken kasu horretan, eskaerari dokumentazioa erantsi beharko zaio aurreko betekizunak betetzen direla frogatzeko.

3. Zerga kontsultak egiteko legitimatuta dauden pertsonak edo entitateek zuzenean zein ordezkari bidez aurkeztu ditzakete horiek. Ordezkari bidez aurkeztuz gero, kontsulta aurkezteko unean beharrezkoa izango da ordezkariak frogatzea erregelamendu honetan xedatzen den eran.

9. artikulua. Kontsulta idatzia aurkeztea.

1. Eskubideak baliatzeko, aitorpenak edo autolikidazioak aurkezteko edo beste zerga betebeharrak batzuk betetzeko ezarrita dauden epeak amaitu baino lehen aurkeztuko dira kontsultak.

2. Kontsultak aurkezteko, idatzki bat zuzendu behar zaio Zerga Administrazioari, eta bertan honako hauek azaldu behar dira, argi eta behar den luzerarekin, betiere planteatutako gaiarekin lotuta:

- a) Kasuaren aurrekariak eta zirkunstantziak.
 - b) Kontsultaren xedea. Bertan, kontsultagileak zehaztu behar du zalantzak sortu dizkion zerga xedapena eta, behar izanez gero, bidezko deritzon interpretazioa adierazi behar du.
 - c) Zerga Administrazioari iritzia osatzeko lagungarri gerta dakizkiokeen gainerako datu, elementu eta agiriak.
 - d) Frogatu behar da kontsultan aipatzen diren egitate, egintza edo negozioek ondorio tributarioak izango dituztela kontsulta egiten duenarentzat.
 - e) Egiten den kontsulta establezimendu iraunkor baten existentziari edo mugaz gaindiko transakzio bati buruzkoa bada, idazkian berariaz adierazi beharko da zirkunstantzia hori, kontsultari erantzuteko eskudun den organoak ofizioz hura aintzat hartzea eragotzi gabe. Gainera, datu hauek ere adierazi beharko dira:
 - i) Kontsultagilea merkataritza talde edo talde fiskal bateko kide bada, talde horren identifikazioa.
 - ii) Enpresa jardueraren deskribapena edo egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio-segidena. Edozelan ere, deskribapen hori egitean erabat errespetatuko dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.
 - iii) Zer estatu ukitu ditzakeen kontsultatzen den transakzioak edo eragiketak.
 - iv) Kontsultaren erantzunak ukitu ditzakeen pertsonak, beste estatu batzuetan egoiliartuak.
 - v) Elkarren laguntzari buruzko araudi aplikagarriaren ondorioz exijitzekoak diren bestelako datuak.
- 3.** Gainera, idazki horretan honako datuok ere jaso beharko dira: kontsultagilearen izen-abizenak, sozietate izena edo izendapena, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia (proposamena ordezkari bidez aurkeztuz gero, berarenak ere bai) eta, horrez gainera, lekua eta data. Orobat, beharrezkoa da kontsulta bere izenean zein ordezkari gisa aurkezten duen pertsona fisikoak hura sinatzea.
- 4.** Kontsulta ordezkari bidez aurkezten bada, ordezkaritza behar bezala frogatu beharko da.
- 5.** Kontsulta idazkiak ez baditu betetzen aurreko 1.etik 4.era bitarteko apartatueta ezarritako beharkizunak, kontsulta izapidetu behar duen organo eskudunak hamar eguneko epea emango dio interesdunari, akatsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkeztu ditzan, eta adieraziko dio hori egin ezean idazkia besterik gabe artxibatu ahal izango dela.

10. artikulua. Kontsulta izapidetzea.

- 1.** Gaia dela eta eskudun den organoa arduratuko da kontsulta izapidetzeaz.
 - 2.** Kontsulta jasotakoan, organo eskudunak erantzuna emateko beharrezko irizten duen dokumentazioa eskatuko dio interesdunari, horren beharra badago, eta, horrez gain, aurkeztutako kasuan aplikatu beharreko irizpideak ezartzeko beharrekotzat jotzen dituen txostenak eskatu ahal izango dizkie Zerga Administrazioako beste organo batzuei edo beste zeinahi organismori.
 - 3.** Planteatutako gaiaren berritasunagatik egoki irizten bada lehendik ezarritako irizpideak berrikusi edo bateratzea, edo erantzunaren garrantziak komenigarri egiten badu, erantzun proposamena sekzio honen 5. azpisekzioan aipatzen den Zergen Aholku Batzordeari helaraziko zaio.
- Batzordeak ebatzi beharko du egindako proposamena berresten duen edo, aitzitik, atzera botatzen duen, eta atzera botaz gero, haren tramitazioaz arduratzen den

organoari itzuliko dio, hartutako proposamenaren funtsezko oinarriekin batera, proposamena berregin eta kontsulta egin zuenari jakinarazteko.

4. Ekonomia Itunean edo koordinazio, harmonizazio eta lankidetzak fiskalari buruzko araudi autonomoan xedatutakoagatik gertatzen bada kontsulta beste organo batzuei bidali behar zaiela, Zerga Administrazioak hura bidaltzeko izapideak egingo ditu, eta kontsultagileari horren berri emango dio. Horrek berekin ekarriko du prozedura etetea izapideak egiten diren bitartean.

Aurreko paragrafoan aipatzen den etenaldia ez da konputatuko Zergen Foru Arau Orokorren 83.5 artikuluan kontsultak sei hilabetean erantzuteko ezartzen den gehieneko epeari dagokionez.

11. artikulua. Kontsultari erantzutea.

1. Izapidaketaz arduratzen den organoak kontsulta egin duenari jakinarazi behar dio erantzuna. Alabaina, sei hilabeteko epean ez erantzuteak ez du berekin ekarriko kontsultagileak adierazitako irizpidea onartzea, eta ez du inolako ondorio loteslerik izango Zerga Administrazioarentzat.

Ezarritako epean erantzunik ez emateak ez du Zerga Administrazioa salbuesten egindako kontsulta berariaz ebaztetik, ebazpen hori beti eman beharko du-eta.

2. Guztiarekin ere, aurreko 1. apartatuan aipatu den epea behin igaro ondoren, eta erantzuna jakinarazten den arte, zergapekoak erabakitzen badu kontsultan ezarritako irizpidea aplikatzea, ez du inolako erantzukizunik izango irizpide horren aplikazioak zergen arloan ekar litzakeen arau hausteengatik.

Era berean, baldin eta kontsulta aurkeztu bada zerga betebeharra betetzeko epea amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez, eta Zerga Administrazioak ez badu erantzuna jakinarazten epe hori amaitu baino lehen, zergapekoak ez du hor ere inolako erantzukizunik izango kontsulta idazkian ezarritako irizpidearen aplikazioak aitortzea edo autolikidazioa epe barruan aurkeztean zerga arloan ekar litzakeen arau hausteengatik.

3. Erantzuteko garaian, organo eskudunak lehendik egindako kontsulten erantzunetan adierazitako irizpideak aplikatuta erantzun beharko du, baldin eta aurreko egitateak eta zirkunstantziak eta erantzun beharreko kontsultarenak berdinak badira, non eta ez den behar bezala justifikatzen aplikatzekoa den doktrina administratiboa aldatu denik.

12. artikulua. Erantzunaren ondorioak.

1. Erregelamendu honen 9. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen dituzten zerga kontsulten erantzunak ondorio lotesleak izango dituzte Zerga Administrazioarentzat, zergapekoari dagokionez, Zergen Foru Arau Orokorren 84. artikuluan ezarritakoarekin bat. Beste edozein kasutan, informazio ondorio hutsak izango dituzte.

Era berean, zergapekoek egindako kontsulten erantzunak informazio ondorio hutsak izango dituzte honako kontsultak direnean:

a) Zergapekoak partaide diren egintza edo negozio juridikoei buruz egiten direnak, parte hartze horrek haien zat zerga betebeharrak bat sortzen ez dutenean.

b) Ordezkarik bidez aurkeztutakoak, ordezkaritzak hori erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera frogatzen ez denean.

c) Erregelamendu honen 9. artikuluko 1. apartatuan aipatutako epean aurkeztutakoak, kasuan kasuko zerga betebeharrarekin lotutako prozedura, errekurso edo erreklamazio bat hasi ondoren aurkezten direnean.

2. Kontsulta egiten duena 8. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren entitateetako bat den kasuetan, erantzunak ondorio informatibo hutsak izango ditu kontsulta

egiteko unean kontsultan planteatutako gaiarekin lotuta dagoen eta lehenago hasi den prozedura, errekurtsio edo erreklamazio baten xede diren kide edo pertsona elkartuentzat.

3. Zerga kontsulta idatzietan adierazitako irizpideek ondorio lotesleak sortzen dituztenean, tributuen aplikazioaz arduratzen diren organoak behartuta daude horiek edozein zergapekori aplikatzea, baldin eta jasotako egitate eta zirkunstantziak eta kontsultaren erantzunean aipatutakoak bat baldin badatoz, non eta behar bezala ez den arrazoitzen aplikatzekoa den doktrina administratiboa aldatu denik.

4. Zerga Administrazioak zabalkundea emango die bere iritziz garrantzi eta eragin berezikoak diren kontsulten erantzunei.

13. artikulua. Kontsultak artxibatzea.

1. Erregelamendu honen 9. artikuluko 5. apartatuan jasotakoa eragotzi gabe, honako kontsultak artxibatuko dira:

- a) 7. artikuluan aipatu ez diren zerga egitate edo zerga betebeharrei buruzkoak.
- b) 8. artikuluan xedatutakoaren arabera legitimatuta ez dauden pertsonen aurkeztutakoak.
- c) Zerga araudiaren aplikazio edo interpretazioari buruzko zalantza generikoak sortzen dituztenak.
- d) 9. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den epea behin amaituta aurkeztutakoak.

2. Kontsulta izapidetzeaz arduratu den organoak hartuko du artxibatzeko erabakia, eta erabaki hori kontsultagileari jakinaraziko zaio. Erabaki horren aurka ezingo da aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik.

2. azpisekzioa. Ondasun higiezinak eskuratu edo eskualdatu aurreko informazioa

14. artikulua. Ondasun higiezinak eskuratu edo eskualdatu aurreko informazioa.

1. Ondasun higiezinaren eskurapena edo eskualdaketa zergapetzen duten tributuetan, haien zerga oinarria ondasun horien balioaren arabera zehazten bada, zergapekoek Gipuzkoan kokatutako ondasunen balioari buruzko informazioa eskatu ahal izango diote Zerga Administrazioari.

2. Eskaerak idatziz aurkeztuko dira, eta bertan honako datuak jasoko dira argi eta behar den luzerarekin:

- a) Eskaera aurkezten duenaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, edo, kasua bada, ordezkariaren datuak. Ordezkari bidez jarduten bada, ordezkaritza behar bezala frogatu beharko da.
- b) Ondasunaren izaera, kokapena, eta Zerga Administrazioak ondasuna fiskalki egoki baloratzeko lagungarri gerta daitezkeen ezaugarri tekniko eta fisikoak.
- c) Lekua, data eta sinadura, edo, bestela, eskatzaileak zuzenbidean onartutako edozein bitarteko erabilita adierazitako borondatea egiazkoa izatearen frogagiria.

3. Eskatzaileak adierazi ahal izango du zer balorazio irizten dion eskaeran aipatzen den ondasunari.

4. Organo eskudunak ondasun higiezina baloratzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango dio interesdunari. Orobat, egoki irizten dituen txostenak eskatu ahal izango dizkie beste entitate eta organismo batzuei.

5. Informazio eskaera hauek hiru hilabeteko epean erantzungo dira, eta, ondorio horietarako, ez dira konputatuko ez etenaldi justifikatuak ez Zerga Administrazioari egozgarri ez zaizkion luzamenduak, Erregelamendu honetan aurreikusiak.

6. Informazio honek ondorio lotesleak izango ditu komunikazioa jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean, betiere baldin eta eskaera dagokion aitortpena edo autolikidazioa aurkezteko epea amaitu aurretik aurkeztu bada eta Zerga Administrazioari emandako datuak nahikoak eta benetakoak badira.

Aurreko paragrafoan ezarritako epean eskaerei ez erantzuteak ez du esan nahi Zerga Administrazioak zergapekoak aitortpenean edo autolikidazioan adierazitako balorazioa onartzen duenik.

Informazio hori ez da oztopo izango zergapekoak adierazitako egitate eta zirkunstantziak Administrazioak gerora egiazta ditzan.

3. azpisekzioa. Aurretiazko tributazio proposamenak

15. artikulua. Proposamenak aurkezteko legitimatuta dauden pertsonak edo entitateak.

1. Zergapekoak legitimatuta daude aurretiazko tributazio proposamenak aurkezteko, jarraian aipatzen diren eragiketei dagokienez, beren zerga egoerari zuzenean eragiten badiote:

a) Enpresak berregituratzeko eragiketak, halakotzat hartuta sozietateen gaineko zergan bategiteen, zatiketen, aktibo ekarpenen eta balore trukeen araubide bereziaren ondorioetarako definitutakoak, edo horren gisakoak, bai eta talde fiskalak eratzeak ere.

b) Pertsona fisikoen ondarea berrantolatzeak eragiketak, garrantzi eta konplexutasun berezia dutenean.

c) Beste zerga administrazio batzuekin zer ikusia duten eragiketak edo nazioarteko dimentsio bat daukatenak.

d) Enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoen, edo entitateen, inbertsio proiektuak, inbertsioaren zenbatekoa 450.000 eurokoa baino handiagoa denean.

e) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, sozietateen gaineko zergan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan kenkariak edo hobariak aplikatzeko eskubidea ematen duten eragiketak, kenkariaren edo hobariaren zenbatekoa 250.000 eurokoa baino handiagoa denean.

f) 600.000 eurotik gorako eragiketa edo negozio juridikoak.

2. Orobat, aurreko apartatuan aipatutako kasuetan ez ezik, aurretiazko tributazio proposamenak aurkeztu ahal izango dira Zerga Administrazioak berariaz baimentzen duenean, zergapekoak hala eskatuta; eskaera horretan, zergapekoak egingo den eragiketa deskribatu behar du, eta eragiketa zergatik den garrantzi eta konplexutasun berezikoa adierazi ere bai. Ogasuneko zuzendari nagusiak ondokoak hartuko ditu kontuan baimen eskaera ebazteko: eragiketaren garrantzi eta konplexutasun berezia, zergapekoaren egitura eta dimentsio ekonomikoak, eta planteatutako eragiketak zerga betebeharren zenbatekoan izan dezakeen eragina. Ebazpen horren aurka ezingo da aurkeztu ez errekursorik ez erreklamaziorik.

3. Aurretiazko tributazio proposamenak aurkezteko legitimatuta dauden pertsonak edo entitateek zuzenean zein ordezkari bidez aurkeztu ditzakete horiek. Ordezkari bidez aurkeztuz gero, alabaina, eskaera aurkezteko unean beharrezkoa izango da ordezkaritza frogatzea erregelamendu honetan xedatzen den eran.

16. artikulua. Proposamena aurkeztea.

1. Aurretiatzko tributazio proposamenak zerga egitatea gertatu aurretik aurkeztu behar dira, eta zergaldia duten tributuen kasuan, proposamenen edukia aplikatu behar den zergaldia amaitu baino lehen.

2. Aurretiatzko tributazio proposamenak idatziz aurkeztu behar dira, Ogasun eta Finantza Departamentuko Ogasun Zuzendaritza Nagusiari zuzenduta, eta idazkiari honako agiriak erantsi behar zaizkio:

a) Kasuaren aurrekariak eta zirkunstantziak, eragiketaren zertarakoa, ondorioak eta emaitza ulertzea ahalbidetzeko.

b) Eragiketaren edo eragiketa multzoaren zerga zorra kalkulatzeko lagungarri izan daitezkeen elementu guztien deskribapen zehatza.

c) Kasuan kasuko eragiketak zerga zorrean izango duen eraginaren kuantifikazio zehatza edo, proposamena aurkezteko unean hura ez bada behar beste ezagutzen, eragin hori zehazteko irizpideak.

d) Aurretiatzko tributazio proposamenaren xede den eragiketak ukitzen dituen zergaldiak eta zerga kontzeptuak, eta proposamenak horietako bakoitzean duen eragina.

e) Aurretiatzko tributazio proposamena establezimendu iraunkor baten existentziari edo mugaz gaindiko transakzio bati buruzkoa bada, zirkunstantzia hori berariaz adierazi beharko da idazkian, proposamena ebazteko eskudun den organoak ofizios hura aintzat hartzea eragotzi gabe. Gainera, datu hauek ere adierazi beharko dira:

i) Aurretiatzko tributazio proposamena aurkezten duena merkataritza talde bateko edo talde fiskal bateko kide bada, talde horren identifikazioa, ukitutako entitate ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo horien kode baliokideak barne.

ii) Enpresa jardueraren deskribapena edo egin diren edo egingo diren transakzioena zein transakzio segidena. Edozelan ere, deskribapen hori egitean erabat errespetatuko dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

iii) Proposamenaren xede den transakzio edo eragiketak ukitu ditzakeen Estatuak.

iv) Prozeduraren ebazpenak ukitu ditzakeen pertsonak, beste estatu batzuetan egoiliartuak.

v) Elkarren laguntzari buruzko araudi aplikagarriaren ondorioz exijitzekoak diren bestelako datuak.

f) Zerga Administrazioari iritzia osatzeko lagungarri gerta dakizkikeen gainerako datu, elementu eta agiriak.

3. Aurreko apartatuan aipatu den idazkian honako datuok ere jaso beharko dira: zergapekoaren izen-abizenak, sozietate izena edo izendapena, zerga egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia (proposamena ordezkari bidez aurkeztuz gero, berarenak ere bai) eta, horrez gainera, lekua eta data. Orobat, beharrezkoa da proposamena bere izenean zein ordezkari gisa aurkezten duen pertsona fisikoak hura sinatzea.

Era berean, proposamena ordezkari bidez aurkezten bada, ordezkaritza behar bezala frogatu beharko da.

4. Aurretiatzko tributazio proposamenaren idazkiak ez baditu betetzen aurreko apartatueta aipatutako beharkizunak, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio hala egin ezean idazkia bestelako izapiderik gabe artxibatuko dela.

17. artikulua. Proposamena izapidetzea.

1. Ogasun Zuzendaritza Nagusian eskudun den zerga Kudeaketako organoak izapidetuko du proposamena. Horretarako, eta horren beharra bada, organo horrek ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen dituen agiriak eskatuko dizkio interesdunari, txosten tekniko eta ekonomikoak ere barne, eta Zerga Administrazioako beste organo batzuei edo bestelako organismoei egoki irizten dituen txostenak eskatu ahal izango dizkie planteatutako kasuari aplikatu beharreko irizpidea osatzeko.

2. Organo eskudunak prestatutako ebazpen proposamena Zergen Aholku Batzordera helaraziko da, berak azter dezan, salbu eta aurretik funtsean antzekoak diren kasuak ebatzi badira edo aplikatzekoak diren interpretazio irizpideek gai berririk ez badakarte.

Proposamena Aholku Batzordera helarazten bada, Batzordeak izaera loteslez erabaki behar du hura berresten duen edo atzera botatzen duen, eta, azken kasu horretan, organo eskudunari itzuli behar dio, proposamenaren funtsezko oinarriekin batera, oinarri horiek aintzat hartuta proposamena berregin dezan.

3. Gaiari beste zerga administrazio batzuk inplikaturik badaude, 10. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

18. artikulua. Proposamena ebaztea.

1. Erregelamendu honen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetutako proposamena Ogasuneko zuzendari nagusiari bidaliko zaio, eta hark, aurkezten denetik gehienez sei hilabeteko epean, proposamena onetsi edo ebatziko du, modu arrazoituan, Zergen Foru Arau Orokorraren 88. artikuluan araututako ondorioekin.

2. Tramitazioaz arduratzen den organoak zergapekoari jakinaraziko dio hartutako ebazpena. Hala ere, aurreko 1. apartatuan aipatutako epean ez erantzuteak ez du berekin ekarriko zergapekoak proposamenean adierazitako irizpideak eta kuantifikazioa onartzea edo Zerga Administrazioarentzat ondorio lotesleak izatea.

Ebazpena emateko epean hura ez jakinarazteak ez du Zerga Administrazioa salbuesten proposamena berariaz ebazteko betebeharretik. Nolanahi dela ere, eta ebazpena jakinarazi arte, zergapekoak aplikatzen baditu aurretiazko tributazio proposamenean ezarritako irizpideak, ez du inolako erantzukizunik izango irizpide horien aplikazioak zerga arloan ekar litzakeen arau hausteengatik.

19. artikulua. Proposamenak artxibatzea.

1. Aurretiazko tributazio proposamen hauek artxibatuko dira:

a) 7. artikuluan aipatu ez diren zerga egitate edo zerga betebeharreri buruzkoak.

b) 15. artikuluan xedatutakoaren arabera legitimatuta ez dauden pertsonen aurkeztutakoak.

c) 16. artikuluko 4. apartatuan aipatzen den errekerimendua egin ondoren akatsak zuzendu gabe dituztenak.

d) Zerga egitatea gertatu aurretik, eta, zergaldia duten tributuen kasuan, proposamenaren edukia aplikatu behar den zergaldia amaitu aurretik aurkezten ez direnak.

2. Proposamena artxibatzeko erabakia hura izapidetu duen organoak hartuko du, eta erabaki hori proposamena egin duenari jakinaraziko zaio. Erabaki horren aurka ezingo da aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamaziorik.

4. azpisekzioa. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoak

20. artikulua. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoak.

1. Zerga Administrazioak aurretiazko tributazio proposamen espezifikoak izapidetuko ditu, artikuluko honetan ezarritako arauari jarraituz, xedapen hauek aipatzen dituzten kasuetan:

a) Ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko lehen xedapen gehigarria.

b) Urriaren 14ko 33/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Erregelamenduko 70.2 artikulua.

2. Aurreko 1. apartatuko a) letran aipatzen diren eragiketak egiten dituzten zergadunek eta, 1. apartatuko b) letraren kasuan, hazkunde prozesuan dauden entitate partaidetuek dute aurretiazko tributazio proposamen bereziak aurkezteko legitimazioa.

Sozietateen gaineko zergan baterakuntza fiskaleko araubide berezian tribututzen duten zergadunen kasuan, aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa aurkezteko legitimazioa entitate ordezkariari dagokio.

Apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, 15. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa aplikatuko da.

3. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoak aurkezteko epea, haiek ondorioak sortu behar dituzten zergaldia amaitu eta hurrengo hiru hilabeteak igarotakoan bukatuko da.

Dena den, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 53. artikuluko 5. apartatuan aipatzen den kasuan, artikuluko honen 1. apartatuko a) letran jasotakoan hain zuzen, aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa aurkezteko epea luzatu egingo da harik eta ekintzailletza sustatu eta jarduera produktiboa sendotzeko erreserba bereziaren zuzkidurarako bideratutako kontabilitate emaitza positiboa izan duen ekitaldiko urteko kontuak onartzeko epea amaitu arte.

4. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa aurkezteko idazkian azaldu behar dira 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatutako manuen arabera kasu bakoitzerako eskatzen diren datu eta agiriak, bai eta 16. artikuluko 2. apartatuan aipatutakoak ere, esanguratsuak diren neurrian.

Alabaina, zergadunak frogatzen badu aurretiazko tributazio proposamen berezia aurkezteko egunean ezinezkoa duela aurkeztea manu horietan aipatzen diren datu eta agirietako batzuk, 12 hilabeteko luzapena eskatu ahal izango du horiek aurkezteko. Aipatutako idazkia aurkeztu eta biharamunetik aurrera hasiko da kontatzen epearen luzapena.

Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa aurkeztu eta hilabeteko epean jakinaraziko du Administrazioak luzapenari buruzko ebazpena. Hilabete horretan ez bada jakinarazten, epea luzatutzat joko da.

Apartatu honetan aipatzen den luzapena Zerga Administrazioari egotzi ezin zaio luzamendutzat hartuko da, eta Zergen Foru Arau Orokorraren 100.2 artikuluan aurreikusten dituen ondorioak izango ditu, harik eta zergadunak 1. apartatuko a) eta b) letretan aipatutako manuetan ezartzen diren datu eta agiri guztiak aurkeztu arte, edo esandako luzapena amaitu arte.

5. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoek ez badute betetzen artikuluko honen 3. apartatuan ezarritako beharkizuna, bestelako izapiderik gabe artxibatuko dira.

Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoaren idazkiak ez baditu betetzen 2. eta 4. apartatuetan adierazitako beharkizunak, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean hutsunea betetzeko edo nahitaezkoak diren agiriak aurkezteko,

eta adieraziko zaio hala egin ezean idazkia bestelako izapiderik gabe artxibatuko dela.

6. Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa izapidetzean 17. artikuluko 1. apartatuan ezarritako arauak aplikatuko dira. Ikuskaritzako Zuzendariorde Nagusiak txosten bat prestatuko du Ogasuneko zuzendari nagusiarentzat, eta bertan azalduko du zer elementu diren esanguratsuak –egitezkoak zein zuzenbidezkoak– aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa ebazteko; txosten hori ez da inoiz izango ebazpen proposamen bat.

7. Ogasuneko zuzendari nagusiak modu arrazoituan ebatziko du zergadunak aurkeztutako aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa onartzea edo ez onartzea.

Aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistroan sartu eta hurrengo sei hilabeteetan ez bada ebazpen espresurik jakinarazten, proposamena ezetsizat joko da.

8. Aurretiazko tributazio proposamen bereziaren onarpena jakinarazten ez den bitartean, zergadunak ezingo ditu aplikatu bere autolikidazioan proposamen horren onarpenak baimendu behar dituen manuak.

9. Aurreko 1. apartatuko a) letran jasotako manuari dagokionez, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 128. artikuluan xedatutakoa gorabehera, baldin eta sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko epea amaitzen den eguna iritsita ez bada ebatzi zergadunak foru arau horren 53.5 artikuluan onorioetarako aurkeztu duen aurretiazko tributazio proposamen espezifikoa, zergadunak hilabete epea izango du, Ogasuneko zuzendari nagusiak proposamenaren alde emandako ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera, sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa zuzentzea eskatzeko, eta emaitzaren aplikazioari dagokionez aipatutako foru arauaren 53. artikuluan aurreikusten den zuzenketaren aplikazioa aukeratzeko. Horrelakoetan, ulertuko da aukera hori aipatutako 128. artikuluan ezarritako epearen barruan egiten dela.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, artikuluko honen 1. apartatuko b) letran jasotako kasuari dagokionez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak 104. artikuluan xedatutakoa gorabehera, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak foru arau horren 89.ter.2 artikuluan aipatzen den kenkaria aplikatzen badu. Kasu horretan, baina, kenkariaren onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa zuzentzea eskatzeko duen hilabete epea Ogasuneko zuzendari nagusiaren ebazpena proposamena aurkeztu duen entitateari jakinarazten zaionetik aurrera konputatuko da.

5. azpisekzioa. Zergen Aholku Batzordea

21. artikulua. Zergen Aholku Batzordea.

Zergen Aholku Batzordea Ogasun eta Finantza Departamentuko organo bat da, erregelamendu honetan zehazten diren eskudantziak dituen.

22. artikulua. Osaketa.

1. Jarraian zehazten diren organoetako titularrek osatuko dute Zergen Aholku Batzordea:

- a) Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Ogasun Zuzendaritza Nagusia.
- c) Zerga Kudeaketako Zuzendariorde Nagusia.

- d) Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusia.
- e) Ikuskaritzako Zuzendariordetza Nagusia.
- f) Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzua.

Aipatutako pertsonen beren organoaren barruan hierarkikoki menpeko hurrenak diren pertsonengan eskuordetu ahal izango dute Aholku Batzordean parte hartzea.

2. Batzordeburu izango dira honako hauek:

a) Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiko titularra, Batzordea sekzio honen 1. azpisekzioan aipatzen diren zerga kontsulta idatziei buruz ebazteko biltzen denean.

b) Ogasun Zuzendaritza Nagusiko titularra, Batzordea sekzio honen 3. azpisekzioan aipatzen diren aurreiazko tributazio proposamenei buruz ebazteko biltzen denean, bai eta Zergen Foru Arau Orokorraren 163.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan ere.

3. Aurreko bigarren apartatuan xedatutakoaren arabera batzordeburu denari deialdiak egitea eta eztabaidak zuzentzea dagokio, eta, gainera, kalitatezko botoa izango du bileretan izan litezkeen berdinketak ebazteko.

4. Araugintzako eta Lege Aholkularitzako Zerbitzuko titullarrak idazkari lanak beteko ditu Batzordean, eta bileren aktak ere prestatuko ditu. Gainera, batzordeburuak eskuordetzen dion guztietan, gainerako batzordekideei deialdia jakinarazteaz eta haren arrakastarako garrantzitsuak izan daitezkeen alderdi guztiak koordinatzeaz arduratuko da.

5. Aurrekoa gorabehera, jorratu behar diren gaien edukiagatik batzordeburuak beharrezkotzat edo egokitatzat jotzen badu, Batzordeko kideak izan daitezke, baita ere, hitzarekin baina botorik gabe, Ogasun eta Finantza Departamentukoak diren eta aurreko lehen apartatuan aipatutakoen artean ez dauden administrazio organoetako titullarrak, betiere aztertu beharreko gaiek eragiten badiete.

23. artikulua. Batzordearen eginkizunak.

Zergen Aholku Batzordeak erregelamendu honetan esleitzen zaizkion eginkizunak izango ditu, eta hari dagokio, baita ere, Zergen Foru Arau Orokorraren 163.2 artikuluan aipatzen den irizpena ematea elusioaren aurkako klausula aplikatzearen egokitasunari dagokionez.

24. artikulua. Batzordearen funtzionamendua.

1. Zergen Aholku Batzordeak botoen gehiengo hartuko ditu erabakiak, bidezko eztabaidak izan eta gero, eta bere borondatea eratzeko kide anitzeko organoen jarduketa arau orokorrak beteko ditu, aurrez erabakitako gai zerrendari jarraituz.

2. Batzordearen gehiengoaren iritzia dagokion aktan jasoko da, eta akta horri gehitu ahal izango zaizkio gehiengoaren iritziarekin bat ez datozen kideek eman nahi dituzten boto partikularrak.

3. Aztergaia elusioaren aurkako klausularen aplikazioa denean, Batzordearen iritzia zergapekoaren jokabidean elusioa dagoela aitortzeko irizpenean jasoko da.

4. Zergen Aholku Batzordean hartzen diren erabakiak ez dira publikoak izango, eta haren eztabaidei ezin izango zaie publikizaterik eman. Dena den, horrek ez du eragotziko erabaki horietatik ondorioztatzen diren likidazioak arrazoitzean erabakia hartzeko aintzat hartu diren egitezko edo zuzenbidezko oinarriak aipatzea.

4. SEKZIOA. Zerga ziurtagiriak ematea

25. artikulua. Zerga ziurtagiriak.

1. Zerga ziurtagiritzat hartuko da zergapeko baten zerga egoerari buruzko egitateak jasotzen dituen agiria, Zerga Administrazioak ematen duena.
2. Besteak beste, zirkunstantzia hauek jaso ahal izango dira ziurtagirietan: aitorpenen eta autolikidazioen aurkezpena edo haietan bildutako gai zehatzak, zergapekoen zentsu egoera, zerga betebeharrak betetzen diren edo ez, eta Zerga Administrazioaren datu baseetan ordaindu gabeko zorrak edo zehapenak badauden edo ez.
3. Ziurtatzen diren egitate edo datuak ziurtagiriaren xede den zergapekoari buruzkoak izango dira bakar-bakarrik, eta haren barruan ezingo da hirugarren pertsona edo entitateei buruzko daturik sartu, non eta ziurtagiriaren xedeak ez duen behartzen datu horiek sartzera.
4. Zilegi izango da ziurtagirietan zerga betebeharrei buruzko daturik ez jasotzea, baldin eta, haiei dagokienez, Administrazioak dagokion likidazioaren bidez zerga zorra zehazteko duen eskubidea preskribatu bada.
5. Zerga betebeharrei buruzko ziurtagiriak emango dira betebeharrak horiek betetzeko epea behin amaituta dagoenean. Salbuespen gisa, ziurtagiriak egin ahal izango dira zerga betebeharra betetzeko epea oraindik amaituta egon ez arren, baldin eta ziurtatzeko moduko daturen bat baldin badago. Zirkunstantzia hori kasuan kasuko ziurtagirian jaso beharko da.

26. artikulua. Zerga ziurtagiriak eskatzea.

1. Zerga ziurtagiriak egingo dira:
 - a) Ziurtagiriaren xede den zergapekoak eskatuta.
 - b) Administrazio organoek, administrazio publikoek edo beste edozein interesdunek eskatuta, baldin eta informazio lagapen horretan eskaeraren unean indarrean dagoen araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badira.
 - c) Zerga Administrazioaren ekimenez, tributuko aplikatzeko egokitasun arrazoiengatik hala komeni bada.
2. Ziurtagiria ordezkari bidez eskatzen bada, ordezkaritza hori frogatu beharko da.
3. Prozedura edo administrazio jarduketara bat izapidetzeko beharrezkoa bada Ogasun eta Finantza Departamentuaren zerga ziurtagiri bat eskuratzea, hura behar duen Administrazio Publikoak zuzenean eskatu beharko dio departamentuari ziurtagiria. Gainera, adierazi beharko du zer lege edo foru arauk ematen dion ahalmena hura eskatzeko edo, bestela, baduela zergapekoaren alde aurreko baimena hura eskatzeko. Kasu horietan, eskaera egiten duen Administrazio Publikoak ezingo dio exijitu zergapekoari ziurtagiria aurkez diezaiola. Ogasun eta Finantza Departamentua ez da behartuta egongo zergapekoak eskatutako ziurtagiria ematera ziurtagiria kasuan kasuko Administrazio Publikoari bidali zaiola baldin badaki.

27. artikulua. Zerga ziurtagirien edukia.

Zerga ziurtagiriek datu eta zirkunstantzia hauek jasoko dituzte, gutxienez:

- a) Zergapekoaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - b) Ziurtatu behar diren zirkunstantziak, betebeharrak edo betekizunak. Ziurtagiri batean zerga arloko zirkunstantzia, betebeharrak edo betekizun jakin batzuk betetzen direla jaso beharra badago, hain zuzen ere, ziurtagiri hori erregulatzen duen arauak exijitutakoak, horiek betetzen diren ala ez adieraziko da.
- Ziurtapenak positiboak izango dira ziurtagiria erregulatzen duen araudiak exijitutako zirkunstantzia, betebeharrak edo betekizun guztiak betetzen direnean. Ondorio horietarako, aski izango da horien aipamena orokor bat egitea.

Ziurtapenak negatiboak direnean, adierazi beharko da zer zirkunstantzia, betebeharrak edo betekizunak ez diren betetzen.

Zergapekoak aitortu edo jakinarazitako datuak bat ez datozenean Administrazioak egiaztatu dituenekin, azken horiek ziurtatuko dira.

c) Eskatzen den informazioa Zerga Administrazioaren datu baseetan ez agertzea edo informazio hori ezin ematea, b) letran adierazitako informazioa ziurtatzea posible ez denean.

d) Bere kasuan, informazioa zertarako nahi den eta zein organismorentzat eskatzen den.

e) Data, ziurtagiria ematen duen organo eskudunaren sinadura edo administrazioaren zigilu elektronikoa, eta edukiz gero, egiaztapen kode segurua.

28. artikulua. Zerga ziurtagiriak ematea.

1. Zerga ziurtagiriak, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez emango dira.

2. Emateko epea 20 eguneko epea izango da, ziurtagiriaren araudiak beste epe bat ezarri duenean izan ezik.

Kontrakoa ezartzen ez bada, ziurtagiria epe barruan ez emateak ez du berekin ekarriko zirkunstantziak, betebeharrak edo betekizunak frogatutzat jotzea edo ziurtagiria izaera positiboarekin egin dela ulertzea.

3. Bitarteko elektronikoen bidez ematen den ziurtagiriaren egiazkotasuna eta osotasuna egiaztatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskura dagoen egiaztapen eta sinadura atalera jo beharko da, eta, haren barruan, ziurtagirian ageri den egiaztapen kode segurua erabili.

4. Ziurtagiria emandakoan, zergapekoak 10 eguneko epea izango du, hura jaso eta biharamunetik aurrera, haren edukiko edozein daturen aurka bere desadostasuna agertzeko, eta, horretarako, hura eman duen organoari ziurtagiria aldatzeko eskatu beharko dio, idatziz. Idazki horrekin batera, bere eskaera oinarritzeko egokitutako jotzen dituen frogak elementuak ere aurkeztu ahal izango ditu.

Ziurtagiria eman zuen organoak irizten badu emandako ziurtagiria ez dela zuzena, beste bat emango du 10 eguneko epean, aldaketa eskatzeko idazkia aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera. Beste ziurtagiri bat egitea egoki irizten ez badu, zergapekoari jakinaraziko dio, horren arrazoiak adierazita.

29. artikulua. Zerga betebeharrak egunean izateari buruzko ziurtagiriaren betekizunak.

1. Araudi espezifikoak kasu bakoitzean ezartzen duena alde batera utzi gabe, ziurtagiria egitearen ondorioetarako, zergapekoak bere zerga betebeharrak egunean dituela ulertuko da, dagokion eran egiaztatzen denean zirkunstantzia hauek betetzen direla:

a) Enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan alta emanda egotea, bertan inskribatuta egon behar duten pertsonak edo entitateak izanez gero, eta, behar den kasuetan, jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egotea.

b) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren autolikidazioak aurkeztu izana.

c) Konturako ordainketak egiteko betebeharrei dagozkien autolikidazioak eta urteko laburpen aitortzea aurkeztu izana.

d) Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioak, urteko aitortzen dituzten likidazioak eta, behar den kasuetan, Batasunaren barruko eragiketen aitortzen dituzten laburtzaileak aurkeztu izana.

e) Zergen Foru Arau Orokorraren 90. eta 91. artikuluetan informazioa eman beharri buruz arautzen den betebeharra betetzeko oro har exijitzen diren aitorpenak aurkeztu izana.

f) Ziurtagiria ematen duen Zerga Administrazioarekin ez edukitzea inolako zerga zorrik edo zehapenik epealdi exekutiboan, non eta zor edo zehapen horiek ez dauden geroratuta edo zatikatuta edo haien exekuzioa ez den eten.

g) Ez edukitzea ordaindu gabe Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik ezarri den eta sententzia irmo batek deklaratu duen isunik edo erantzukizun zibilik.

h)¹ Honako autolikidazioak aurkeztu izana, hala dagokionean: zerga bereziena, berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergarena, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarena, energia nukleoelektrikoaren ekoizpenak eragindako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko zergarena, erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak instalazio zentralizatueta biltegitratzearen gaineko zergarena, gasaren, petrolioaren eta kondentsatuen erauzketaren balioaren gaineko zergarena, plastikozko ontzi ez-berrerabilgarrien gaineko zerga bereziarena, eta hondakinak zabortegetan uzteagatik eta haien errausketa edo koerhausketagatik ordaindu beharreko zergarena.

2. Egiten den ziurtagirian, zergapekoak bere zerga betebeharrak egunean dituen edo ez adierazi beharko da.

3.² Aurreko 1. apartatuko b) eta d) letren bitartean, biak barne, eta h) letran adierazitako zirkunstantziak, aurkezpen epea ziurtagiria egin aurreko hilabetea hasi aurreko 12 hilabeteetan amaitua duten autolikidazio edo aitorpenei buruzkoak izango dira.

30. artikulua. Zerga ziurtagirien ondorioak.

1. Zerga ziurtagiriek informazio izaera edukiko dute, eta haien aurka ezingo da inolako errekurtsorik aurkeztu. Dena den, horrek ez du eragotziko haietan esaten denarekin desadostasuna agertu ahal izatea, 28.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, edo bertan jasotzen den informazioarekin lotuta gerora ematen diren administrazio egintzen aurka bestelako errekurtsuak jartzea.

Zerga ziurtagiriek bertan adierazten diren ondorioak izango dituzte, baita ziurtagiria erregulatzen duen araudiak ezartzen dituenak ere.

2. Ziurtagiriaren berariazko araudian besterik ezartzen ez bada, zerga ziurtagiriek 3 hilabeteko balioa izango dute, ematen diren egunetik aurrera, betiere haren edukiko zirkunstantzia erabakigarrietan aldaketarik gertatzen ez bada.

5. SEKZIOA. Zerga arloko laguntza jarduketak

31. artikulua. Zerga arloko laguntza jarduketak.

1. Zergapekoek beren eskubideak baliatzea eta beren betebeharrak betetzea errazte aldera Zerga Administrazioak haien esku jartzen duen jarduketa multzoa da zerga arloko laguntza.

2. Beste jarduketa batzuen artean, eta Zergen Foru Arau Orokorrak 116.1 artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoarekin bat, Zerga Administrazioak

¹ Letra hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 4. artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

² Apartatu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

zergapekoei autolikidazioak egiten lagundu diezaieke kasuan kasuko araudian ezartzen diren beharkizunak betetzen dituztenean.

Bereziki, eta zerga laguntza emateko beste modu batzuk alde batera utzi gabe, Zerga Administrazioak zergapekoari lagundu ahal izango dio autolikidazioak egiten, hark emandako datuak transkribatuz, datu horiek kalifikatuz eta dagokien zerga araudia aplikatuz, zerga zorra zehazteko edo, hala badagokio, itzuli edo konpentsatu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko. Autolikidazioa bete ondoren, zergapekoari emango dio, berak berrikusi eta, egoki iritziz gero, sinatu dezan.

Orobat, zerga arloko laguntza izan daiteke zergapekoei autolikidazio proposamenak prestatzea eta komunikatzea, aipatutako 116. artikuluko 2. apartatuan ezarritako terminoetan.

3. Aipatutako jarduketa horiek egiteak ez du galaraziko aurrerago Kudeaketa edo ikuskapen prozedurak hastera. Zerga Administrazioak prestatutako autolikidazio proposamenetan jasotzen diren datu, zenbateko edo kalifikazioak zergapekoari komunikatzen bazaizkio, datu, zenbateko edo kalifikazio horiek ez dira lotesleak izango Administrazioarentzat, gerora egin daitezkeen egiaztapen edo ikerketa jarduketetan.

32. artikulua. Programa informatikoak eta zergapekoei bitarteko elektronikoak erabiltzen laguntzea.

1. Zerga Administrazioak laguntza programa informatikoak jarri ahal izango ditu zergapekoen esku, autolikidazioak eta bestelako aitopenak prestatu eta aurkezteko. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak kasuan kasuko eredu arautzeko onartzen duen foru aginduan ezarritakora egokitu beharko dira programa horiek.

Halaber, Zerga Administrazioak beste zerbitzu elektroniko batzuk ere jarri ahal izango ditu haien esku, zergapekoei informazio eta laguntza emateko betebeharraren esparruan, haien zerga betebeharrak betetzea errazteko.

2. Programa eta zerbitzu horiek ahalik eta zergapeko gehienengana iristen saiatuko da Zerga Administrazioa.

3. Zerga Administrazioak zergapekoei bermatu behar die beharrezkoak diren bitarteko elektronikoak ez dituzten eta tramitazio elektronikoa egitera behartuta ez dauden interesdunek bide elektronikoz eduki ditzaketela harremanak Zerga Administrazioarekin eta, horretarako, eskura jarriko dizkie beharrezkoak diren irispide kanalak eta kasu bakoitzerako erabakitzen diren sistemak eta aplikazioak.

III. KAPITULUA. GIZARTE LANKIDETZA TRIBUTUEN APLIKAZIOAN

33. artikulua. Gizarte lankidetzaren subjektuak tributuen aplikazioan.

1. Zergen Foru Arau Orokorraren 89. artikuluan xedatutakoarekin bat, tributuen aplikatzeko garaian, eta gizarte lankidetzaren gauzatze arren, Zerga Administrazioak akordioak edo hitzarmenak formalizatu ditzake honako hauekin:

a) Beste administrazio publikoekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin.

b) Zerga-bilketaren Kudeaketan laguntzaile diren entitateekin.

c) Gizarte, lan, enpresa edo lanbide sektore edo interesen ordezkari diren erakunde eta antolakundeekin. Ondorio horietarako, elkargoa duten lanbide ofizialen antolakunde korporatiboak talde horren barruan sartuko dira.

d) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona edo entitateekin, haien kokapen geografikoak edo sare komertzialak Zerga Administrazioaren helburuak lortzen lagundu badezakete.

e) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen dituen bestelako pertsona edo entitateekin.

2. Aurreko 1.c) apartatuan aurreikusitako erakunde eta antolakundeekin gizarte lankidetzaren arloan sinatutako akordio edo hitzarmenek elkargokide, elkartekide edo bazkide diren pertsona edo entitateengan ere izaten ahalko dituzte ondorioak. Horretarako, interesdunek agiri bana izenpetu beharko dute akordioari atxikitzeko, eta bertan berariaz jaso beharko da haren edukia osorik onartzen dela.

Hala eta guztiz ere, akordioak edo hitzarmenak notarioen eta erregistratzaileen antolakunde korporatiboek sinatzen badituzte, lotesleak izango dira elkargoko pertsona guztientzat, eta, kasu horretan, ez da beharrezkoa izango akordio horiei banaka atxikitzea. Antolakunde korporatiboarekin izenpetzen den akordioak zirkunstantzia hori jaso behar du.

3. Lankidetzaren hitzarmena sinatzen duten entitate, erakunde eta antolakundeek ez badituzte betetzen beren gain hartu dituzten betebeharrak, aipatutako hitzarmena suntsiarazita geratuko da, dagokion espedientea izapidetu eta interesdunari entzun eta gero.

Pertsona edo entitate batek ez baditu betetzen aurreko 2. apartatuan aipatu den banakako atxikimendu agirian jasotako betebeharrak, horrek berekin ekarriko du pertsona edo entitate hori hitzarmenetik kanpo uztea, aurreko paragrafoan aurreikusitako prozedura eta berme berdinekin, eta banakako baimena ondoriorik gabe geratuko da.

4. artikulua honetan aipatzen diren gizarte lankidetzako akordioak izenpetzeko baldintzak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko ditu.

34. artikulua. Gizarte lankidetzaren edukia zerga aplikazioan.

1. Aurreko artikuluan aipatu diren pertsonen edo entitateen zergen aplikaziorako eginkizunak gauzatzen lagundu dezakete beren lankidetzaren dela medio. Besteak beste, honako hauek izan ditzake xede gizarte lankidetzaren horiek:

a) Xedapen orokorrak prestatu eta aplikatzearekin zer ikusia duten txostenak eta azterlanak egitea, baita Zergen Foru Arau Orokorraren 56. artikuluko 1. apartatuaren b) eta c) letretan adierazitako baliabideak aplikatzearekin lotutakoak ere.

b) Informazio eta zabalkunde kanpainak.

c) Zerga betebeharrak betetzeko era erraztea.

d) Laguntza ematea autolikidazioak eta bestelako aitortpenak egiteko eta horiek behar bezala betetzeko.

e) Administrazioari autolikidazioak, aitortpenak edo zerga ondorioak izan ditzakeen beste edozein agiri aurkeztu eta bidaltzea, zergapekoek aurrez baimenduta.

f) Akatsak zuzentzea, zergapekoek aurrez baimenduta.

g) Itzulketen eta errenboltsoen tramitazio egoerari buruz informatzea, zergapekoek aurrez baimenduta.

h) Zerga ziurtagiriak eskatu eta lortzea, zergapekoek aurrez baimenduta.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarri ahal izango ditu tributuen aplikazioan gizarte lankidetzari dagokionez aintzat hartzekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk.

IV. KAPITULUA. TRIBUTUAK APLIKATZEKO JARDUKETA ETA PROZEDURETAN BALIABIDE ELEKTRONIKO, INFORMATIKO ETA TELEMATIKOAK ERABILTzea

35. artikulua. Zerga Administrazio jardulearen identifikazioa.

1. Prozedura eta jarduketetan Zerga Administrazio jarduleak teknika eta bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiltzen baditu, Administrazio horrek sinadura edo zigilu elektronikoko ziurtagiri elektronikoa aitortu edo kualifikatueta oinarritutako sistemak erabili ahal izango ditu bere burua identifikatzeko.
2. Organo jarduleak eta haien titularrak modu horretan ere identifikatu ahal izango dira, jarduketaren edo prozeduraren izaerak hala eskatzen duenean.
3. Zerga Administrazioak dagokion aldez aurretik ofizialean argitaratuko du zer kode erabili ahal izango diren herritarrek sare irekietan harekin komunikazio seguruak ezartzen dituztela baieztatzeko. Sare itxien bidez ezartzen diren komunikazioetarako, berariazko arauak aplikatuko dira.

36. artikulua. Administrazio jarduketa automatizatua.

1. Administrazio jarduketa automatizatuen kasuan, aldez aurretik ezarri beharko da zer organo den edo diren eskudun, kasuan-kasuan, informazio sistemaren espezifikazioak, programazioa, mantenimendua, gainbegiratzea eta kalitate kontrola definitzeko. Era berean, adieraziko da zer organo hartu behar den arduraduntzat aurkaratzearen ondorioetarako.
2. Jarduketa automatizatuen kasuan, Zerga Administrazioak bere burua identifikatu eta bere eskumenaren garapenaren egiazkotasuna bermatu beharko du, sinadura elektronikoko sistema hauetako bat erabiliz:
 - a) Administrazio publikoaren, organoaren edo zuzenbide publikoko entitatearen zigilu elektronikoa, legeriak eskatzen dituen betekizunak betetzen dituen ziurtagiri elektronikoa kualifikatua oinarritua.
 - b) Administrazio publikoari, organoari edo entitateari lotutako egiaztapen kode seguruak, betiere aukera emanaz agiriaren egiazkotasuna eta osotasuna organo edo erakunde igorlearen artxiboetara elektronikoki sartuz egiaztatzeko.

III. TITULUA

ZERGA JARDUKETA ETA PROZEDURETAN APLIKATU BEHARREKO ARAU KOMUNAK

I. KAPITULUA. ZERGA ARLOKO ADMINISTRAZIO PROZEDUREN BEREZITASUNAK

1. SEKZIOA. Zerga arloko jarduketak eta prozedurak hastea

37. artikulua. Ofizioz hastea.

1. Zerga arloko jarduketak eta prozedurak ofizioz hasteko, beharrezkoa izango da eskumena duen organoak hala erabakitzea, izan bere ekimenez, izan goitik etorritako agindu baten ondorioz, izan beste organo batzuek eskaera arrazoitua aurkezteagatik.
2. Zergapekoari jakinarazi beharreko komunikazio bidez edo, bestela, zergapekoa bertaratuta, hasiko da prozedura.

Aurreikusita dagoen kasuetan, prozedura zuzenean hasi ahal izango da ebazpen edo likidazio proposamena jakinaraziz.
3. Egoki denean, hasierari buruzko komunikazioak, 47. artikulua 1. apartatua ezarritakoaz gainera, honako hau ere jaso beharko du:
 - a) Hasten den jarduketa edo prozedura.

b) Prozeduraren xedea, zerga betebeharrak edo haien elementuak berariaz adieraziz, eta, hala badagokio, zergaldiak edo likidazioaldiak edo denbora eremuak ere zehaztuz.

c) Zergapekoari egiten zaion errekerimendua, halakorik egiten bazaio, eta hari erantzuteko edo hura betetzeko ematen den epea.

d) Zenbatean eteten duen komunikazioak legezko preskripzio epea.

e) Ebazpen edo likidazio proposamena, Administrazioak horretarako behar den informazioa duenean.

f) Hala badagokio, tributuak aplikatzeko beste prozedura bat amaitu izanaren adierazpena, amaiera hori jakinarazten den prozeduraren hasiera komunikatzearen ondorio denean.

Dena dena, ez da beharrezkoa izango zirkunstantzia hori hasierari buruzko komunikazioan jasotzea, prozedura bat amaitu izanari buruzko komunikazio batean adierazi bada.

g) Erregularizazioa zergapekoa bertaratu gabe egiten denean, Zergen Foru Arau Orokorraren 160.2 artikuluan aipatzen den txostena.

4. Prozedurak interesduna bertaratuta hasten diren kasuak kenduta, eta, Zergen Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera alegazio izapiderik egitea beharrezkoa ez den kasuetan izan ezik, zergapekoari gutxienez 10 eguneko epea emango zaio, hasierari buruzko komunikazioa jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, prozeduran agertzeko, eskatu zaion dokumentazioa edo berak egoki irizten duena aurkezteko, edo nahi dituen alegazioak egiteko.

5. Jarduketak edo prozedurak behin hasi ondoren zergapekoak autolikidazioak edo bestelako zerga aitortenak aurkezten baditu jarduketaren edo prozeduraren xede diren zerga betebeharrekin eta zergaldiekin lotuta, horiek ez dute inola ere ekarriko itzulketa prozedura bat hastea, eta ez dituzte sortuko Zergen Foru Arau Orokorraren 27. eta 184.3 artikuluetan aurreikusitako ondorioak, baina horrek ez du eragotziko autolikidazio eta aitorten horietan jasotako informazioa aintzat hartzea egin litekeen likidazioan.

Era berean, jarduketak edo prozedurak behin hasi ondoren, zergapekoak diru sarrerak egiten baditu prozeduraren xede diren zerga betebeharrekin edo zergaldiekin lotuta, diru sarrera horiek bere kasuan egin litekeen likidazioaren konturako diru sarrerak izango dira, baina zirkunstantzia hori ez da oztopo izango zerga arloan kasuan kasu izan litezkeen arau haustek aintzat hartzea. Horrelakoetan, diru sarrera egin eta hurrengo egunetik aurrera, sartutako kopuruaren gainean ez da berandutza interesik sortuko.

38. artikulua. Prozedura hastea zergapekoak eskatuta.

1. Prozedura bat zergapekoak eskatuta hasi daiteke autolikidazio, aitorten, eskaera edo araudi aplikagarrian aurreikusita dagoen beste edozein bitarteko erabilita.

2. Prozedura eskaera bidez hasten denean, eskaerak datu hauek jaso behar ditu, gutxienez:

a) Zergapekoaren eta, kasua bada, ordezkariaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Zein bitartekoren bidez nahi duen jaso jakinarazpena, salbu eta Administrazioarekin harreman elektronikoak izatera behartuta dauden zergapekoak direnean. Azken horiek edo, horretara behartuta egon gabe, bitarteko horiek erabiltzea aukeratzen dutenek, beren helbide elektronikoa eman beharko dute, aldez aurretik ez badute egin, jakinarazpena bidali edo eskura jarri

izanaren abisua haren bidez jaso dezaten. Interesdunak ez baditu bitarteko elektronikoak aukeratzen, jakinarazpenetarako helbide bat adierazi beharko du.

c) Egitateak, arrazoiak eta eskaera zehatza.

d) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura, edo, bestela, eskatzaileak zuzenbidean onartutako edozein bitarteko erabilia adierazitako borondatea egiazkoa izatearen frogagiria.

e) Zer organori zuzentzen zaion.

3. Ordezkarari bidez jarduten bada, ordezkaritza behar bezala frogatu beharko da.

4. Zerga Administrazioak zergapekoen esku jarriko ditu, onetsiak izan eta gero, autolikidazioak, aitorpenak edo eskaerak egiteko eredu normalizatuak edo zerga araudian aurreikusten diren bestelako bitartekoak, eskatzen zaizkien datu eta informazioak ematen laguntzeko edo dagokion prozedura izapidetzea errazteko.

5. Aurreko 1. apartatuan aipatutako agiriak paperean aurkezten badira, zergapekoak kopia zigilatua eskuratu ahal izango du originalekin batera aurkezten dituenean. Kopia horretan agiriak non eta noiz aurkeztu diren agertuko da.

6. Interesdunak euskarri, baliabide edo aplikazio informatiko, elektronikoen edo telematikoen bidez aurkezten baditu aurreko apartatueta adierazitako agiriak, Zerga Administrazioak prozedura hasteko exijitzen dituen datuak jaso beharko dira horietan. Horrelakoetan, jaso izanaren agiria erabilitako euskarri, baliabide edo aplikazioaren ezaugarriei jarraituz luzatuko da.

Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztutako dokumentazioarekin batera bestelako dokumentazioa aurkeztu nahi bada, eta sistemak ez badu ahalbidetzen hura zuzenean aurkeztea, zergapekoak araudi aplikagarrian aurreikusita dauden administrazio erregistroetako batean aurkeztu beharko du dokumentazio hori, Administrazioak aurrez inolako errekerimendurik egin behar izan gabe. 10 eguneko epea izango du horretarako, lehen dokumentazioa aurkezten denetik aurrera kontatuta, non eta berriazko araudiak ez duen beste toki edo beste epe bat ezartzen. Dokumentazio horretan behar bezala identifikatu beharko da zer eskaera edo komunikazio aurkezten den teknika edo baliabide elektronikoen erabilia.

39. artikulua. Zuzenketa.

1. Interesdunak zuzendu beharko dituzte aurkezten dituzten eskaerak edo hasiera dokumentuak, hurrengo 2. apartatuan ezarritako eran, honako kasuetan:

a) Aurreko artikuluko 2. eta 3. apartatueta adierazitako beharkizunak eta, kasu bada, berriazko araudi aplikagarriak ezarritakoak, betetzen ez dituztenean.

b) Bitarteko elektronikoz jaso eta araudi aplikagarriak ezarritako diseinu eta zehaztapenekin bat ez datozenean.

c) Bitarteko elektronikoen erabiltzeko betebeharra bete gabe aurkezten direnean.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako kasuetan, Zerga Administrazioak errekerimendua egingo dio interesdunari, 10 eguneko epean, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko dio ezen, hala egin ezean, zera ulertuko dela: eskaeran atzera egin dela, eta eskaera bestelako izapidetzerik gabe artxibatuko dela.

Errekerimenduari epe barruan erantzun bazaio eta akatsa zuzentzen bada, aurkezpen datatzat zuzenketa egin den eguna hartuko da, oro har. Prozedurak epe jakin baten barruan hasi behar diren kasuetan, aurkezpen datatzat hasierako dokumentu edo eskaerarena hartuko da. Azken kasu horretan, eta gainerako ondorioetarako, aurkezpen datatzat zuzenketa egin den eguna hartuko da.

Errekerimenduari epe barruan erantzun bai baina akatsak ez direla zuzendu jotzen bada, eskaera artxibatu egingo da, interesdunari hala jakinarazi eta gero.

10 eguneko epea igaro eta errekerimendua erantzun gabe badago, ulertuko da eskaeran atzera egin dela eta eskaera bestelako izapiderik gabe artxibatuko da.

3. Aurreko apartatueta xedatutakoa gorabehera, zerga autolikidazio edo aitorpenen bitartez hasten diren prozeduretan ez bada betetzen autolikidazio edo aitorpen horien aurkezpenean bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra, edo, horiek erabilia ere, bitartekoak ez badatoz bat araudi aplikagarriak ezarritako diseinu eta gainerako zehaztapenekin, baliozkotasunez aurkeztutak joko dira, hargatik eragotzi gabe Administrazioak behar den bidea erabiltzeko eskatzea eta Zergen Foru Arau Orokorraren IV. tituluaren xedatutakoa aplikatzea.

2. SEKZIOA. Zerga arloko jarduketak eta prozedurak izapidetzea

40. artikulua. Jarduketaren tokia eta ordutegia.

1. Bulego publikoetan egiten diren jarduketak jendaurreko ordutegi ofizialaren barruan gauzatuko dira, lanaldiaren barruan beti.

2. Jarduketak zergapekoaren lokaletan egiten badira, bertako bulego ordutegia edo bertan egiten den jardueraren lanaldia errespetatuko dira. Zergapekoa ados badago, jarduketak bulego ordutegitik edo jardueraren lanalditik kanpo egin ahal izango dira.

3. Epaileak baimena eman badu Konstituzioak zergapekoari babestutako egoitzan sartzeko, jarduketak egingo dira baimenean lanaldiari eta ordutegiari buruz xedatutakoari erreparatuta.

4. Zergapekoa pertsona desgaitua bada edo mugikortasun murriztua badu, tributuak aplikatzeko jarduketak eta prozedurak aurreko 1. eta 2. apartatueta aipatutakoetatik egokiena den tokian egingo dira.

41. artikulua. Izapidetze epeak luzatu eta geroratzea.

1. Prozedura izapidetzeko ardura duen organoak erabaki dezake izapideak betetzeko ezarri diren epeak luzatzea, zergapekoek eskatuta, betiere epe horien erdia gainditu gabe.

2. Epe bakoitza behin baino ezingo da luzatu.

3. Epea luzatu ahal izan dadin, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Luzatu nahi den epea amaitu baino hiru egun lehenago eskatzea gutxienez.

b) Epea luzatzeko zirkunstantziak gertatzen direla justifikatzea.

c) Hirugarren pertsona edo entitateen eskubideei kalterik ez egitea.

4. Eskaera epe barruan aurkezten bada, hasiera batean ezarritako epearen erdia automatikoki luzatutak joko da, non eta, zabaldu nahi den epea amaitu aurretik, ez den berariaz jakinarazten eskaera ukatu dela.

Hasieran ezarritako epea amaitu baino lehen berariaz jakinarazten diren luzapenen kasuan, jakinarazpenak aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez bezalako luzapen epe bat ezarri ahal izango du, laburragoa ere izan daitekeena.

5. Zergapekoak frogatzen badu zeinahi zirkunstantziarengatik ezinezkoa zaiola ezarritako lekuan, egunean eta orduan agertzea, epea geroratzeko eskatu ahal izango du, errekerimendua jakinarazi ondorengo hiru egunen barruan. Zergapekoa agertzea eragozten duen zirkunstantzia hiru eguneko epea igaro eta gero gertatzen bada, agertzeko ezarritako eguna iritsi baino lehen eskatu ahal izango da luzapena.

Kasu horietan, agertzeko beste egun bat jarriko da.

6. Luzapena edo gerorapena onartzen edo ukatzen duen erabakiaren aurka ezingo da aurkeztu ez errekurtsorik ez erreklamazio ekonomiko-administratiborik.

42. artikulua. Dokumentazioa aurkeztea eta hirugarrenen edo entitateen datuak berrestea.

1. Zergak aplikatzeko prozedurari lotutako zergapekoari datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak errekeritzen zaizkionean, prozedurari buruzko araudian jasotako ahalmenei jarraituz, errekerimenduak ezin izango dira aurkaratu errekurtsu edo erreklamazio ekonomiko-administratibo independente baten bidez, eragotzi gabe prozedura horren ondorioz emandako administrazio egintzaren aurka bidezkoak diren errekurtsuak aurkeztea.

2. Zergak aplikatzeko prozedura batean zergapekoak alegatzen duenean zehaztugabeak edo faltsuak direla Zergen Foru Arau Orokorrak 90. eta 91. artikuluetan jasotako informazioa emateko obligazioa betetzeko egindako aitorpenetan eta errekerimenduen erantzunetan jasota dauden datuak, alegazio hori 15 egunetan aurkeztu beharko du, datu horiek Zerga Administrazioak komunikazio edo eginbide bitartez agerian jarri eta biharamunetik aurrera.

43. artikulua. Zergapekoek prozeduren izapidetze egoeraren berri izatea.

1. Prozedura bati lotutako zergapekoek edozein momentutan informazioa eskatu ahal izango dute prozedura horren izapidetze egoerari buruz.

2. Informazioa eskatzean, jasota gelditu behar dira eskatzailearen izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta zergapekoaren sinadura edo beste edozein bitarteko erabiliz adierazitako borondatearen benetakotasunaren akreditazioa ere.

Lehentasunez, informazioa interesdunak erabilitako bitarteko bera erabiliz emango da, eta bertan adieraziko da zer fasetan dagoen prozedura, zein den egindako azken izapidea eta noiz burutu zen.

44. artikulua. Administrazio artxibo eta erregistroetako sarbidea.

1. Prozeduran parte hartu duten zergapekoek eskatu ahal izango dute amaituta dagoen espedientea osatzen duten erregistro eta dokumentuetan sartzea, betiere Zergen Foru Arau Orokorrak 95.6 artikuluan jasotako moduan eta baldintzetan.

2. Espedientea izapidetu duen organoak hilabeteko epean ebatziko du espedientean sartzeko eskaerari buruz. Epe hori igarotzen bada espedientean sartzeko eskaerari erantzun gabe, hura ezetsia dela ulertu ahal izango da.

Ebazpenean eskaera baiesten bada, sarbidea izan dela jasota utziko da espedientean.

3. Sarbidea izateko eskubideak berekin ekarriko du ondorengo artikuluen arabera aztertzeko baimena duten agirien kopia lortzeko eskubidea.

4. Espedientea osatzen duten agiriak bitarteko elektronikoetan gordeta daudenean, interesdunari erraztuko zaio bitarteko horiek erabiliz agirietan sartzea, betiere teknikoki aukera badago, aurrez adierazten diren zehaztapen eta bermeen arabera eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, jasotakoari jarraituz.

45. artikulua. Kopia lortzea.

1. Zergapekoak espedientea osatzen duten agirien kopia lortu ahal izango du, bere kontura eta aurrez eskatuta, Zergen Foru Arau Orokorrak 95.5 artikuluan jasotakoaren arabera, espedientea agerian jartzerakoan, betiere amaituta dauden espedienteetako artxibo eta erregistro administratiboetan sartzan denean edo premiamenduzko prozeduraren edozein momentutan. Frogagiri edo agirien

laburpenak egin edo beste metodo batzuk erabili ahal izango dira, zergapekoari eragiten ez dioten datuen konfidentzialtasuna gordetzeko.

2. Organo eskudunak bere bulegoetan entregatuko ditu kopiak, eta eginbide batean jasoko ditu kopiatu diren agirien zerrenda, orri kopurua eta zergapekoak haiek jaso izana. Kopiak entregatzeko euskarriak Zerga Administrazioaren aukera teknikoen arabekoak izango dira.

3. Zergen Foru Arau Orokorreko 95.5 artikuluan adierazitako zirkunstantzietako bat gertatzen dela agerian dagoenean, ukatu egingo da kopiak lortzeko aukera ebazpen arrazoituaren bidez.

4. Artxihoan edo espedienteetan jasota dauden agiriak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoetan gordeta daudenean, lehentasunez kopiak bitarteko horietan edo haietara egokitutako euskarrietan entregatuko dira, betiere horretarako aukera teknikoak badaude.

46. artikulua. Entzunaldi eta alegazio izapidea.

1. Entzunaldi izapidearen barruan, zergapekoari espedientearen agerian jarriko zaio, eta barnean hartuko dira egindako jarduketak guztiak Zerga Administrazioaren esku dauden frogak elementu guztiak eta beste organo batzuek egindako txostenak. Era berean, zergapekoek entzunaldi izapidearen aurreko edozein momentutan eskubidezko dituzten alegazio eta agiriak sartuko dira, eta haiek guztiak kontuan hartuko dituzte organo eskudunek ebazpen edo likidazio proposamena idaztean.

Izapide horretan, zergapekoak espedientearen kopia lortu, agiri eta frogagiri berriak aurkeztu eta egoki deritzen alegazioak egin ahal izango ditu.

Ebazpen edo likidazio proposamenaren ondorego alegazio izapide bat aurreikusteagatik entzunaldi izapidetik erabiltzen ez duten prozeduretan, Zerga Administrazioak zergapekoari proposamen hori jakinaraziko dio, egoki deritzen alegazioak egin ditzan, eta izapide horretan aurreko paragrafoetan jasotakoa aplikagarria izango da.

2. Entzunaldi edo, hala badagokio, alegazio epea amaitu aurretik zergapekoak adierazten badu erabaki duela alegaziorik ez egitea edo agiri edo frogagiri berririk ez aurkeztea, izapidea burututzat hartuko da eta espedientearen zirkunstantzia hori jasota utziko da.

3. Zerga Administrazioak entzunaldi izapidea edo, hala badagokio, alegazio epea alde batera utzi ahal izango du, hura prozeduran jaso gabe dagoenean eta ebazpenean kontuan hartzen ez denean interesdunak aurkeztutakoez bestelako gertaera edo alegaziorik edo foru arau batek hala jasotzen duenean.

Era berean, aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera alegazio epea alde batera uzten denean, alboratu egingo da zergapekoari egiten zaion ebazpen edo likidazio proposamenaren jakinarazpena ere.

4. Behin entzunaldi edo, hala badagokio, alegazio izapidea burututa, ezin izango da espedientearen sartu egitateei buruzko frogagiri gehiago, salbu eta frogatzen denean ezinezkoa dela haiek izapide hori amaitu aurretik aurkeztea, betiere ebazpena eman aurretik aurkezten badira frogagiriak.

5. Entzunaldi edo, hala badagokio, alegazio izapidea amaituta, baldin eta prozedura bat izapidetu eta ebazteko eskumena organo desberdinei badagokie, izapidetzeko eskumena duen organoak ebazpen edo likidazio proposamena bidaliko dio, balizko alegazioak baloratu ondoren, ebazteko eskumena duen organo eskudunari.

3. SEKZIOA. Zerga jarduketa eta prozeduretako dokumentazioa

47. artikulua. Komunikazioak.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 95.8 artikuluan aipatzen dituen komunikazioetan gutxienez datu hauek jaso beharko dira espresuki:

- a) Noiz igorri diren.
- b) Komunikazioaren hartzaile den pertsona edo entitatearen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- c) Komunikazioaren bidez jakinarazten diren egitateak edo zirkunstantziak edo egiten den errekerimenduaren edukia.
- d) Organo erantzulea eta, hala badagokio, komunikazioa egiten duenaren izen-abizenak eta sinadura.

2. Komunikazioak zergapekoari edo haren ordezkariari jakinaraziko zaizkio, eta espedienteari gehituko zaizkio.

Komunikazioak paperean egiten direnean, bi aletan egingo dira, eta Administrazioak haietako bat gordeko du administrazio espedienteari gehitzeko. Beste alea zergapekoari edo haren ordezkariari emango zaio, komunikazioaren jakinarazpen egintzaren momentuan. Jakinarazpen egintzaren eginbidea komunikazioaren agirietan bertan gauzatu ahal izango da.

48. artikulua. Eginbideak.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 95.8 artikuluan aipatzen diren eginbideetan, alderdi hauek jasota utziko dira nahitaez:

- a) Non eta noiz egiten diren.
- b) Esku hartzen duen Zerga Administrazioaren zerbitzura ari den pertsonaren izen-abizenak eta sinadura.
- c) Jarduketak egiteko baliatutako pertsonaren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta sinadura, eta esku hartze horretan duen izaera edo ordezkaritza.
- d) Jarduketetan aipatzen den zergapekoaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- e) Zer prozedura edo jarduketaren barruan egiten den.
- f) Jasotzen diren egitateak eta zirkunstantziak.
- g) Zergapekoak egin dituen alegazio edo adierazpenak, zerga alorrean garrantzia dutenean. Haien artean, jasota utzi beharko da eginbidean adierazitako egitate eta zirkunstantziekin ados dagoen edo ez.

2. Eginbideetan, eduki hauek jasota utzi ahal izango dira, besteak beste:

- a) Jarduketa edo prozeduraren hasiera eta zergapekoei egiten zaizkien komunikazio eta errekerimenduak.
- b) Informazioa lortzeko jarduketaren emaitzak.
- c) Prozeduran hartu diren kautelazko neurriak, haien deskribapena eta neurri horiek hartzea eragin zuten zirkunstantziak.
- d) Obligazio material eta formalak edo bestelako zerga betebeharrak egiaztatu ondorengo egitateak.
- e) Zerga egitatearen edo haren balorazioaren elementuak, eta zerga zorraren zenbatekoa eragiten duten gainerakoak, haiek administrazio espedientean sartzeko dokumentatzeko modukoak direnean.
- f) Zergapekoak administrazio organo eskudunaren aurrean agerraldi pertsonal batean egindako deklarazio baten bidez baimendu duen ordezkaritza.
- g) Etenaldi justifikatuak eta zergapekoari egotzi dakizkikeen luzamenduak.

3. Era berean, eginbide batean jasota utzi ahal izango dira beste prozedura baten hasiera eragin duten edo lehendik hasitako beste prozedura bati gehitu behar zaizkion egitate eta zirkunstantziak, eta, besteak beste, honako hauek:

- a) Zerga arau hauste izan daitezkeen ekintzak edo omisioak.
- b) Zorraren eta zehapenaren erantzule solidario edo subsidiario izan daitezkeen izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta erantzukizun horren arrazoi izan daitezkeen zirkunstantziak eta aurrekariak.
- c) Ekintzak edo omisioak, pertsona laidotuak bakarrik eskatuta ez pertsegitzeko moduko delituak izan daitezkeenean.
- c) Zerga egoitza egiaztatzeko prozedura hastea eragiten duten egitateak.
- e) Merkataritza edo finantza arloko edo beste alor batzuetako legeria hautsi dezaketen egitateak.
- f) Administrazio bereko edo beste administrazio bateko beste organo batzuentzat garrantzitsuak izan daitezkeen egitateak.
- g) Talde batean sartuta dauden eta sozietateen gaineko zergaren baterakuntza fiskaleko araubidean edo balio erantsiaren gaineko zergaren entitate taldearen araubide berezian zergapetuta dauden mendeko entitateekin egindako egiaztapen jarduketaren emaitza.

49. artikulua. Eginbideak izapidetzea.

1. Eginbideak egin ahal izango dira aurrez finkatutako eredu bati zertan jarraitu gabe. Dena den, ahal denean, eredu normalizatuan egingo dira. Eginbideak eskuz zein bitarteko elektronikoz sinatu ahal izango dira.

2. Jarduketak egiten dituen zerga administrazioko zerbitzuko langileek eta jarduketak egiteko baliatutako pertsonak sinatuko dituzte eginbideak, eta azken horiei ale bat emango zaie. Eginbideak elektronikoki sinatzen direnean, alea eman beharrean behar diren datuak eman ahal izango dira, ale hori bitarteko elektronikoki egokien bidez eskura dadin.

Pertsona horrek uko egiten badio eginbidea edo hura elektronikoki eskuratzeko datuak sinatu edo jasotzeari, edo hori egiteko moduan ez badago, zirkunstantzia hori eginbidean jaso beharko da. Eginbidea edo berau elektronikoki eskuratzeko datuak sinatu edo jaso nahi ez bada, errefusatzeko bat izan dela joko da Zergen Foru Arau Orokorren 107. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako.

Dena den, emaitza eginbide batean jasota duten jarduketaren izaera dela eta beharrezkoa ez denean haiek egiteko inor bertaratzea, eginbidea jarduketa egiten duen administrazioko zerbitzuko langileek sinatuko dute, eta haren kopia bat bidaliko zaio zergapekoari edo, bestela, hari agerian jarriko zaio entzunaldi edo alegazio izapidetan.

3. Eginbideak espedienteari gehitu behar zaizkio.

4. Eginbideetan jasota gelditzen badira lehendik hasita dagoen edo gerora hasi daitezkeen zergen aplikaziorako edo zehapenen ezarpenerako beste prozedura batean eragina izan dezaketen egitate edo zirkunstantziak, haien kopia bat bidaliko zaio kasu bakoitzean dagokion organo eskudunari.

50. artikulua. Txostenak.

1. Zergen Foru Arau Orokorren 95.8 artikuluan jasotakoaren arabera, Zerga Administrazioko organoek derrigorrezkoak diren txostenak eta zergak aplikatzeko beharrezkoak direnak egingo dituzte. Era berean, beraiei eskatzen zaizkien txostenak ere egingo dituzte, betiere haiek eskatzearen komenigarritasuna oinarrituta badago.

2. Bereziki, zergak aplikatzeko organoek kasu hauetan egin beharko dute txostena:

a) Zerga arau hauste izan daitezkeen egitate edo portaerak jasotzen dituzten eginbideak egiten direnean eta organo berari zehapen prozedura izapidetzea ez dagokionean.

b) Herri Ogasunaren aurkako delitua egin izanaren zantzuak hautematen direnean eta espedientea organo eskudunari bidaltzen zaionean Zergen Foru Arau Orokorrak VI. tituluan jasotakoaren arabera.

4. SEKZIOA. Zerga jarduketak eta prozedurak amaitzea

51. artikulua. Ebazpena.

1. Behin prozedura izapidetzen amaituta, organo eskudunak ebazpena emango du, aplikaziozko araudiak hala agintzen duenean arrazoitua izango dena. Era berean, erabakia hartuko du prozedura bakoitzari dagozkion kontu guztien inguruan eta prozeduratik eratortzen diren beste gaien inguruan.

2. Ebazpenean espresuki aipatuko dira zergapekoaren izen-deiturak edo sozietate izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia, data, ebazpena ematen duen organoaren identifikazioa, prozeduran jasotako zerga eskubide edo betebeharra eta, hala badagokio, ebazpena eragin duten egitateak eta zuzenbidezko oinarriak.

3. Ebazpenean likidazio bat jasota dagoenean, Zergen Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, eta, bidezkoa denean, berandutze interesak haren barnean sartuko dira.

4. Prozedurak amaitzeko gehieneko epeak ez betetzeak berekin ekarriko ditu haien berariazko araudian jasotako ondorioak edo, horrelakorik ezean, Zergen Foru Arau Orokorrak 100. artikuluan jasotako ondorioak, bidezkoa denean Administrazioak ebazpen espresua emateko duen betebeharraren kalterik gabe.

Administrazio isiltasunez baiesten denean, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan.

Administrazio isiltasunez ezesten denean, epea amaitu ondorengo ebazpen espresua emateko orduan, Administrazioarentzat ez da loteslea izango isiltasunaren esanahia.

5. Administrazio isiltasunaren ondorioak Administrazioak zergapekoen zerga egoera egiaztatu edo ikertzeko duen ahalmenaren kalterik gabe ulertuko dira, bai eta zerga onuren baldintza eta beharkizunak betetzearen kalterik gabe ere, betiere Zergen Foru Arau Orokorrak 111. artikuluan jasotakoaren arabera.

6. Zergak aplikatzeko prozedura bat beste prozedura bat hastearen ondorioz amaitzen denean, lehen prozeduraren amaiera haren gehieneko iraupen epearen barruan jakinarazteko obligazioa beteta dagoela ulertzeko bakarrik, nahikoa izango da bigarren prozeduraren hasiera jakinarazteko saio bat egitea.

Baldin eta zergak aplikatzeko prozedura batek dakarren erregularizazioaren ondorioz zehapen prozedura bat hasi bada eta zergak aplikatzeko prozedura hori beste zerga prozedura baten ondorioz amaitzen bada, zehapen prozedura ebazpen espresu baten bidez amaituko da, non zirkunstantzia hori adieraziko den, eragotzi gabe ondoren hasitako zerga prozeduratik eratorritako zehapen prozedura berri bat geroago hasteko aukera.

Baliagarriak eta eraginkorrak izaten jarraituko dute, ondoren hasi daitezkeen zerga edo zehapen prozeduretan frogatutako ondorioa izan dezaten, apartatu honetan jasotako moduan amaitu den zergen aplikaziorako prozedura batean edo zehapen prozeduran batean egindako jarduketek, bai eta prozedura horietan lortutako

agiriekin eta frogaren elementuekin ere, betiere haiek prozeduraren araudian jasotakoari jarraituz aztertu badaitezke.

52. artikulua. Gehieneko ebazpen epeen zenbaketa.

1. Etenaldi justifikatuak eta Zerga Administrazioari egotzi ezineko arrazoi bati lotutako luzamenduak ez dira sartuko prozedura ebazteko epearen zenbaketan, aintzat hartu gabe prozedurari lotutako zerga betebeharren elementu eta epealdi guztiei edo batzuei eragiten dieten edo ez.

2. Zordun nagusiari bideratutako zergen aplikaziorako prozeduran edo zehapenen ezarpenarako prozeduran zehar akreditatu diren etenaldi justifikatuak eta Zerga Administrazioari egotzi ezineko arrazoi bati lotutako luzamenduak etenaldi justifikatutzat eta Zerga Administrazioari egotzi ezineko arrazoi bati lotutako luzamendutzat hartuko dira, denboran zehar erantzukizuna deklaratzeko prozedurarekin bat datozenean, erantzukizuna deklaratzeko prozedura ebazteko epearen zenbaketaren ondorioetarako.

3. Etenaldi justifikatuak eta Administrazioari egotzi ezineko arrazoi bati lotutako luzamenduak modu egokian dokumentatu beharko dira, espedientean jasota gelditzeko.

4. Prozeduraren iraupen epea zenbatzeko, etenaldi justifikatuak eta Administrazioari egotzi ezineko arrazoi bati lotutako luzamenduak egun naturalen zenbatuko dira.

5. Zergapekoak eskubidea izango du, 43. artikuluan xedatutakoaren arabera, jakiteko zein den iraupen epearen zenbaketaren egoera eta 53. eta 54. artikuluetan jasotako zirkunstantziak gertatzen ote diren, etenaldi edo luzamendu bakoitzaren hasiera eta amaiera data adierazita, betiere espresuki eskatzen badu.

Kasu horietan, eginbide batean jasota utziko dira eskatutako informazioa noiz eskatu den eta, hala badagokio, noiz hartu den, betiere informazioa eskatu zaien pertsona edo agintarien identifikazio datuak ezagutarazi gabe, organo eskudunaren iritziz egiaztapen edo ikerketaren izaerak hala eskatzen duenean.

Dena den, entzunaldi izapidea egiten denean, zergapekoak ezagutu ahal izango du nortzuk diren pertsona edo agintari horiek.

6. Etenaldi justifikatuak eta Zerga Administrazioari egotzi ezineko arrazoi bati lotutako luzamenduak ez dira eragozpena izango egoera horrek dirauen bitartean jarduketak egiteko.

53. artikulua. Etenaldi justifikatuak.

Zergen Foru Arau Orokorrak 100.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, etenaldi justifikatutzat hartuko dira kasu hauetan sortutakoak:

a) Edozein bitarteko erabilita Gipuzkoako Foru Aldundiko edo beste administrazio batzuetako beste administrazio organo edo unitate batzuei datuak, txostenak, irizpenak, balorazioak edo agiriak eskatzen zaizkienean, eskaera bidaltzen denetik prozedurarekin jarraitzeko eskumena duen organoak haiek jaso arte igarotzen den denborarako. Kontzeptu honengatik gertatzen den etenaldia ezin izango da 6 hilabetetik gorakoa izan, egin daitezkeen datu, txosten, irizpen, balorazio edo agiri eskaera guztietarako. Eskaerak beste estatu batzuei egiten zaizkienean, epe hori 12 hilabetekoa izango da.

b) Elkarrekiko laguntzaren esparruan aurretik beste estatu edo nazioarteko edo nazioz gaindikiko entitate batengandik jasotako informazioaren ondorioz edozein bitarteko erabilita estatu edo entitate horri datuak, txostenak, irizpenak edo balorazioak eskatzen zaizkionean, eskaera beste estatu edo entitateko agintari eskudunari bidaltzen zaionetik prozedurarekin jarraitzeko eskumena duen

organoak haiek jaso arte igarotzen den denborarako. Kontzeptu honengatik gertatzen den etena ezin izango da 12 hilabetetik gorakoa izan.

Eten epe hori aurreko a) paragrafoan araututako epeetik kanpo dago.

c) Herri Ogasunaren aurkako delituen zantzuak hautematen direnean eta espedientea Ministerio Fiskalari edo jurisdikzio eskudunari bidaltzen zaionean, Ogasuneko zuzendari nagusiak eskaera bidaltzea erabakitzen duenetik prozedurarekin jarraitzeko eskumena duen organoak hari itzulitako espedientea edo ebazpen judiziala jaso arte igarotzen den denborarako.

d) Zerga betebeharraren zehaztapena edo egozpena zuzenean zigor arloko jarduketa judizialen menpe dagoenean, jarduketa horien berri hartzen denetik eta egitate hori espedientean jasota uzten denetik edo espedientea jurisdikzio eskudunari edo Ministerio Fiskalari bidaltzen zaionetik prozedurarekin jarraitzeko eskumena duen organoak ematen duen ebazpenaren berri hartu arte igarotzen den denborarako. Dena den, posible eta bidezko denean, behin-behineko likidazioak egin daitezke, Zergen Foru Arau Orokorrak 145.3 artikuluan jasotakoari jarraituz.

e) Zergen Foru Arau Orokorrak 163. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den elusioaren aurkako klausula aplikatzeko derrigorrezkoa den txostena eskatzen denean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduan (azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretua) 60. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den zergapekoari jakinarazten zaionetik organo kolegiatuak irizpena eman arte edo hura emateko gehieneko epea amaitu arte igarotzen den denborarako.

f) Ezinbestez Zerga Administrazioak bere jarduketak eten behar baditu, ezinbesteko kasu horrek irauten duen denborarako. Dena den, posible eta bidezko denean, behin-behineko likidazioak egin daitezke, Zergen Foru Arau Orokorrak 145.3 artikuluan jasotakoari jarraituz.

g) Eskatu behar denean Zergen Foru Arau Orokorrak 104. artikuluko 4. apartatuan jasotakoaren arabera aurkeztutako aitorpenetan sartutako hirugarrenei buruzko datuak berrestea, eskaera bidaltzen denetik datuak berretsi arte igarotzen den denborarako. Kontzeptu honengatik gertatzen den etenaldia ezin izango da 6 hilabetetik gorakoa izan.

h) Zergen Foru Arau Orokorrak 48. artikuluan jasotako zerga egoitzaren egiaztapen prozedura bat hasten denean, izapidetze osoak irauten duen denborarako edo prozedura hori ebazteko gehieneko epea amaitu arte.

i) Arbitraje Batzordeari Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legea) 66. artikuluan jasotako eskumen gatazka aurkezten zaionean, gatazka aurkezten denetik prozedurarekin jarraitzeko eskumena duen organoak Arbitraje Batzordearen ebazpena jaso arte igarotzen den denborarako.

j) Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legea) 47.ter artikuluan jasotakoa aplikatuta, ordainarazpen edo ikuskapen eskumenak eraginda dauden beste administrazio batzuekin koordinatu behar direnean, komunikazioa jakinarazten denetik ondorengo bi hilabeteetara arte igarotzen den denborarako, baldin eta eragindako administrazioetako batek ere oharrik jasotzen ez badu. Beste edozein kasutan, zenbaketa etenda egongo da harik eta, aipatutako artikuluko lau apartatuan xedatutakoagatik, jarduketekin jarraitzea eta bidezko administrazio egintzak ematea posible izan arte.

Ondorio bera izango du jarduketan epea zenbatzeko, ordainarazpen edo ikuskapen eskumenak beste foru zerga administrazio batzuekin koordinatzen direnean.

k) Jakinarazpena ematean zergapekoaren heriotzaren edo nortasun juridikoaren azkentzearen berri izaten denean, jakinarazpen saioa egiten denetik zergapekoaren oinordekoei jakinarazi arte igarotzen den denborarako; nolanahi ere, jakinarazpena prozedura amaitzen duen ebazpenari buruzkoa denean, jarduketa hori jakinarazpen saio baliagarritzat hartuko da, prozeduren gehieneko iraupen epearen barruan jakinarazteko obligazioa betetzat ematearen ondorio soiletarako.

Era berean, baldin eta jakinarazpena ematean Administrazioak jakiten badu zergapekoaren konkurtsoa deklaratu dela, administrazio eta xedapen ahalmenak etenda, jakinarazpen saio hori egiten denetik konkurtsoko administratzaileari jakinarazi arte igarotzen den denborarako; nolanahi ere, jakinarazpena prozedura amaitzen duen ebazpenari buruzkoa denean, jarduketa hori jakinarazpen saio baliagarritzat hartuko da, prozeduren gehieneko iraupen epearen barruan jakinarazteko obligazioa betetzat ematearen ondorio soiletarako.

l) Espresuki erregelamenduz xedatzen denean.

54. artikulua. Administrazioari egotzi ezineko arrazoiarengatik eragindako luzamenduak.

Zergen Foru Arau Orokorrak 100.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira, besteak beste, Zerga Administrazioari egotzi ezineko arrazoiarengatik prozeduran gertatzen diren luzamendutzat:

a) Zergapekoak atzerapenak izatea, Zerga Administrazioak eskatuta agerraldietara etortzean edo zerga arloan garrantzia duten agiri, aurrekari edo informazioa aurkezteko errekerimenduak betetzean. Luzamendua zenbatuko da zergapekoa agertzeko finkatu den egunaren biharamunetik edo errekerimenduari erantzuteko emandako epea amaitu ondorengo egunetik hari eskatutakoa osorik bete arte. Osorik beteta ez badaude, zerga arloko garrantzia duten agiri, aurrekari edo informazio errekerimenduak ez dira erantzuntzat hartuko, zenbaketa horren ondorioetarako, harik eta behar bezala bete arte (eta hala ohartaraziko zaio zergapekoari), salbu eta berariazko araudian bestelakoa xedatzen bada.

b) Behin entzunaldi edo, hala badagokio, alegazio izapidea gauzatuta zergapekoak agiri eta froga berriak aurkeztea. Izapide horren epea amaitu ondorengo egunetik haiek aurkeztu arte zenbatuko da luzamendua. Agiriak prozeduraren izapidetaren barruan errekeritu direnean, aurreko a) paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

c) Zerga Administrazioak edozein eperen luzapena onartzea eta zergapekoak eskatutako jarduketaren gerorapena onartzea, aurreikusitako epea edo lehenik jarritako data iritsi ondorengo egunetik bigarrenik jarritako data arte igarotzen den denborarako.

d) Zergapekoak eskatuta hasitako prozedura geldiaraztea ebazpena emateko ezinbestekoa den izapidetaren bat ez betetzeagatik, izapidea betegabetzat hartu eta biharamunetik zergapekoak izapidea bete arte igarotzen den denborarako, eragotzi gabe interesdunari ohartarazi ondoren prozeduraren iraungipena deklaratzeko aukera.

e) Ebazpen edo likidazio proposamenak jakinarazten atzeratzea edo Zergen Foru Arau Orokorrak 151.3 artikuluko b) letran aipatzen diren jarduketak osatzea agintzen duen erabakia jakinarazten atzeratzea, jakinarazpen saio bat egin eta biharamunetik jakinarazpen hori gauzatu arte igarotzen den denborarako.

f) Zergapekoak aurkeztea zeharkako zenbatespeneko metodoaren aplikazioarekin lotutako datu, agiri edo frogak, espedientean jasota uzten denetik aurrera, Zergen Foru Arau Orokorrak 153.6 artikuluko a) letran jasotakoaren arabera.

g) Zergapekoak aurkeztea Zergen Foru Arau Orokorrak 122. artikuluan erregulatutako aitortpenak edo aurretik aurkeztutako beste batzuen itzulketa eskaera osagarri edo ordezkioak. Luzamenduaren zenbaketa hasiko da aitortpena edo itzulketa eskaera aurkezteko epea amaitu eta biharamunean edo, azken hori epea kanpo egiten denean, aurkezpen egunaren biharamunean, eta aitortpena edo itzulketa eskaera osagarria edo ordezkioa aurkeztean amaituko da.

h) Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eramateko obligazioa ez betetzea, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduak (abenduaren 17ko 47/2013 Foru Dekretua) 36.5 artikuluan aipatutako pertsonentzat eta entitateentzat. Luzamenduaren zenbaketa ondorioak izan ditzakeen prozedura bat hasten denean hasiko da, eta erregistro liburuak aurkeztu edo erregistratzen direnean amaituko da.

i) Fabrikazio zerga bereziei lotutako produktuen kontabilitatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eramateko obligazioa ez betetzea, Zerga Berezien Erregelamenduak (uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretua) 50.2 artikuluan a) letran aipatutako pertsonentzat eta entitateentzat. Ondorioak izan ditzakeen prozedura bat hasten denetik erregistro liburuak aurkeztu edo erregistratu arte zenbatuko da luzamendua.

j)³ TicketBAI betebeharrak garatzen duen Erregelamenduak, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, ezartzen duen betebeharrak ez betetzea. Ondorioak izan ditzakeen prozedura bat hasten denetik betebeharrak bete arte zenbatuko da luzamendua.

k)⁴ Espresuki aurreikusten direnak.

5. SEKZIOA. Zergapekoek zerga jarduketak eta prozeduretan esku hartzea

1. azpisekzioa. Administrazio jarduketetan egiteko baliatu beharreko pertsonak

55. artikulua. Errenta esleipeneko araubide bati lotutako entitateei eta Zergen Foru Arau Orokorreko 35.3 artikuluan jasotako zergapekoei buruzko jarduketak.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen entitateen kasuan, jarduketak helburua bada euren zerga obligazioak, izaera formalekoak barne, egoki betetzen dituztela aztertzea, aipatutako foru arauak 45.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz izendatutako ordezkariarekin egingo dira jarduketak.

Likidazioak egin behar badira, entitatearen izenean egingo dira, entitate horietako partaide, kide edo titularkideen erantzukizun solidarioa eragotzi gabe.

Errenta esleipeneko araubideko entitateek lortutako errentak kargatzen dituen zergari buruzko obligazioak egoki bete izanaren azterketa bazkide, jaraunse, komunero edo partaide bakoitzarekin zerga horren zergapekoa den aldetik bideratu daitezkeen prozeduren barruan egingo da. Prozedura horietan, entitatearen beraren obligazioei buruz egindako egiaztapen edo ikerketa jarduketak barruan lortutako datu, txosten edo aurrekariak erabili ahal izango dira.

³ Letra honen edukia abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren hirugarren azken xedapenak aldatu du eta bere aurreko edukia k) letra bihurtu du. Aipatu foru dekretuak TicketBAI betebeharrak garatzen duen Erregelamendua onesten du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2020/12/23ko GAO) eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

⁴ Letra honen edukia abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuaren hirugarren azken xedapenak gehitu du, aurreko j) letraren edukia k) letra bihurtuz. Aipatu foru dekretuak TicketBAI betebeharrak garatzen duen Erregelamendua onesten du. Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jartzen da indarrean (2020/12/23ko GAO) eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

2. Aldi baterako enpresa elkarteen, ekonomia intereseko taldeen eta errentak egoztera behartuta dauden gainerako entitateen zerga egoera haiekin batera egiaztatuko da, nahiz eta horrek ez duen kenduko bertako bazkide edo kideek eskubidea izatea haietako bakoitzari irekitako egiaztapen edo ikerketa prozedura izapidetzean egoki jotzen dituzten aurkaratze arrazoiak aurkeztea, baldin eta prozedura horretan entitatearekin egindako jarduketaren emaitzak aintzat hartzekoak badira.

56. artikulua. Erantzukizun solidarioari buruzko jarduketak obligazio berean hainbat zergapeko agertzen direnean.

1. Zergen Foru Arau Orokorrak 35.5 artikuluko lehen apartatuan jasotakoaren arabera hainbat zergapeko obligazio baten egitatezko kasu berean erantzule solidario badira, jarduketa edo prozeduraren xede den obligazioari lotuta ageri diren zergapekoetako edozeinekin egin ahal izango dira jarduketak eta prozedurak.
2. Prozedura bat hasi ondoren, zirkunstantzia hori ezagutzen diren gainerako zergapekoei jakinarazi beharko zaie, nahi badute jarduketetan agertu daitezen. Prozedura bat eta bakarra izango da, eta agertu direnekin egingo du aurrera. Handik aurrerako jarduketak kasu bakoitzean zilegi den zergapekoarekin egingo dira.
3. Ematen diren ebazpenak edo egiten diren likidazioak, halakorik bada, prozeduran agertutako zergapeko guztien izenean egingo dira, eta ezagutzen diren gainerako zergapekoei jakinaraziko zaizkie.

57. artikulua. Oinordekoekin egiten diren jarduketak.

1. Hildako pertsona fisikoei edo desegin edo azkendutako pertsona juridikoei edo gainerako entitateei buruzko jarduketaren edo prozeduren kasuan, Administrazioaren aurrean jardun beharko dute Zergen Foru Arau Orokorrak 39. eta 40. artikuluetan jasotakoaren arabera eskubide, betebeharrak eta, hala badagokio, zerga zehapenak eskualdatzen zaizkien pertsonen.
 2. Zerga Administrazioak edozein oinordekoekin egin ahal izango ditu jarduketak edo prozedurak.
 3. Behin prozedura bat hasita, zirkunstantzia hori ezagutzen diren gainerako oinordekoei jakinarazi beharko zaie, nahi badute jarduketetan agertu daitezen. Prozedura bat eta bakarra izango da, eta agertu direnekin egingo du aurrera. Handik aurrerako jarduketak kasu bakoitzean zilegi den zergapekoarekin egingo dira.
 4. Ematen diren ebazpenak edo egiten diren likidazioak, halakorik bada, prozeduran agertutako zergapeko guztien izenean egingo dira, eta ezagutzen diren gainerako zergapekoei jakinaraziko zaizkie.
 5. Jarauntsia banatu gabe badago, aplikagarria izango da Zergen Foru Arau Orokorraren 39. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa.
 6. Prozedura batean jarduketak zergapekoaren oinordekoekin egiten direnean eta haiei diru itzulketa bat egin beharra dagoenean, ezinbestekoa izango da egiaztatzea zer proportzio dagokion horietako bakoitzari berariazko legeriaren arabera, eskubidea aitortzeko eta itzulketa ordaindu edo konpentsatzeko. Ez da hala egin beharrik izango, ordea, banatu gabeko jarauntsiak behar bezala identifikatuta daudenean, horrelakoetan banatu gabeko jarauntsiari itzulketa aitortu eta ordainduko baitzaio.
- Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatuta ere, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuaren foru aginduz baldintza partikularrak jarri ahal izango dira itzulketak automatikoki izapidetzeko, haien kopuruaren eta zehazten diren beste zirkunstantzia batzuen arabera.

58. artikulua. Jarduketak likidazio edo konkurtso kasuetan.

1. Likidazio fasean dauden entitateen kasuan, administrazio jarduketak entitateen nortasun juridikoa azkendu baino lehen gertatzen direnean, jarduketa horiek likidatzaileekin egingo dira.

Behin entitatea deseginda eta likidatuta, aurreko artikuluan jasotakoaren kalterik gabe, likidatzaileen ardura izango da Administrazioaren aurrean agertzea, hala eskatzen bazaie entitatearen aurreko ordezkari eta, hala badagokio, haren liburu eta dokumentazioaren zaindari diren aldetik. Liburuak eta dokumentazioa erregistro publiko batean gordeta badaude, organo eskudunak haiek aztertu ahal izango ditu erregistroan bertan, eta likidatzaileak agertzeko eskatu ahal izango du jarduketa horietarako beharrezkoa denean.

2. Konkurtsoen kasuan, administrazio jarduketak konkurtsatuarekin berarekin egingo dira, baldin eta epaileak ez badu erabaki haren administrazio eta erabilpen ahalmenak etetea, eta, nolanahi ere, konkurtso administraztaileekin egingo dira konkurtsatuaren ordezkari diren aldetik edo kontu hartzaile eginkizuna betetzen duten aldetik, betiere Konkurtsoen uztailaren 9ko 22/2003 Legean jasotakoari jarraituz.

59. artikulua. Zergapeko ez-egoiliarrei buruzko jarduketak.

1. Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorraren bidez jarduten duten zergapeko ez-egoiliarren kasuan, Zerga Administrazioaren jarduketak zergapekoak izendatutako ordezkariarekin egingo dira, hala jasotzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak 47. artikuluan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 10. artikuluan.

Ordezkaria izendatzeko obligazioa bete ezean, Zerga Administrazioak Merkataritza Erregistroan establezimendu iraunkorraren ordezkari gisa agertzen den pertsona hartu ahal izango du halakotzat. Ez badago ordezkariarik izendatuta edo inskribatuta, edo ez-egoiliarren izenean kontratatzeke ahalmena duenaz besteko pertsona bada, Zerga Administrazioak azken hori hartu ahal izango du halakotzat.

Baldin eta betetzen ez bada Zergen Foru Arau Orokorrak hamargarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuan xedatutakoaren arabera zerga informazioaren egiazko trukezik ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateei exijitzen zaien ordezkaria izendatzeko obligazioa, Zerga Administrazioak zergapekoen ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea hartu ahal izango du haien ordezkariatzat.

2. Zergak ordaindu behar dituztenak baldin badira Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten zergapeko ez-egoiliarren, jarduketak egin ahal izango dira egoiliarra ez den zergapekoarekin, xede honetarako hark izendatutako ordezkariarekin edo, lege edo foru arau batek hala aurreikusten badu, jarduketak zuzenean egiteko egon daitekeen erantzule solidarioarekin. Azken kasu horretan, likidazioak zuzenean erantzule solidarioari egin ahal izango zaizkio, eta hark erabili ahal izango ditu likidaziotik edo erantzukizunetik eratortzen diren aurkaratze arrazoi guztiak.

2. azpisekzioa. Ordezkaritza zerga prozeduretan

60. artikulua. Legezko ordezkaritza.

1. Zerga arloan jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoak beren legezko ordezkarien bidez jardungo dira Zerga Administrazioaren aurrean.

Dena den, behin jarduteko gaitasunik ez zuten pertsonak hura eskuratu edo berreskuratuz gero, beren kabuz jardungo dira Zerga Administrazioaren aurrean, bai eta hura ez zuzenean aurkitzen ziren zerga egoera egiaztatzeke ere.

Haien legezko ordezkariak izan zutenek beren izenean agertu beharko dute, Zerga Administrazioak hala eskatuz gero, beraiek ordezkatu zituztenak lotu gabe.

2. Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. apartatua aipatutako pertsona juridikoen eta entitateen ordezkariak, administrazio jarduketaren momentuan ordezkariak dagokien pertsonak jardun beharko dira.

Obligazioak edo eginbeharrak sortu zirenean edo bete behar zirenean ordezkariak hori izan zutenak beren izenean agertu beharko dira, Zerga Administrazioak eskatuta, pertsona juridikoa edo entitatea lotu gabe.

3. Legezko ordezkariak bere izaera frogatu beharko dio Zerga Administrazioari. Dena den, ordezkariak hartu ahal izango dira erregistro publikoetan izaera horrekin inskribatuta ageri diren pertsonak. Bereziki, ordezkariak hori frogatuta egongo da, hura Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan agertzen denean.

4. Zergak aplikatzeko prozedura baten barruan, legezko ordezkariak aldatu edo azkentzen denean, egindako jarduketak baliozkotzat eta eraginkortzat hartuko dira, zirkunstantzia hori Zerga Administrazioan jarduketak egiten dituen organoari jakinarazten ez zaion bitartean.

61. artikulua. Borondatezko ordezkariak.

1. Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoen kasuan, beraiek emango dute ordezkariak.

Zerga alorrean jarduteko gaitasunik ez duten pertsona fisikoen kasuan eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen pertsona juridikoen kasuan eta entitateen kasuan, pertsona edo entitate horien ordezkariak dutenek eman dezakete borondatezko ordezkariak, betiere haren edukiak hala ahalbidetzen badu.

Pertsona juridikoen alde edo jarduteko gaitasuna duten pertsonen fisikoen alde eman daiteke ordezkariak.

2. Zergen Foru Arau Orokorrak 46. artikuluko 2. apartatua xedatutakoaren ondorioetarako, ordezkariak emandakotzat hartuko da, besteak beste, kasu hauetan:

a) Ordezkariak erregistro publiko batean frogatuta, inskribatuta eta indarrean agertzen denean.

b) Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien erroldan inskribatuta dagoenean.

c) Agiri publiko batean edo notarioak legeztatutako sinadura duen agiri pribatu batean jasota dagoenean.

d) Administrazio organo eskudunaren aurrean pertsonalki agertuta ematen denean, betiere eginbide batean jasota.

e) Zerga Administrazioak onartu duen eta, hala badagokio, ordezkariak eman behar duenaren eskura jarri den ordezkariak agiri normalizatuan jasota dagoenean. Kasu horietan, ordezkariak bere ordezkatuaren sinaduraren benetakotasunaz erantzungo du bere sinaduraren bidez. Ordezkariak agiri normalizatu onartzen duen xedapenean ezarriko da zeintzuk diren jarduketak eta prozedurak nahiz zer izapidetan izango den baliozkoa ordezkariak emateko modu hori.

f) Ordezkariak jasota dagoenean bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoa erabiliz eta Zerga Administrazioak ezartzen dituen berme eta beharkizunak beteta egindako agiri batean.

3. Ordezkariak kasu guztietan, honako datu hauek ageri beharko dira gutxienez:

a) Ordez kariaren eta ordezkatuaren izen-abizenak edo sozietate izena edo izendapen osoa, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta bien sinadura ere. Ordezkaritza agiri publiko batean ematen denean, ez da beharrezkoa izango ordez kariak sinatzea.

b) Ordezkaritzaren edukia, hedadura eta nahikotasuna. Ordezkaritza prozedura edo jarduketa konkretu baterako bakarrik ematen bada, organo eskudunari adierazi beharko zaio espresuki.

c) Non eta noiz eman den.

Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordez karien erroldan inskribatutako ordezkaritza erroldan alta hartzen duen egunean emandakotzat hartuko da.

d) Borondatezko ordezkaritza zergapekoaren legezko ordez kariak eman badu, legezko ordezkaritza frogatu beharko da.

4. Zergen Foru Arau Orokorrak 46. artikuluko 5. apartatuan jasotako jarduketetarako, kasu hauetan hartuko da akreditatutzat ordezkaritza:

a) Ordezkaritza berariaz jasota ageri denean prozeduraren xede den aitorten, autolikidazio edo eskaeran.

b) Ordezkaritza zergapekoaren beraren ekintzetatik edo jarduketei dagokionez hautemandako portaeratik eratortzen denean.

5. Ordezkaritza ezeztatzeak ez du berekin ekarriko zirkunstantzia hori organo jarduleari frogatu aurretik pertsona fisiko edo juridikoarekin egindako jarduketak deusezak izatea. Momentu horretatik aurrera, ulertuko da zergapekoa ez dela Zerga Administrazioaren aurrean agertzen eta haren errekerimenduei ez diela erantzuten, harik eta ordez kari berri bat izendatu edo hari pertsonalki erantzun arte.

6. Ordezkaritzari uko egiteak ez du ondoriozko izango organo jardulearen aurrean, harik eta uko egite hori modu frogagarri batean ordezkatuari jakinarazi arte.

62. artikulua. Legezko eta borondatezko ordezkaritzetarako xedapen komunak.

1. Ordezkaritza ordez kari bidez egiten den lehen jarduketan frogatu beharko da, nahiz eta ordezkaritzarik ez izatea edo ordezkaritza hori nahikoa ez izatea ez den oztopo izango egintza edo izapidea burututzat emateko, baldin eta ordezkaritza frogatzen bada edo akatsa zuzentzen bada jarduketez edo prozeduraz arduratzen den administrazio organoak eman behar duen 10 eguneko epean, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Nolanahi dela ere, zilegi izango da jarduketak egiteko baliatu diren pertsonen exijitzea euren identitatea frogatu dezatela eta zer kontzeptutan jarduten duten azal dezatela.

Ordez kariak ez badu ordezkaritzarik frogatzen, behar diren ondorioetarako ulertuko da egintza egin gabea dela edo zergapekoa bertaratu gabe dagoela, salbu eta zergapekoaren izenean egindako jarduketak zergapekoak berak berresten dituen.

2. Honako kasu hauetan joko dira berretsiztat ordez kariaren jarduketak, ordezkaritzako ahalorderik ez badago edo ahalorde hori nahikoa ez bada:

a) Zergapekoak aurkaratzen dituen ordez kariak zirkunstantzia hori alegatu gabe esku hartu duen prozeduran emandako egintzak.

b) Zergapekoak prozeduratik eratorritako zerga zorra edo zehapena ordaintzen duenean edo hura geroratu, zatikatu edo konpentsatzea eskatzen duenean. Dena den, kasu horietan ordezkaritzako ahalorderik eza edo nahikotasun falta zuzendu

gabe daudela joko da errekurtsio edo erreklamazio ekonomiko-administratibo batean ahalordearen falta edo nahikotasun eza alegatu badira.

3. Zerga prozedura batean ordezkari bidez jarduten denean, espresuki zirkunstantzia hori jasota utziko da eginbide guztietan eta espedienteari ordezkariaren frogagiria erantsiko zaio. Ordezkaritza agiri publiko bidez eman bada, nahikoa izango da haren erreferentzia jasotzea, eta espedienteari kopia soila edo fotokopia erkatua erantsiko zaio. Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan edo Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien erroldan inskribatutako ordezkariak izateak berekin dakar espedienteari zirkunstantzia hori erantsi beharretik salbuetsita gelditzea.

4. Ulertuko da zergapekoaren ordezkariarekin egindako zerga jarduketak zuzenean lehendabizikoarekin eginak direla.

Ahalorde nahikorik gabe agertzen den pertsonaren adierazpenek zuzenbidearen araberrako frogar balioa izango dute.

5. Ordezkaritza frogatuta edo haren edukitzari buruzko ustea izanda, ordezkatuak frogatu behar du halakorik ez dagoela, eta ezin izango ditu prozeduran egindakoaren deuseztasunaren oinarri gisa alegatu ordezkariak sortutako akats edo okerrak.

6. Errekurtsio edo erreklamazio ekonomiko-administratibo bat ebaztean, administrazio ebazpen edo likidazioa ordezkarietako ahalorderik ez izateagatik edo nahikoa ez izateagatik deuseztatzen denean, aginduko da jarduketak eraman daitezela ordezkarietako frogatu behar zen edo ez-nahikotzat hartutako ahalordea aurkeztu zen momentura, eta baliozkoak izaten jarraituko dute jarduketetan parte hartu zuen ordezkariarik gabe egindako tributuen aplikazioaren prozedurako jarduketek eta frogak.

7. Zergapekoak aholkulari fiskal baten edo berak momentu bakoitzean egoki deritzon pertsonaren laguntzarekin esku hartu ahal izango du jarduketa eta prozeduratan, eta jarduteko modu hori eta laguntzailearen nortasuna jasota utziko da espedientearen.

Ordezkariekin batera edozein pertsona agertzen bada prozedurara, frogatu behar da zergapekoa ados dagoela pertsona horrek esku hartzen dituen jarduketak ezagutzearekin.

II. KAPITULUA. ZERGA ARLOKO JAKINARAZPENAK

63. artikulua. Jakinarazpen elektronikoa.

1. Lehentasunez jakinarazpenak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira, eta, nolanahi ere, pertsona edo entitate interesduna bitarteko hori erabiliz jasotzera behartuta dagoenean edo hark bitarteko hori lehentasunezkoztat hartu edo haren erabilera espresuki onartu duenean.

2. Aurreko apartatua jasotakoa jasota ere, jakinarazpenak bitarteko elektronikorik erabili gabe egin ahal izango dira kasu hauetan:

a) Jakinarazpena egiten denean interesduna edo haren ordezkaria Ogasun eta Finantza Departamentuko edozein bulegotan espontaneoki agertzean eta momentu horretan komunikazio edo jakinarazpen pertsonala eskatzen duenean.

b) Administrazio jarduketaren eraginkortasuna ziurtatzeko beharrezkoa denean Ogasun eta Finantza Departamentuko langileek zuzenean entregatuz jakinaraztea.

3. Ogasun eta Finantza Departamentuak egindako jakinarazpen elektronikoa eskuratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo behar da,

indarrean dagoen araudian jasotako identifikazio elektronikoko sistemen artetik Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako sistema baten bidez identifikatuta.

4. Jakinarazpen elektronikoak jakinarazpenaren hartzaille den pertsonak edo entitateak edo behar bezala baimenduta eta akreditatuta dagoen bere ordezkariak eskuratu ahal izango ditu.

5. Interesdunaren eskura jarriko da egintza baten jakinarazpen elektronikoaren frogagiria, betiere honako hauek identifikatuta: jakinarazitako egintza eta haren hartzaillea, eskura jarri zaion data, eta haren edukian sartu den data edo legezko epea amaitzeagatik jakinarazpena errefusatzat hartu den data.

6. Inoiz ere ez dira bitarteko elektronikoak erabiliz egingo jakinarazi beharreko egintzarekin batera formatu elektronikora bihurtu ezineko elementuak dituzten jakinarazpenak.

7. Zerga Administrazioak jakinarazpena bitarteko elektronikoak eta ez-elektronikoak erabiliz egiten duenean, behar bezala egindako lehen jakinarazpena hartuko da baliozkotzat.

8. Zergapekoek, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz ezarriko duen eran, gehienez ere 30 egun natural adierazi ahal izango dituzte urte natural bakoitzaren barruan, eta epe horretan departamentuak ezin izango du jarri haien esku inolako jakinarazpenik Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan.

Jakinarazpena atzeratzen bada zergapekoak aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz adierazitakoagatik, atzerapen hori Zerga Administrazioari egotzi ezin zaion luzamendutzat joko da, Zergen Foru Arau Orokorrak 100.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

Dena den, apartatu honetako bigarren paragrafoan xedatutakoa ez denean bateragarria jarduketa administratiboak bere eraginkortasuna ziurtatzeko behar duen berehalakotasun edo azkartasunarekin, aurreko 2. apartatuko b) letran xedatutakoa aplikatuko da, eta, kasu horietan, Zerga Administrazioak zilegi izango du Zergen Foru Arau Orokorrean eta erregelamendu honetan arautzen diren jakinarazpen jarduketak egitea.

64. artikulua. Paperezko jakinarazpena.

1. Zergapekoari edo haren ordezkariari jakinarazpena egiterik ez dagoenean Zerga Administrazioari egotzi ezineko arrazoiarengatik, espedienteen jakinarazpen saioaren zirkunstantziak jasota utziko dira.

Espresuki jasota utziko da jakinarazpena errefusatu dela, hartzaillea ez dagoela edo bere zerga egoitzan edo jakinarazpena egiteko izendatutako tokian ezezagun gisa agertzen dela.

Bi aldiz jakinarazten saiatuta huts egin ondoren Zergen Foru Arau Orokorrak 108. artikuluko 1. apartatuan jasotakoaren arabera, iritsi izanaren abisua utziko da, hala badagokio, hartzaillearen postontzian, eta hari adieraziko zaio organo eskudunaren edo posta operadorearen bulegoetan agertzeko aukera izango duela, egintza, epea eta bigarren jakinarazpen saioaren zirkunstantziak helarazteko asmoz. Iritsi izanaren abisua informazio ondorioetarako bakarrik utziko da.

2. Posta zerbitzu unibertsala ematea agindu zaion operadoreak ezarritako posta kutxetan egiten direnean, paperezko jakinarazpena bulegoaren barruan utziko da, eta posta kutxaren titularrak edo hura hartzeko espresuki baimendutako pertsonak jaso ahal izango du. Jakinarazpena gauzatutzat emango da 10 egun natural igarotzen badira paperezko jakinarazpena bulegoan uzten denetik aurrera, aurretik hartu ez denean. Aurretik hartu denean, aldiz, jakinarazpena hartu den egunean emango da gauzatutzat.

nteresdunak eskatuta hasitako prozeduretan, jakinarazpen bitarteko hau erabiltzeko beharrezkoa izango da interesdunak aurrez lehenestea bitarteko hori kasuan kasuko prozeduran.⁵

3. Jakinarazpena ematerakoan jakiten bada zergapekoa hil dela edo bere nortasun juridikoa azkendu dela, zirkunstantzia hori jasota utzi behar da eta Zerga Administrazioak benetan hala gertatu dela egiaztatu beharko du. Kasu horietan, jakinarazpena prozedura amaitzen duen ebazpenari buruzkoa denean, jarduketa hori baliozko jakinarazpen saiotzat hartuko da, bakarrik prozeduren gehieneko iraupen epearen barruan jakinarazteko obligazioa betetzat jotzeko ondorioetako, nahiz eta jakinarazpena egin beharko zaien espedientean hala agertzen diren zergapekoaren oinordekoei.

4. Zerga Administrazioak beste estatu bateko agintari eskudunari eskatu ahal izango dio, elkarren laguntzari buruzko araudiari jarraituz, zerga administrazio horrek emandako edozein egintza jakinarazteko.

Beste estatu batean aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraituz egindako jakinarazpenak frogatzeko, espedienteari gehitu beharko zaio Espainiako agintari eskudunari estatu horrek bere araudiaren arabera gauzatutako jakinarazpenari buruz egiten zaion jakinarazpena edo komunikazioa. Apartatu honetan jasotakoaren arabera frogatuta beste estatu batean egiten diren jakinarazpenak baliozkotzat hartuko dira.

65. artikulua. Bertaratuta jakinaraztea.

1. Zergen Foru Arau Orokorreko 108. artikuluan aurreikusitako kasuan, zergapekoa edo bere ordezkaria agertzen bada iragarkia argitaratu eta hurrengo 15 egun naturaleko epean, jakinarazpena egingo zaio, eta horren berri eginbide batean jasoko da. Bertan, gainera, agertu denaren sinadura jasoko da.

2. Zergapekoa edo bere ordezkaria agertu bai, baina jakinarazi nahi diren agiriak jasotzeko uko egiten badio, zirkunstantzia horren berri emango da eginbide batean, jakinarazpenari uko egin izanaren berri jasota gelditu dadin. Halaber, jakinarazpena gauzatukotzat hartuko da Zergen Foru Arau Orokorreko 107. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoarekin bat.

3. Edonola ere, iragarkia argitaratu zen aldizkari ofizialaren erreferentzia sartuko da espedientean.

IV. TITULUA

ZERGA KUDEAKETAKO JARDUKETAK ETA PROZEDURAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

66. artikulua. Aitorpenak, autolikidazioak eta itzulketa eskaerak aurkeztea.

1. Zergen Foru Arau Orokorreko 94.3 artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako, autolikidazio ereduak eta gainerako aitorpenak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsiko ditu, eta berak haiek aurkezteko, eta, hala badagokio, zerga zorra sartzekoak ere modua, tokia eta epeak finkatuko ditu.

Halaber, berak onartu ahal izango ditu autolikidazioen eta gainerako aitorpenen modalitate erraztu edo berezien erabilpena, bai eta, zergadunak haietan jasotako

⁵ Paragrafo hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

datuen aldaketaren berri ematen ez duenean, haiek ondorengo zergaldietarako zer kasutan iraungo duten ere.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak itzulketa eskaeren ereduak onetsi ahal izango ditu. Bereziki onetsitako eredu edo formulariorik ez duten itzulketa eskaeren kasuan, zergapekoak eskatzen duen itzulketarako behar diren datuak bilduko ditu. Horretarako, zergaren araudian finkatutako toki eta epean idazkia aurkeztu beharko du.

67. artikulua. Aitorpen osagarri eta ordezekoak.

1. Aitorpen batzuk zerga betebeharrak eta zergaldi berarengatik aurretik aurkeztutako beste aitorpen batzuen osagarritzat hartuko dira, baldin eta aitorpen osagarri horietan aitortu gabeko beste datu batzuk sartu badira edo zati batean aldatzen bada aurretik aurkeztutakoen edukia, eta eraginda ez dagoen zatian indarrean iraungo dute.

Aitorpen bat aurretik aurkeztutako beste aitorpen baten ordezeko aitorpentzat hartuko da, baldin eta zerga betebeharrak eta zergaldi berari badagokio, eta, gainera, aurreko haren edukia ordezkatzeko badu.

2. Zergen Foru Arau Orokorreko 122. artikuluan aurreikusitako kasuetan, aitorpen osagarriak edo ordezekoak bakarrik aurkeztu ahal izango dira hasierako aitorpenari dagokion likidazioa egin baino lehen. Kasu horretan, egiten den likidazioak aintzat hartuko ditu osatutako edo ordezkatzutako datuak.

Likidazioa egin eta gero, zergapekoak aurretik aurkeztutako aitorpen baten edukia aldatu nahi badu, haren zuzenketa eskatu beharko du 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Zuzenketaren ondorioz ateratzen den zerga kuotatik, hasierako likidazioaren zenbatekoa kenduko da.

3. Aurretik betebeharrak formal bat betetzeko aurkeztutako aitorpenen osagarriak edo ordezekoak aurkeztu ahal izango dira.

4. Aitorpen osagarrietan eta ordezekoetan espresuki jasota utziko da modalitate bat edo bestea den, zein den zerga betebeharra eta zer zergaldiri buruz ari den.

68. artikulua. Autolikidazio osagarriak.

1. Autolikidazio osagarrien izaera edukiko dute aurretik aurkeztutako beste batzuen zerga betebeharrak eta zergaldi berari buruzkoak direnak, haiengatik sartu beharreko kopurua altuagoa bada edo itzuli edo konpentsatu beharreko kopurua aurreko autolikidazioan adierazitakoa baino txikiagoa bada. Eraginik jaso ez duen alderdiak berean jarraituko du.

2. Autolikidazio osagarrietan espresuki jasoko da zirkunstantzia hori eta zerga betebeharra eta zer zergaldiri buruz ari diren, eta baita aitortu behar diren datu guztiak ere.

3. Zergapekoak zerga betebeharra kuantifikatu beharko du, autolikidazio osagarrian jarritako elementu guztiak aintzat hartuta. Autolikidazio osagarritik ateratzen den zerga kuotatik, hasierako autolikidazioaren zenbatekoa kenduko da.

Bidegabeko itzulketa edo autolikidazio osagarritik irtendakoa baino itzulketa handiagoa eskatu denean, baldin eta itzulketa hori autolikidazio osagarria aurkeztu denerako oraindik egin ez bada, amaitutzat hartuko da hasiera batean presentatutako autolikidazioa aurkeztuta hasitako itzulketa prozedura, eragotzi gabe autolikidazio osagarri hori aurkeztuta itzulketa prozedura berri bat hastea.

Bidegabeko itzulketa edo autolikidazio osagarritik irtendakoa baino itzulketa handiagoa lortu denean, bidegabe eskuratutako kopurua ordaindu beharko da, aurkeztutako autolikidazio osagarritik irten daitekeen kuotarekin batera.

4. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, autolikidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du 72. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

69. artikulua. Itzulketa eskaera osagarriak eta ordezkioak.

1. Itzulketa eskaera osagarritzat hartuko dira aurretik aurkeztutako beste batzuen zerga betebeharrak eta zergaldi berari buruzko eskaerak, non aitortu gabeko datu berriak sartzen diren edo aurretik aurkeztutakoen edukia zati batean aldatzen den, eragiten ez den alderdian berean jarraituz.

Ordezko itzulketa eskaeratzat hartuko dira aurretik aurkeztutako beste batzuen zerga betebeharrak eta zergaldi berari buruzko eskaerak, non aurretik aurkeztutakoen edukia ordezkatzen den.

2. Itzulketa eskaera osagarri bat edo ordezkio bat aurkeztu ahal izango da Zerga Administrazioak, zerga bakoitzaren araudiari jarraikiz, itzulketa egitea erabaki baino lehen edo inolako itzulketarik egingo ez dela jakinarazten duen ebazpena eman baino lehen. Kasu horretan, erabakitzen den itzulketak edo administrazio ebazpenak aintzat hartuko ditu osatutako edo ordezkatutako datuak.

3. Behin aurreko apartatuan aipatutako itzulketa egitea erabakita edo administrazio ebazpena emanda, zergapekoak bere itzulketa eskaera zuzentzeko eskatu ahal izango du, 76. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

II. KAPITULUA. ZERGA KUDEAKETAKO PROZEDURAK

1. SEKZIOA. Autolikidazio edo eskaera bidez hasitako itzulketa prozedura

70. artikulua. Prozedura hastea.

Zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren ondoriozko itzulketak egiteko prozedura zergapekoak eskatuta hasiko da; horretarako, kopuru bat itzuli beharra eragiten duen autolikidazio bat edo eskaera bat aurkeztu beharko du, zerga bakoitzari buruzko araudian xedatutakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraikiz hasitako prozeduran, itzulketarik egin behar den eta zer zenbateko dagokion zehaztuko da.

71. artikulua. Prozedura izapidetzea eta amaitzea.

1. Eskatutako itzulketa eskuratzeko eskubidea onartu behar denean, organo eskudunak erabaki hori hartuko du, eta erabakia jakinarazitzat hartuko da bankuko transferentzia bidez haren kopurua jasotzerakoan.

Zergen Foru Arau Orokorreko 78.4 artikuluko a) letran xedatutakoarekin bat, onartzen den itzulketa kautelaz erabat edo zati batean atxikitzen denean, kautelazko neurria hartu duen organoak jakinarazi beharko du neurri hori hartu duela eta itzulketa erabaki duela.

2. Berandutze interesak ordaintzen direnean Zergen Foru Arau Orokorrak 31. artikuluko 2. apartatuan jasotakoaren arabera, interes tasa aplikatzeko erabiliko den oinarriaren gehieneko muga autolikidazioan edo eskaeran eskatutako itzulketaren zenbatekoa izango da.

3. Zergen Foru Arau Orokorrak 120.2 artikuluko hirugarren paragrafoan jasotakoaren arabera autolikidazio eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura bat, egiaztapen mugatuko prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat –salbu egiaztapen murriztuko prozedura– hastea eragiten duten akatsak, okerrak, desadostasunak edo zirkunstantziak daudenean, itzulketa egiteko prozedura dena delako prozeduraren hasiera jakinarazten denean amaituko da. Kasu bakoitzean eskumena duen organoak egingo du jakinarazpen hori.

Aurreko paragrafoan xedatutakoari jarraikiz hasitako prozeduran, itzulketarik egin behar den eta zer zenbateko dagokion zehaztuko da, eta, hala badagokio, zergapekoaren zerga egoerari buruzko beste alderdi batzuk ere bai.

4. Autolikidazio eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura batean, egiaztapen mugatuko prozedura batean edo ikuskapen prozedura batean –salbu egiaztapen murriztuko prozedura batean–, Zerga Administrazioak itzulketa egitea erabakitzen duenean, baldin eta prozedura horren bitartez itzulketa egiteko prozedurari amaiera eman bazaio, bidezko berandutze interesak ordaindu beharko dira, Zergen Foru Arau Orokorreko 31. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik. Kasu horretan, berandutze interesak kalkulatzeko, ez dira aintzat hartuko erregelamendu honetako 54. artikuluan jasota dauden Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiarengatik sortutako luzamendualdiak, prozedura horien barruan gertatzen badira.

2. SEKZIOA. Autolikidazioak, aitorpenak edo itzulketa eskaerak zuzentzeko prozedura

1. azpisekzioa. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura

72. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura hastea.

1. Zergapeko batek uste badu autolikidazio batek kalte egin diela nolabait bere bidezko interesei, autolikidazio hori zuzentzeko eskatu ahal izango du. Zuzentzeko eskaerak antolaketaren inguruko berariazko araudiari jarraituz eskuduna den organoari zuzenduko zaizkio.

2. Eskaera bakarrik egin ahal izango da behin autolikidazioa aurkeztuz gero eta Zerga Administrazioak behin betiko likidazioa egin baino lehen, edo, bestela, Zerga Administrazioak likidazio bitartez zerga zorra zehazteko duen eskubidea edo itzulketa eskatzeko eskubidea preskribatu baino lehen.

Zergapekoak ezingo du autolikidazioa zuzentzeko eskatu, Kudeaketa prozedura edo ikuskapen prozedura bat izapidetzen ari denean eta haren xedeak aurkeztutako autolikidazioaren xede den zerga betebeharra hartzen badu, betiere eragotzi gabe alegazioak egiteko eta izapidetzen ari den prozeduran egoki irizten diren dokumentuak aurkezteko eskubidea. Agiri horiek aintzat hartu beharko ditu izapideak egiten dituen organoak.

3. Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio bat egin duenean, zergapekoak autolikidazioaren zuzenketa eskatu ahal izango du bakar-bakarrik behin-behineko likidazioa zergapekoaren eskaeran aipatzen den uste edo arrazoa ez den batengatik egin bada.

Zuzenketa eskaeraren eta behin-behineko likidazioaren artean uste edo arrazoi ezberdina ageri dela uste izango da zuzenketa eskaerak zerga betebeharraren elementuei eragiten dienean eta haiek behin-behineko likidazio bitartez erregularizatu ez direnean.

4. Erregelamendu honetako 38. artikuluan xedatutakoaz gain, autolikidazio baten zuzenketa eskaeran ondorengo alderdiak bildu beharko dira:

a) Zuzendu nahi den autolikidazioa identifikatzea ahalbidetzen duten datuak.

b) Itzulketa bat eskatzen bada, eskatzailearen banku kontuaren zenbakia jasota utzi behar da espresuki, dirua bertan sartzeko. Idazkian halakorik agertu ezean, itzultzen den kopurua Ogasun eta Finantza Departamentuaren datu basetan ageri den banku kontuan ordainduko da.

5. Eskaerarekin batera, zuzenketa eskaera oinarritzeko hartutako agiriak erantsi beharko dira, eta baita zergapekoak egindako sarreraren frogagiriak ere.

73. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura izapidetzea.

1. Espedientea izapidetzerakoan, zuzenketa bidezkoa izatea oinarritzen duten zirkunstantziak egiaztatuko dira. Zuzenketarekin batera egindako diru sarrera bat itzultzea eskatzen denean, bidegabekia izan zein ez izan, ondorengo zirkunstantziak egiaztatuko dira:

a) Sarrera benetan egin dela eta, hala badagokio, itzulketa falta dela.

b) Bete daitezela irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, 24.2 artikuluko b) eta c) letretan exijitutako beharkizunak, atxikipenen, konturako sarreren edo legez beste pertsona edo entitate batzuei jasanarazi behar zaizkien zergen kasuan.

c) Itzulketaren egokitasuna, itzulketa eskuratzeko eskubidea duen titularra eta haren kopurua.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitakoaren eraginetarako, Administrazioak aurkeztutako agiriak aztertu ahal izango ditu, eta bere esku dauden datu eta aurrekariarekin alderatu. Zergapekoari berari errekerimenduak egin ere ahal izango dizkio, autolikidazioa zuzendu dezan, eskatutako zuzenketa eragina duten finantza eragiketen agiri bidezko justifikazioari buruzkoak barne. Gainera, hirugarrenei errekerimenduak egin ahal izango dizkie, eman behar duten informazio orokorra aurkez dezaten edo frogagiri egokien bidez berrets dezaten.

3. Prozedura honetan beharrezko jotzen diren txostenak eskatu ahal izango dira.

4. Jarduketak amaituta, interesdunari ebazpen proposamena jakinaraziko zaio, bere eskubidearen arabera komeni zaiona alega dezan proposamena jakinarazi ondorengo egunetik aurrerako 15 egunetan, salbu eta erabakitzen den zuzenketa bat etortzen bada interesdunak eskatu duenarekin edo Zergen Foru Arau Orokorra 126. artikuluko 1. apartatuan jasotakoa aplikagarri bada.

74. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura amaitzea.

1. Prozedura ebazpen bidez amaituko da, eta bertan autolikidazioa zuzentzea edo ez erabakiko da. Erabakia arrazoitu egin beharko da ukatzekoa bada edo erabakitako zuzenketa bat ez badator interesdunak eskatu duenarekin.

Autolikidazioa zuzentzea erabakitzen den kasuan, Zerga Administrazioak erabakitako ebazpenak behin-behineko likidazioa eramango du, zergapekoak egindako zerga zorraren kuantifikazioaren elementu adierazgarriren bati eragiten dionean.

2. Itzulketa eskuratzeko eskubidea onartzen denean, eskubidearen titularra nor den eta itzulketaren zenbatekoa zein den zehaztuko da, eta baita ordaindu behar diren berandutze interesak ere. Interes tasa aplikatzeko oinarritzat hartzen denak onartutako itzulketa edukiko du muga.

3. Zergen Foru Arau Orokorreko 96. artikuluko 1. apartatuarekin bat etorriz, zergapeko batek bere autolikidazioa zuzentzeko prozedura bat hasten badu eta zuzenketa prozeduran aipatutako zerga obligazioa barnean hartzen duen beste Kudeaketa edo ikuskapen prozedura bat abiaraztea erabakitzen bada, zuzenketa prozedura prozedura berriaren hasieraren jakinarazpenarekin batera amaituko da.

4. Prozedura honen ebazpena jakinarazteko dagoen gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori igarotzen bada hartutako erabakiaren gaineko jakinarazpen espresurik egin gabe, eskaera ezetsizat hartu ahal izango da.

75. artikulua. Autolikidazioak zuzentzeko prozeduretako berezitasunak, atxikipenei, konturako sarrerei edo jasandako kuotei buruzkoak.

1. Aurkeztutako autolikidazio batek atxikipenen, konturako sarreren edo jasanarazitako kuoten behar ez bezalako sarrera eragiten dizkienean beste zergapeko batzuei, zuzenketa eskatzeko legitimazio eta itzulketa eskuratzeko

eskubidea arautuko dira Zergen Foru Arau Orokorreko 32. eta 228.4 artikuluetan eta irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, xedatutakoari jarraikiz.

2. Atxikipenak, konturako sarrerak edo kuota jasanaraziak bidegabe jasan dituzten zergapekoek haien itzulketa eskatu eta lortu ahal izango dute irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, 24. artikuluan jasotakoaren arabera. Horretarako, bidegabeko sarrera egin zen autolikidazioa zuzentzeko eskatu ahal izango dute artikuluko honen 4. apartatuan jasotakoaren arabera.

Irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez garatzeko Erregelamendua onartzen duenak, 24.2.c) artikuluko 4. beharkizunean jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da zergapekoak ez duela eskubiderik berak jasandako kuoten kenkarirako, baldin eta Kudeaketa edo ikuskapen prozedura batean deklaritzen bada ez dela zilegi kuota horien kenkaria haiek bidegabe jasanarazteagatik eta prozedura horri amaiera eman dion egintza irmoa bada.

3. Balio erantsiaren gaineko zergen bidegabe jasanarazitako kuotak direnean, jasanarazpena egin zuen zergapekoak autolikidazioaren zuzenketa eskatu ahal izango du, edo, bestela, zerga egoera erregularizatzea erabaki ahal izango du, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 89.bost artikuluko b) letran aurreikusitakoaren arabera.

4. Autolikidazioaren zuzenketaren eskatzailea bada atxikipenak, konturako sarrerak edo kuota jasanaraziak bidegabe jasan zituen zergapekoa, aurreko artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da, ondorengo berezitasunekin batera:

a) Prozeduraren ebazpenaren ardura izango da zuzentzeko eskatu den autolikidazioa aurkeztu zuen zergapekoari dagokionez eskudun den organoarena.

Balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan, eragiketa bolumenaren arabera ordaintzen direnean zergak eta bidegabe jasanarazitako kuotak itzuli behar direnean, Gipuzkoan itzulketaren xede den ekitaldian egin den zergapetze portzentajea itzuliko da.

Zilegi denean bidegabe atxikitakoa edo kontura ordaindutakoa itzultzea eta eragiketa bolumenaren proportzioan ordaindu denean, itzulketari lotutako ekitaldian edo zergaldian Gipuzkoan izandako atxikipenaren edo konturako sarreraren portzentajea itzuliko da.

Zerga berezien kasuan, prozeduraren ebazpenaren ardura izango da jasanarazpena egin zuen zergapekoaren establezimenduari dagokionez antolaketaren inguruko berriarazko araudiari jarraituz eskudun den organoarena.

b) Eskaera egin ahal izango da atxikipen jarduketa, konturako sarreraren kenketa edo jasanarazpen jarduketa eskatzaileari modu frogagarri batean jakinarazi zaionetik, edo, bestela, hark horren berri izan duela egiaztatzen denetik aurrera.

Zuzentzea eskatzen den autolikidazioa aurkezteko dagoen aitorpen epea amaitu baino lehen aurkezten denean zuzenketa eskaera, etenaldi justifikatutzat hartuko da, prozedura ebazteko epea zenbatzeari dagokionez, hura aurkezten denetik aitorpenerako epe hori amaitu arte doan denbora.

c) Eskaeran jasota utziko dira, 72. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako zirkunstantziez gain, atxikitzailearen edo jasanarazitako konturako sarrera egin zuen pertsona edo entitatearen edo jasanarazpena egin zuen zergapekoaren izen-abizenak, edo sozietatearen izena edo izendapen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia ere.

Eskaerarekin batera, bidegabe jasandako atxikipena, konturako sarrera edo jasanarazpena justifikatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira.

d) Prozedura izapidetzen denean, konturako sarrera egin eta eraginkor bihurtu zuen edo jasanarazpena egin zuen atxikitzaile edo zergapekoari zuzenketa eskaera jakinarazi egingo zaio, eta agertzeko 10 eguneko epea duela esango. Epea errekerimenduaren jakinarazpen egunaren biharamunetik aurrera hasiko da, eta eskatutako agiri eta aurrekari guztiak eta egoki irizten direnak aurkeztu beharko dira.

Ondoren, jarduketak eskatzaileari eta autolikidazioaren aurkezleari jarriko zaizkio agerian, elkarren segidan, 15 eguneko aldika, epe horien hasiera jakinarazi eta biharamunetik aurrera, egoki deritzeten alegazioak eta frogak aurkeztu ditzaten. Horretarako, frogagirien edo agirien laburpenak egin ahal izango dira, edo haiei eragiten ez dieten datuen konfidentzialtasuna gordetzea ahalbidetzen duten beste metodo batzuk erabili ahal izango dira.

e) Prozedura amaitzen duen behin-behineko likidazioa edo ukatzeko ebazpena zergapeko guztiei jakinaraziko zaie.

f) Baldin eta baiestekoa den ebazpena errekurritzen badu atxikitzaileak edo konturako sarrera egin eta jasanarazten duen edo jasanarazpena egin zuen zergapekoak, hura ez da exekutiboa izango irmo bihurtzen den arte.

2. azpisekzioa. Aitorpenak eta itzulketa eskaerak zuzentzeko prozedura

76. artikulua. Aitorpenak eta itzulketa eskaerak zuzentzeko prozeduraren berezitasunak.

1. Behin Zerga Administrazioak Zergen Foru Arau Orokorreko 122. artikuluan araututako aitorpenen kasuan behin-behineko likidazioa eginez gero edo, itzulketa eskaeren kasuan, itzultzea erabakiz gero edo ezestekoa den ebazpena eginez gero, zergapekoak aurretik aurkeztutako aitorpena edo itzulketa eskaera zuzentzea eskatu ahal izango du, baldin eta uste badu haren edukiak nolabait bere interes legítimoak kaltetu dituela edo bidezkoa izan badaiteke kopuru handiagoko likidazioa edo kopuru txikiagoko itzulketa egitea.

Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egin duenean, zergapekoak zuzenketa eskatu ahal izango du bakar-bakarrik behin-behineko likidazioa zergapekoaren eskaeran aipatzen den uste edo arrazoia ez den batengatik egin bada. Zuzenketa eskaeraren eta behin-behineko likidazioaren artean uste edo arrazoi ezberdina ageri dela uste izango da zuzenketa eskaerak zerga betebeharraren elementuei eragiten dienean eta haiek behin-behineko likidazio bitartez erregularizatu ez direnean.

2. Zuzenketaren ondorioz ordaintzeko kopurua irteten denean, kasu bakoitzean ordaindu behar diren berandutze interesak exijituko dira. Berandutze interesak kalkulatzeko aldera, ez da aintzat hartuko hasierako aitorpena aurkeztu zenetik hasierako aitorpen horrengatik egindako likidazioari dagokion borondatezko ordainketa aldiaren epea amaitu arte igarotako denbora.

3. Artikulu honek aipatutako zuzenketa eskaeretan, 72.etik 75.era bitarteko artikuluetan ezarritako arauak aplikatuko dira.

3. SEKZIOA. Zerga itzulketak exekutatzeko prozedura

77. artikulua. Zerga itzulketen exekuzioa.

1. Baldin eta onartu bada zergaren arauditik eratorritako itzulketa bat jasotzeko edo bidegabe ordaindutako kopuruak itzultzeko eskubidea, Zerga Administrazioko organo eskudunak itzulketa hori egingo du.

Itzulketa egiteko bermeak eskatu badira lege batean edo foru arau batean aurreikusitakoari jarraikiz, eskatutako bermeak aurkeztea izango da itzulketa exekutatzeko baldintza.

2. Baldin eta itzulketarako eskubidea aitortu bada errekurso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo baten ebazpenean, epai batean edo beste ebazpen judizial edo arbitrajezko batean edo likidazioak eta beste administrazio egintza batzuk baliogabetzen edo berrikusten dituen beste edozein erabakitan, organo eskudunak ofizioz exekutatu edo, gainerako kasuetan, beteko ditu errekurso eta erreklamazio ekonomiko-administratiboaren ebazpenak, edo ebazpen judizial edo arbitrajezkoak edo administrazio erabakia edo ebazpena. Eragin horietarako, Administrazioko organo eskudunek itzulketa kuantifikatu eta egin ahal izateko, nahikoa izango da administrazio erabaki edo ebazpenaren kopia konpultsatua edo epaiaren lekukotza edo ebazpen judizial edo arbitrajezkoa eskuratzea.

3. Era berean, itzulketarako eskubidea onartutzat hartuko da, hala ondorioztatzen denean zergapetze bikoitza saihesteko nazioarteko hitzarmen bat aplikatuta adiskidetasunezko prozedura batean ematen den ebazpenetik.

4. 57.6 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe, itzulketarako eskubidea oinordekoei eskualdatzen zaien kasuetan, berariazko araudiari begiratuko zaio, eskubidearen titularrak zeintzuk diren argitzeko eta bakoitzari dagokion kopurua zehazteko.

5. Aurreko apartatuan xedatutakoa xedatuta ere, zerga itzulketarako eskubidea eskualdatzeak partikularren arteko egintza edo negozioengatik ez du eraginik izango Administrazioaren aurrean, Zergen Foru Arau Orokorreko 17. artikuluko 6. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

78. artikulua. Zerga itzulketen ordainketa edo konpentsazioa.

1. Itzuli beharreko kopurua ordaintzeko, banku transferentzia egingo da zergadunak edo berak baimendutako ordezkariak zerga autolikidazioan edo eskaeran adierazten duen zergapekoaren banku kontuan, eta zergapekoak ezin izango du erantzukizunik exijitu itzulketa berak adierazitako banku kontuaren zenbakian egiten denean. Banku kontuaren zenbakia espresuki agertu ezean, itzulketa Ogasun eta Finantza Departamentuaren datu baseetan ageri den eskatzailearen banku kontuan ordainduko da.

2. Behin itzulketarako eskubidea onartuta, konpentsazioa egin ahal izango da zergapekoak hala eskatuta edo ofizioz, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak onetsitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamenduan eta hura garatzeko araudian ezarritako prozedura eta epeekin bat etorriz.

Kasu horretan, konpentsatzekoa den itzulketaren zenbatekoaren gainean, konpentsazio horren ondorioz kreditua azkentzen den dataraino sortuko da martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, 31. artikuluan jasotakoaren arabera zergapekoaren alde bidezkoa den berandutze interesa.

3. Itzulketak exekutatzera koan akats materialen bat gertatzen bada, egitatezkoa edo aritmetikoa, kreditu entitateak zerga administrazio egileari itzuli egingo dio dagokion kopurua edo, bestela, hartzaileari zuzenean eskatuko zaio kopuru hori itzul dezala.

4. SEKZIOA. Aitorpenaren bidez hasitako prozedura

79. artikulua. Aitorpen bidez hasitako prozedura.

1. Zergapekoaren aitorpen bidez hasitako prozeduretan, Zerga Administrazioko organo eskudunak aukera edukiko du likidazioa egiteko egin behar diren

jarduketak gauzatzeko, Zergen Foru Arau Orokorreko 125. eta 126. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

Zergapekoari datuak edo agiriak eskatzen zaizkionean, 10 eguneko epea emango zaio, errekerimendua jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, aurkez ditzan, betiere berariazko araudiak beste eperik ezartzen ez badu.

2. Berrikuspen, kalifikazio eta kuantifikazio jarduketak egin ondoren, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazioa egingo du, Zergen Foru Arau Orokorrak 126.1 artikuluko a) letran jasotakoaren arabera, eta foru arau horrek 98. artikuluan xedatutakoari jarraituz jakinaraziko du hura. Dena den, baldin eta Zerga Administrazioak kontuan hartutako datuak edo baloreak bat ez badatoz zergapekoak bere aitorpenean jarritakoekin, kasu horretan zirkunstantzia hori likidazio proposamenean aipatu beharko da espresuki, zergapekoak bere eskubidearen arabera egoki deritzona alegatu dezan.

3. Prozedura iraungiz gero eta prozedura berri bat hasiz gero, Zergen Foru Arau Orokorrak 122. artikuluko 2. apartatuan jasotakoaren arabera, Zerga Administrazioak hasiera hori jakinaraziko dio zergapekoari, 37. artikuluan jasotako edukia jasota.

5. SEKZIOA. Eskaera izaerako zerga onurak aitortzeko prozedura

80. artikulua. Zerga Administrazioak eskaera izaerako zerga onurak aitortzeko prozedura.

1. Zerga onurak aitortzeko prozedura zergapekoak eskatuta hasiko da, hura emateko eskudun den organoari zuzendutako eskaera aurkeztuz. Harekin batera, exiji daitezkeen agiri eta frogagiriak aurkeztuko dira, baita zergapekoak egoki irizten dituenak ere.

2. Zerga onura emateko beharkizunen egiaztapena zerga onurari buruzko araudian exijitzen diren datu eta agiriei jarraikiz egingo da, baita hirugarrenek aitortu edo eman ditzaketen datuei edo Zerga Administrazioak, zergapekoari eta hirugarrenei eska diezazkiekeen datuei jarraikiz ere.

3. Ebazpena jakinarazi aurretik, ebazpen proposamena jakinarazi beharko zaio zergapekoari, ukatzeko ebazpena denean, bere eskubidearen arabera komeni zaiona alega dezan proposamen hori jakinarazi eta biharamunetik aurrerako 15 eguneko epean.

4. Zerga onurak aitortzeko prozedura ebazpen bidez amaituko da, eta bertan zerga onuraren ezarpena aitortu edo ukatuko da.

Prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea zerga onurari buruzko araudiak ezarritakoa izango da, eta, bestela, sei hilabetekoa. Ebazteko epea igarotzen bada ebazpena espresuki jakinarazi gabe, eskaera ezetsizat hartu ahalko da, salbu eta aplikatu beharreko araudian beste ezer adierazten bada.

81. artikulua. Eskaera izaerako zerga onurak aitortzearen eraginak.

1. Zerga onuren aitortpenak eraginak edukiko ditu aplikatu beharreko araudiak ezartzen duen unetik aurrera edo, bestela, hura ematea onartzen den unetik aurrera.

Zerga onuren aitortpena behin-behinekoa izango da, hartarako etorkizunean baldintza batzuk bete behar direnean edo espedientearen egiaztatu ez diren beharkizun jakin batzuk benetan bete behar direnean. Onura aplikatzeko, araudi aplikagarrian aurreikusitako baldintza eta beharkizunak bete behar dira une oro.

2. Kontrakoa adierazten duen xedapen espresua salbu, behin zerga onura ematen denean, ez da beharrezkoa izango hura etorkizunean aplikatzeko eskaera

berrestea, salbu hura ematea justifikatu zuten zirkunstantziak edo aplikatu beharreko araudia aldatzen badira.

Zergapekoek zerga onuraren bidezkoatasuna aitortu zuen organoari jakinarazi behar diote hura aplikatzeko eskatzen diren baldintza edo beharkizunetan edozein aldaketa garrantzitsu gertatzen bada. Organo horrek deklaratu ahal izango du, 15 egunez zergapekoari entzutea eman ondoren, epe horren hasiera jakinarazi eta biharamunetik aurrera, zerga onura aplikatzen jarraitzea bidezkoa den edo ez. Era berean jokatu da, Zerga Administrazioak jakiten duenean, edozein bitarteko erabiliz, zerga onura aplikatzeko behar diren baldintzak edo beharkizunak aldatu direla.

Ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan aipatutako entzunaldi izapidea egitea, Administrazioak hura aplikatzen jarraitzea ebazten duenean, behin zergapekoak adieraziz gero zerga onura aplikatzeko exijigarri diren baldintza edo beharkizun orokorren aldaketa nabarmen bat egon dela.

3. Zerga onura aplikatzeko exijituriko beharkizunak ez betetzeak hura aplikatzeko eskubidea galtzea eragingo du berariazko araudiak ezartzen duen unetik, edo, bestela, ez betetzea gertatzen denetik aurrera, aldez aurretik administrazio deklaraziorik behar izan gabe.

Zerga onuren aplikazioa etorkizuneko baldintzei lotuta dagoen kasuan, baldintza horiek ez betetzeak bidegabe aplikatutako zerga onurak erregularizatu beharra ekarriko du berekin, Zergen Foru Arau Orokorreko 117.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoari jarraikiz. Ondorio horietarako, zergaldirik gabeko zergak edo likidazioa direnean, zergapekoak autolikidazioa aurkeztu beharko du hilabeteko epean salbuespena, kenkaria edo zerga pizgarria aplikatzeko eskubidea galdu zuenetik, eta, salbuespenetik, kenkaritik edo zerga pizgarritik eratorritako kuota edo kopuruarekin batera, horri dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko ditu.

4. Zerga Administrazioak zerga onura baten aplikazioa erregularizatzen duenean Zergen Foru Arau Orokorrak 111. artikuluko 3. apartatuan jasotakoaren arabera, zirkunstantzia hori komunikatu beharko dio zerga onura hori onartu zuen organoari.

6. SEKZIOA. Aitorpen eta autolikidazioen aurkezpena kontrolatzeko jarduketak

82. artikulua. Aitorpen eta autolikidazioen aurkezpena kontrolatzeko jarduketak.

1. Zerga Administrazioari dagokio autolikidazioak eta gainerako aitorpenak aurkezteko obligazioa betetzen ari dela kontrolatzeko ardura ondorengo kasuetan:

a) Zentsu egoerari jarraikiz horretara behartuta daudenean.

b) Zergadunaren beraren beste aitorpen edo autolikidazio batzuen aurkezpenaren ondotik agerian geratzen denean.

c) Hirugarrenengandik etorrira Administrazioaren esku dagoen informaziotik eratorritakoa denean.

d) Zergak aplikatzeko beste jarduketa edo prozedura batzuk aurrera egin ahala agerian geratzen denean.

2. 1.a) apartatuan aurreikusitako kasuan, Zerga Administrazioak zergapekoari eskatu ahal izango dio egin gabe geratu den autolikidazio edo aitorpena aurkez dezala, edo, bestela, aldaketa edo zentsuko baja jakinaraz dezala.

3. 1.b) apartatuan aurreikusitako kasuan, Zerga Administrazioak uste izango du aitorpen edo autolikidazioaren aurkezpena egin gabe geratu dela eta hura

aurkeztea eskatu ahal izango du, besteak beste, aitorpen edo autolikidazio bat aurkezteko betebeharra zergapekoak berak konturako aitorpen edo autolikidazioen aurkezpenetik eratortzen denean edo, bestela, informazioa emateko obligazioa betetz izaera orokorrean exijitu diren aitorpenen aurkezpena egin gabe geratzen denean eta betebeharrak horri lotutako aldizkako aitorpen edo autolikidazioak aurkeztu direnean.

4. 1.c) apartatuan adierazitako kasuan, aitorpen edo autolikidazioak aurkeztu gabe gelditu direla uste izango da eta haiek aurkeztea eskatu ahal izango da.

Zergapekoak informazio hori zehaztasunik ez edukitzea edo gezurrezkoa izatea alegatzen duenean, hirugarrenari emandako informazioa berrets dezala eskatu ahal izango zaio.

5. Baldin eta errekerimenduari jaramonik egiten ez bazaio edo, jaramonik eginda, zergapekoak edo hirugarrenek aitortu edo autolikidatutako zenbatekoekiko desadostasunak erakusten dituen aitorpen edo autolikidazio bat aurkezten bada, Kudeaketa edo ikuskapen prozedura hasi ahal izango da.

6. Aitorpen eta autolikidazioen aurkezpena kontrolatzeko prozedura jarraian adieraziko den moduetako batean edo bestean amaituko da:

a) Aurkeztu gabeko aitorpen edo autolikidazioa aurkezteagatik.

b) Aurkezteko obligazioa betetzeari lotuta ez dagoela edo hartatik salbuetsita daudela justifikatzeagatik.

c) Zerga zorra ofizioz likidatzeko prozedura bat, egiaztapen mugatuko prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat hasteagatik, salbu egiaztapen murriztuko prozedurak.

d) Prozedura iraungitzeagatik, behin sei hilabeteko epea amaituz gero prozedurari amaiera ematen dion ebazpen espresurik jakinarazi gabe.

7. SEKZIOA. Autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura

83. artikulua. Autolikidazioak eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura hastea eta izapidetzea.

1. Administrazioak hasiera eman ahal izango dio autolikidazio eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura bati, Zergen Foru Arau Orokorrak 124 bis artikuluko 1. apartatuan jasotako kasuetan.

2. Prozedura hasterakoan, jarduketan hedadura zehaztu ahal izango da. Prozedura hasi ondorengo edozein momentutan eta alegazio epea hasi aurretik, Zerga Administrazioak jarduketan hedadura zabaltzea edo murriztea erabaki ahal izango du modu arrazoituan. Erabaki hori zergapekoari jakinarazi beharko zaio.

3. Ebazpen edo behin-behineko likidazioa egin aurretik, Administrazioak ebazpen edo likidazio proposamena jakinarazi beharko dio zergapekoari, 15 eguneko epean proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, bere eskubidearen arabera komeni zaiona alega dezan.

Alegazio izapidea bazter utzi ahal izango da, baldin eta ebazpenean espresuki adierazten bada egiaztapenaren ondorioz zerga egoera erregularizatzea bidezkoa ez dela edo aplikaziozkoa bada Zergen Foru Arau Orokorrak 126. artikuluko 1. apartatuan jasotakoa.

84. artikulua. Autolikidazio eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozedura amaitzea.

1. Autolikidazio eta behin-behineko likidazioak berrikusteko prozeduran itzultzeko likidazio bat ateratzen denean, berandutze interesak honela likidatu beharko dira:

a) Bidegabeko sarreren itzulketa bat denean, berandutze interesak likidatuko dira zergapekoaren alde, Zergen Foru Arau Orokorrak 32. artikuluko 2. apartatua jasotakoari jarraituz.

b) Zerga bati buruzko arauditik datorren likidazio bat denean, berandutze interesak likidatuko dira zergapekoaren alde, Zergen Foru Arau Orokorrak 31. artikuluan jasotakoari jarraituz.

2. Aurreko apartatua jasotakoa 71. artikuluko 4. apartatua xedatutakoa eragotzi gabe izango da.

8. SEKZIOA. Balioak egiaztatze prozedura

1. azpisekzioa. Printzipio orokorrak

85. artikulua. Balioen egiaztapena.

1. Zerga Administrazioak errenten, produktuen, ondasunen eta zerga obligazioa eragiten duten gainerako elementuen balioa egiaztatu ahal izango du, Zergen Foru Arau Orokorrak 56. artikuluan jasotakoaren arabera, salbu zergapekoak balio hauetako baten arabera aitortu badu:

a) Zerga Administrazioak Zergen Foru Arau Orokorreko 85. artikuluan jasotakoaren arabera horretarako komunikatutako balioa.

b) Administrazio jarduleak berak Zergen Foru Arau Orokorreko 56. artikuluko 1. apartatua aurreikusitako bitartekatiko bat aplikatuz argitaratutako balioak.

2. Sekzio honetan xedatutakoa zerga bakoitzaren araudian ezarritakoaren kalterik gabe ulertuko da.

86. artikulua. Balioak egiaztatze bitartekoak.

1. Zergen Foru Arau Orokorraren 56.1.b) artikuluan aipatutako balorazio bitartekoa aplikatu ahal izateko (zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioak erreferentziatzen hartuta), ezinbestekoa izango da Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak alde aurretik onartzea eta argitaratzea, foru agindu bidez, koefiziente biderkatzaileak kalkulatzeko erabilitako metodologia, metodologia horretatik ateratzen diren koefizienteak eta haien balio epea.

2. Balio egiaztapena merkatuko batez besteko prezioen arabera egiten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz onartu eta argitaratu ahal izango ditu batez besteko prezio horiek ondasun motaren arabera kalkulatzeko erabilitako metodologia edo sistema, eta handik ateratako balioak.

3. Balioak egiaztatze Administrazio perituaren irizpena erabiltzen denean, perituak titulazio nahikoa izan beharko du, baloratu beharreko ondasun motari egokitu.

Baloratu beharrekoa banakako ondasun edo eskubide bat denean, jasota utziko dira araudi aplikagarriaren arabera ondasun edo eskubidearen balioa kalkulatzeko aintzat hartu behar diren ezaugarri fisiko, ekonomiko eta juridikoak.

4. Zergen Foru Arau Orokorreko 56.1 artikuluko h) letran xedatutakoaren eraginetarako, zerga betebeharra dakarren eskualdatutako ondasunen balioa egiaztatu egin ahal izango du Zerga Administrazioak. Horretarako, ondasun beraren beste eskualdaketa batzuei dagokien prezio edo balio aitortua aintzat hartuko du, haiek urtebeteko epean egin direnean zergak eragina duen sortzapen datatik, betiere balio hori eragiten duten izaera fisiko, juridiko eta ekonomikoko zirkunstantziak funtsean mantentzen badira.

87. artikulua. Balioak egiaztatze jarduketak.

1. Balioen egiaztapena Zergen Foru Arau Orokorreko III. tituluko III. eta IV. kapituluetan aurreikusitako zergen aplikazio prozeduretako batean aurreikusitako

jarduketa zehatz baten moduan ere egin ahal izango da, salbu autolikidazio edo eskaera bidez hasitako itzulketa prozeduran.

2. Balio egiaztapena Zergen Foru Arau Orokorraren III. tituluaren araututako beste prozedura baten barruan egiten bada eta jarduten duena ez bada prozedura izapidetzen duen organoa, sorburu duen prozedurari lotuko zaio balio egiaztatua.

3. Balioen egiaztapena aurreko 1. apartatuan aurreikusitakoari jarraikiz egiten denean, Zergen Foru Arau Orokorreko 128. artikuluan eta sekzio honetan xedatutakoa aplikatuko da, salbu eta gehieneko ebazpen epeari dagokiona, hura izango baita izapidetzen ari den prozedurarena.

Balioak egiaztatzekeo jarduketak ikuskapen prozedura batean egiten direnean, Zerga Administrazioaren ahalmenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean eta Zerga Ikuskaritzaren Erregelamenduan (azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretua) ikuskapen organoei onartutakoak izango dira.

4. Balioen egiaztapena egiteko erabiltzen den prozedura edozein dela ere, zergadunek eskubidea dute peritu tasazio kontrajarria bultzatzeko, Zergen Foru Arau Orokorreko 129. artikuluan eta sekzio honetan ezarritakoaren arabera.

5. Ez dira balioak egiaztatzekeo jarduketatzat hartuko errenten, produktuen, ondasunen edo zerga obligazioan eragina duten elementuen balioa zuzenean foru arau, lege edo erregelamendu batetik datorrenean egiten diren jarduketak.

2. azpisekzioa. Balioak egiaztatzekeo prozedura

88. artikulua. Balioak egiaztatzekeo prozedura.

1. Prozedura honetan, Administrazioaren esku dauden datuak nahiz zergapekoek beren aitorpenean adierazitakoak azter ditzake Zerga Administrazioak. Era berean, aurkezten edo propio errekeritzen diren frogagiriak azter ditzake, eta balorazioa egiteko beharrezkoa den informazioa eska diezaieke zergapekoari nahiz hirugarrenei.

Orobat, baloratu beharreko ondasun eta eskubideen azterketa fisiko eta dokumentala egin dezake Administrazioak. Horretarako, organo eskudunek Zergen Foru Arau Orokorraren 136. artikuluan jasota dauden ahalmenak izango dituzte.

2. Ondasunak bereziak direnean edo beren zirkunstantzia aipagarri guztiak iturri dokumental kontrastatuen bidez lortu ezin direnean, perituen irizpenean beharrezkoa izango da perituak pertsonalki ezagutzea berak baloratutako ondasuna. Ondasunaren edukitzaileak ezagutza hori galarazteak berekin ekarriko du Zerga Administrazioa beharkizun hori betetzetik salbuestea.

3. Zergen Foru Arau Orokorrak 56. artikuluan aipatzen dituen bideetako edozein erabiliz egindako balio egiaztapenetik ateratzen den balorazio proposamenak arrazoitua izan behar du.

Foru arau horren 99.3 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, balorazio proposamenak espresuki jasoko ditu araudi aplikagarria eta haren aplikazioaren xehetasunak.

Bereziki, honako alderdi hauek jasoko ditu:

a) Zerga alorreko erregistro ofizialetan ageri diren balioen erreferentzia bidezko balioespenean, zehaztu beharko da zein izan den erreferentziatzat hartutako balioa eta zeintzuk balio hori kalkulatzeko erabilitako parametro, koefiziente eta gainerako kuantifikazio elementuak.

b) Merkatuko batez besteko prezioak erabiltzen badira, zehaztu beharko da nola egokitu diren kasu zehatzera merkatuko batez besteko prezioen azterketak eta kalkulu sistema.

c) Perituen irizpenetan, zehazki adierazi beharko da egitatezko zer elementuk justifikatzen duten aitortutako balioa aldatzea, eta emandako balorazioa ere adieraziko da. Ondasun higiezinaren kasuan, espresuki zehaztu beharko da zein izan den aplikatutako oinarritzko modulu unitarioa, jatorria non duen eta nola kalkulatu den. Orobat, balio egiaztatua zehazteko kontuan hartutako zirkunstantzia aipagarri guztiak jaso beharko dira, hala nola azalera, antzintasuna, edo beste batzuk, amaierako balioan duten eragina eta haien jatorria ere adieraziz.

4. Administrazioaren balorazioa gero egingo den behin-behineko likidazioaren oinarri gisa erabiliko da, baina horrek ez du eragotziko egiaztapen mugatuko prozedura bat edo ikuskapen prozedura bat hastea zerga obligazioaren beste elementuei dagokienez.

3. azpisekzioa. Perituen tasazio kontrajarria

89. artikulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura hastea eta izapidetzea.

1. Zergapekoak perituen tasazio kontrajarria eskatzen duenean, beharrezkoa izango da Administrazioako peritu batek egindako balorazioa edukitzea, balioaren egiaztapena Administrazioako peritu irizpenak ez diren beste bitarteko batekin egin bada. Ondorio horietarako, organo eskudunak baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda bidaliko die zerbitzu teknikoei. Hilabeteko epean, haientzat egokia duen titulazioa duen langileak kasuan kasuko balioespen orria egingo du, bertan egindako balorazioaren emaitza eta erabilitako irizpideak jasoz.

Bakarrik ulertuko da perituen tasazio kontrajarria zergapekoek sustatzen dutela balorazioaren aurka egiteko arrazoiak kuantifikazioari buruzkoak baino ez direnean, hau da, oinarritzko modulu unitarioa, antzintasunak dakarren balio galera edo kuantifikazioan aintzat hartutako gainerako zirkunstantzien inguruko koefiziente eta zifrak, non eta zergapekoak ez duen espresuki adierazten ez duela perituen tasazio kontrajarririk sustatu nahi eta egintza administratiboa aurkaratu nahi duela.

2. Organo eskudunak zergadunari jakinaraziko dio aurreko apartatuan adierazitako balorazioa, edo, balioen egiaztapena Administrazioako perituen irizpen bitartez egin den kasuan, espedientean jada ageri den balorazioa, eta 10 eguneko epea emango zaio balorazioa jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, ondasunen izaerarekiko eta baloratu beharreko eskubideekiko titulazio egokia duela frogatu beharko duen peritu bat izendatu ahal dezan.

10 eguneko epea igaro eta zergapekoak periturik izendatu ez badu, ulertuko da atzera egiten duela perituen tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidean, eta prozedura amaitutzat emango da. Kasu horretan, egiten den likidazioak kontuan hartuko du hasierako likidazioaren oinarri gisa erabili den balio egiaztatua, eta ezin izango da beste tasazio kontrajarririk sustatu.

3. Behin zergapekoak peritua izendatuta, ondasun eta eskubideen zerrenda emango zaio, eta hark zerrenda jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, balioespen orria egin beharko du, arrazoituta beti.

Hilabeteko epea igarotzen bada baloraziorik aurkeztu gabe, ulertuko da zergapekoak atzera egiten duela perituen tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidean, eta prozedura amaitutzat emango da. Kasu horretan, egiten den likidazioak kontuan hartuko du hasierako likidazioaren oinarri gisa erabili den balio egiaztatua, eta ezin izango da beste tasazio kontrajarririk sustatu.

4. Hirugarren perituak izendatze aldera, Ogasuneko zuzendari nagusiak, gutxienez hiru urtean behin, eta urtarilaren barruan beti, hirugarren peritu gisa jarduteko prest dauden profesionalen zerrenda bat igor dezatela eskatuko die legez aitortutako elkargo, elkarte edo korporazio profesionalei. Zozketa publiko bidez zerrenda bakoitzeko bat aukeratuta, izendapenak hurrenkera korrelatibo

bidez egingo dira, ondasunen izaera eta baloratu beharreko eskubideak aintzat hartuta.

Baloratu beharreko ondasun edo eskubideen izaera dela-eta ez badago elkargo, elkarte edo korporazio profesional eskudunik edo inongo profesionalik ez badago prest hirugarren peritu gisa jarduteko, Espainiako Bankuari eskatuko zaio erregistro ofizial batean inskribatutako tasazio sozietate bat izenda dezala.

5. Zergadunak ordaindu behar ditu bere perituaren lansariak. Hirugarren perituak egindako tasazioaren eta aitortutako balioaren arteko aldea, balio absolututan hartuta, aitortutako balioaren % 20koa baino handiagoa bada, zergapekoak ordainduko ditu hirugarren perituaren gastuak; bestela, Administrazioaren kontura joango dira. Kasu horretan, zergapekoak eskubidea izango du ondorengo paragrafoan aipatzen den gordailuagatik beharrezkoak izan diren gastuak berreskuratzeko, esate baterako, gordailua dela eta jasotako kredituengatik finantza entitate, notario eta erregistroei ordaindutakoak.

Hirugarren perituak exijitu dezake ezen, bere egitekoan hasi aurretik, eta 10 eguneko epean, bere ordainsarien zenbatekoa gordailatu dadila Ogasun eta Finantza Departamentuko Finantza Zerbitzuan. Zergapekoak ez badu gordailurik egiten, onartuta geratuko da Administrazioari perituak egindako balorazioa, bi balorazioen arteko diferentzia zeinahi dela ere.

Hirugarren perituak zenbateko hori aurrez hornitzea eskatu badu, balorazioa egiten hasteko itxaron beharko du zergapekoak gordailua esandako epean egin duela baieztatzen zaion arte.

Zerga Administrazioak ordainsari estandarrak ezarri ahalko ditu Zergen Foru Arau Orokorreko 129.3 artikuluan eta sekzio honetan aurreikusitakoari jarraikiz izendatu behar diren hirugarren perituentzat. Beharrezkoa izango da izendapena zozketaz hautatuko perituak onartzea. Izendapena onartzeak Administrazioak erabakitako ordainsariak onartzea ekarriko du.

6. Hirugarren perituak izendapena onartu ondoren, baloratu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda eta aurreko perituen balioespen orrien kopiak emango zaizkio. Hilabeteko epean, dokumentazio hori jaso ondorengo egunetik kontatzen hasita, aurreko balorazioetako batzuk berretsi edo beste batzuk egin beharko ditu, Zergen Foru Arau Orokorren 129.4 artikuluan jasotako mugak eragotzi gabe.

Hirugarren perituak behin balorazioa Zerga Administrazioari eman ondoren, zergapekoari jakinaraziko zaio, eta horrek 15 eguneko epea izango du bere kontura doazen ordainsariak ordaindu izana justifikatzeko. Hala badagokio, gordailuan utzitako ordainsariak erabiltzea baimenduko da.

Hirugarren perituak ez badu balorazioa egiten aurreko paragrafoan aipatutako epean, indarrik gabe utzi daiteke bere izendapena, eta erantzukizunak exiji dakizkioke bere irizpena epe barruan ez emateagatik. Izendapena eraginik gabe uzten bada, zirkunstantzia hori hirugarren perituari eta zergapekoari jakinaraziko zaie, eta, hala badagokio, gordailuan utzitako ordainsarien askapena egingo da eta hurrenkera korrelatiboa erabilita hirugarren beste peritu bat izendatu.

90. artikulua. Perituen tasazio kontrajarriaren prozedura amaitzea.

1. Modu hauetako batean amaituko da perituen tasazio kontrajarriaren prozedura:

- a) Hirugarren perituak egindako balorazioa Zerga Administrazioari emateagatik.
- b) Zergapekoak bere asmoan atzera egiteagatik aurreko artikuluko 2. eta 3. apartatuetan esandako eran.
- c) Hirugarren peritua izendatzea beharrezkoa ez izateagatik Zergen Foru Arau Orokorren 129.2 artikuluan jasotakoaren arabera.

d) Ordainsariarentzako gordailua eratu ez izateagatik erregelamendu honen 89. artikuluko 5. apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako moduan.

e) Prozedura Zergen Foru Arau Orokorraren 100.5 artikuluan jasotako eran iraungitzeagatik.

Prozedura ebazteko epea urtebetekoa izango da gehienez. Ebazteko epea igarotzen bada ebazpen espresurik jakinarazi gabe Zerga Administrazioari egotzi dakioken arrazoiarengatik, zergapekoak aitortutako balioa nagusituko da.

2. Artikulu honetako 1.c) apartatuan aipatutako kasuan, egiten den likidazioak kontuan hartuko du zergapekoaren perituak Zergen Foru Arau Orokorraren 129.2 artikuluari jarraikiz egindako tasaziotik ateratzen den balorazioa, eta Zerga Administrazioak ezingo du beste balio egiaztapen bat egin ondasun edo eskubide berberen gainean.

3. Artikulu honetako 1.d) apartatuan aipatutako kasuan, egingo den likidazioak Administrazioko perituaren balorazioa hartuko du kontuan, eta zergapekoak ezingo du berriro sustatu perituen tasazio kontrajarririk.

4. Artikulu honetako 1.e) apartatuan aipatutako kasuan, egiten den likidazioak hasierako likidazioaren oinarri gisa erabili den balio egiaztatua hartuko du kontuan, eta ezin izango da beste tasazio kontrajarririk sustatu.

5. Prozedura bukatutakoan, Zerga Administrazio eskudunak honako hau egin beharko du hilabeteko epean: oinarritzat hartu behar den balorazioaren likidazioa eta bidezkoak diren berandutze interesena jakinarazi edo, bestela, aurretik egindako balorazioa berretsi.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea ez betetzeak berekin ekarri du berandutze interesik ez exijitzea epea bete ez denetik aurrera.

Likidazioa jakinarazteak, edo aurretik egindakoa berresteak, hasiera emango dio Zergen Foru Arau Orokorraren 61.2 artikuluan ordainketa egiteko aurreikusita dagoen epeari, eta orduan hasiko da, baita ere, likidazioaren aurka errekurtsioa edo erreklamazioa jartzeko epea, betiere epe hori etenda geratu bada perituen tasazio kontrajarriaren eskaera aurkezteagatik.

9. SEKZIOA. Egiaztapen mugatuko prozedura

91. artikulua. Egiaztapen mugatuko prozedura hastea.

Egiaztapen mugatuko prozedura hasi ahal izango da, besteak beste, ondorengo kasuetan:

a) Zergapekoak aurkeztutako autolikidazio, aitorpen edo eskaeretan, edukian akatsak ikusten direnean edo aitortutako datuen edo aurkeztutako frogagirietan datozen datuen eta Zerga Administrazioaren esku dauden frogak elementuen artean desadostasunak daudenean.

b) Zergapekoak aurkeztutako autolikidazio, aitorpen edo eskaeretan zerga betebeharraren elementu guztiak edo elementuren bat egiaztatu behar direnean.

c) Behin-behineko likidazio baten bidez jada berrikusita dauden autolikidazio edo aitorpenen kasuan, erreparatzen denean Zergen Foru Arau Orokorraren 126. artikuluko 1. apartatuko b) letratik g) letrara bitartean aipatutako zirkunstantzietako bat edo aurreko behin-behineko likidazioan kontuan hartu ez diren beste batzuk gertatzen direla.

d) Administrazioaren esku dauden aurrekariei jarraikiz aitortzeko betebeharra izana edo zerga egitatea edo egitatezko oinarria gauzatu izana agerian geratzen denean, autolikidazioa edo zerga aitorpena aurkeztu izanaren berri eduki gabe.

92. artikulua. Egiaztapen mugatuko prozedura izapidetzea.

1. Zerga Administrazioak jarduketan hedapena zabaltzea edo murriztea erabaki ahal izango du modu arrazoitu batean. Erabaki hori zergapekoari jakinarazi beharko zaio, eta likidazio proposamenarekin batera egin ahal izango da.

2. Ebazpena eman aurretik, Administrazioak ebazpen edo likidazio proposamena jakinarazi beharko dio zergapekoari, 15 eguneko epean proposamena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, bere eskubidearen arabera komeni zaiona alega dezan.

Zilegi izango da alegazio izapidea ez egitea, baldin eta ebazpenean espresuki adierazten bada egindako egiaztapenaren ondorioz ez dagoela zertan erregularizatu zerga egoera.

3. Prozedurak xede duen zerga obligazio bakoitzari dagokionez, zilegi izango da egiaztapenak hartzen duen denbora eremu osorako ebazpen bakarra ematea, zorra egiaztatutako zergaldietako edo likidazio aldietako likidazioen batuketa aljebraikoaren bidez zehatz dadin.

93. artikulua. Egiaztapen mugatuko prozedura amaitzea.

1. Egiaztapen mugatuko prozeduratik itzultzeko likidazioa ateratzen denean, berandutze interesen likidazioa honela egin beharko da:

a) Bidegabeko sarreren itzulketa bat denean, berandutze interesak likidatuko dira zergapekoaren alde, Zergen Foru Arau Orokorrak 32.2 artikuluan jasotakoari jarraituz.

b) Zerga bati buruzko arauditik datorren itzulketa bat denean, berandutze interesak likidatuko dira zergapekoaren alde, Zergen Foru Arau Orokorrak 31. artikuluan jasotakoari jarraituz.

2. Aurreko apartatuan jasotakoa 71. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe izango da.

Lehen xedapen gehigarria. Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik sinatutako lankidetza hitzarmenak.

1. Erregelamendu hau indarrean jartzean autolikidazioak, aitorpenak edo beste zerga agiri batzuk Ogasun eta Finantza Departamentuan aurkezteko akordioak edo lankidetza hitzarmenak edo haien gehigarriak sinatuta dituzten zerga Kudeaketarako gizarte lankidetzako subjektuek jarraitu ahal izango dute beren lankidetza aipatutako akordioen arabera eskaintzen, betiere erregelamendu honetan eta hura garatzeko araudian jasotakoari jarraitzen badiote.

2. Zerga Kudeaketarako gizarte lankidetzarako bide berriak ezartzen direnean, aurreko apartatuan aipatutako gizarte lankidetzan parte hartzen dutenek beren lankidetza zabaldu ahal izango dute, lehendik sinatuta dituzten akordioen eta haien gehigarrien arabera, betiere erregelamendu honetan eta lankidetza bide berriei buruzko araudian jasotakoari jarraitzen badiote.

Bigarren xedapen gehigarria. Zuzenbide publikoko bidegabeko sarreren itzulketa.

Erregelamendu honetako 77. eta 78. artikuluetan jasotakoa tributuak ez diren izaera publikoko sarreren itzulketei aplikatuko zaie, besterik ezean.

Azken xedapen bakarra. Arauak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari erregelamendu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- **32/2020 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duena (2020/12/23ko GAO).**

Bere azken xedapenetako hirugarrenak 54. artikuluan jasotzen duen j) letra k) letra bihurtzen du eta j) letrari edukia berria ematen dio.

- **56/2023 FORU DEKRETUA, abenduaren 12koa, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituen (2023/12/18ko GAO).**

Bere 4. artikuluko prezeptu hauek aldatzen ditu:

- 29. artikuluko 1. apartatuari h) letra gehitzen zaio, eta 3. apartatua aldatzen du.
- 64.2 artikuluko bigarren paragrafoa.